

# TXOSTENA IXUSTENA

# 23

**EAE-KO**

**NERABEAK.**

**HURBILKETA**

**AHALDUNTZETIK**

**ABIATUTA**



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**



**EAE-KO**

**NERABEAK.**

**HURBILKETA**

**AHALDUNTZETIK**

**ABIATUTA**

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2009

**IZENBURUA:** "EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta"

**EDITOREA ETA EGILEA:** EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz

**AUTOREA:** Marce Masa Carrasqueño

**MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:** ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua

**DISEINU GRAFIKOA:** Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón

**DATA:** 2009ko azaroa

**DESKRIBATZAILEAK:** Nerabeak, genero azterlanak, lana, familiako arduen banaketa, osasuna, sexua, ikasketa maila, ikerketa, inkestak, datu estatistikoak

**ALE-ZENBAKIA:** 500

**INPRIMAKETA:** Estudios Gráficos ZURE

**ISBN:** 84-89630-19-4      978-84-89630-19-2

**L.G.:** BI-3059-09

**Salneurria: 20 euro**

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	9
<b>1. SARRERA</b> .....	13
<b>2. HELBURUAK</b> .....	17
<b>2.1.</b> Helburu nagusia .....	19
<b>2.2.</b> Helburu zehatzak .....	19
<b>3. IKERKETAREN DISEINUA</b> .....	21
<b>3.1.</b> Ahalduntze kontzeptuaren ikuskera zabal baterantz .....	23
<b>3.2.</b> Nerabeak: hautatzeko arrazoiketa .....	25
<b>3.3.</b> Nerabeei edo gazteei eta ahalduntzeari buruzko ikerketa kuantitatibo eza .....	26
<b>3.4.</b> Metodo kualitatibo eta kuantitatiboan ondoz ondoko konbinazioa .....	28
<b>3.5.</b> Ikerketaren faseak .....	29
<b>3.5.1.</b> Lehen fasea: testuinguru bibliografikoa .....	29
<b>3.5.2.</b> Bigarren fasea: arloko lan kualitatiboa (elkarrizketa sakonak) .....	30
<b>3.5.3.</b> Hirugarren fasea: arloko lan kualitatiboa (eztabaida-taldeak) .....	31
<b>3.5.4.</b> Laugarren fasea: arloko lan kuantitatiboa ("in situ" galdeketak) ..	32
• Galdeketaren diseinu partekatua: aurretest bat egitea .....	32
• Arloko lana prestatzea. ....	33
• Laginaren segmentazio-aldagaiak .....	34
<b>3.5.5.</b> Bosgarren fasea: informazio kuantitatiboaren sistematizazioa ..	37
<b>3.6.</b> Arloko lanari buruzko zenbait azalpen .....	38
<b>4. EMAITZEN AZTERKETA</b> .....	41
<b>4.1.</b> Ezaugarri soziodemografikoak (identifikazioa) .....	44
<b>4.1.1.</b> Sexua .....	44
<b>4.1.2.</b> Adina .....	45
<b>4.1.3.</b> Bizilekua: lurralde historikoa eta udalerrria .....	45
<b>4.1.4.</b> Hezkuntza: zentroaren titulartasuna, hezkuntza-maila eta hizkuntza-eredua .....	47
<b>4.1.5.</b> Jatorri atzerritarra .....	49
<b>4.2.</b> Familia esparrua .....	50
<b>4.2.1.</b> Bizikidetzaren unitatea .....	51
<b>4.2.2.</b> Gurasoen jatorri atzerritarra .....	52
<b>4.2.3.</b> Gurasoen ikasketaren maila .....	53
<b>4.2.4.</b> Gurasoen lan-egoera .....	54

4.2.5.	Gurasoen lanen kudeaketaren eta burutzearen banaketa etxean .	58
4.2.6.	Nerabeen jarduerak etxean . . . . .	60
4.2.7.	Nerabeak "egiten duena"ri buruz gurasoek dakitenaren banaketa . . . . .	62
4.3.	Arlo ekonomikoa . . . . .	65
4.3.1.	Zuzenean dituzten baliabide ekonomikoak . . . . .	65
	• Aste-saria esleitzea . . . . .	65
	• Aste-sari kopurua . . . . .	66
	• Aste-saria esleitzen duen pertsona . . . . .	67
	• Bestelako diru-sarrera iturriak . . . . .	68
4.3.2.	Baliabide ekonomikoen kudeaketa . . . . .	70
	• Aste-saria gastatzea . . . . .	70
	• Bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak . . . . .	71
	• Aurrezteko gaitasuna eta aurrezkiaren kudeaketa . . . . .	73
4.3.3.	Biltzeko estrategiak aparteko gastuak egin behar direnean . . . .	74
4.4.	Denbora esparru ez arautua (aisialdia) . . . . .	77
4.4.1.	Denboraren kudeaketa astean zehar . . . . .	78
	• Gaur egun egiten dituzten jarduerak . . . . .	78
	• Lehen egiten zituzten jarduerak . . . . .	81
	• Egitea edo denbora gehiagotan egitea gustatuko litzazkiekeen jarduerak . . . . .	84
4.4.2.	Denboraren kudeaketa asteburuan . . . . .	87
	• Etxera itzultzeko ordua . . . . .	88
	• Beranduagora arte egoten ez uzteko arrazoiak euren ustez . .	89
	• Etxera beranduago itzultzeko interesa . . . . .	90
	• Etxera beranduago heltzeko negoziatzeko estrategiak . . . . .	91
4.5.	Kideko taldeen esparrua . . . . .	93
4.5.1.	Kideko taldearen osaera . . . . .	93
4.5.2.	Nerabeak kideko taldean egindako eguneroko gizarte-jarduerak .	94
4.5.3.	Nerabeak kideko taldean duen ahalduntzearen adierazleak . . . . .	96
4.6.	Esparru fisikoa (edo gorputzarena) . . . . .	99
4.6.1.	Norbera zaintzea . . . . .	100
	• Zaintzeko jarduerak . . . . .	100
	• Irudia zaintzeari buruz . . . . .	102
	• Osasunari eta haren kudeaketari buruz . . . . .	103
	• Nerabearen gorputzean sartzeko jarduerak . . . . .	105
4.6.2.	Afektibitate-harremanak . . . . .	108
	• Bikotea egotea edo ez . . . . .	108
	• Afektibitate-harremanen ereduak . . . . .	110
4.6.3.	Sexu-harremanak . . . . .	113
	• Sexualitatearen garrantzia (zentzu zabalean) . . . . .	114
	• Sexu-harremanak egotea edo ez . . . . .	115
	• Sexu-harreman motak . . . . .	116
	• Sexu-harremanetan parte hartzen duten pertsonak . . . . .	117
	• Sexu-harremanak borondatez izatea . . . . .	120

• Harremanak penetrazioarekin: zer adinarekin hasten diren eta prebentzio-metodoak .....	122
<b>4.7.</b> Etorkizunari begira: nerabeak gaur, helduak bihar .....	125
<b>4.7.1.</b> Egin nahi dituzten ikasketak .....	126
• Unibertsitateko jarduerak .....	127
• Lanbide Heziketako jarduerak .....	128
<b>4.7.2.</b> Garatzeko asmoa duten lanbideak .....	130
<b>4.7.3.</b> Lortzeko asmoa duten profesionalen lanpostuak .....	130
<b>4.7.4.</b> Bizi estiloari eta bestelako balioei buruz .....	132
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	135
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b> .....	141
<b>ERANSKINAK</b> .....	145
<b>A.1.</b> Taula eta grafikoen aurkibidea .....	147
<b>A.2.</b> Galdeketa .....	154








**AURKEZPENA**



Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburua da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea, benetakoa eta eraginkorra, euskal gizarteko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan. Eta gizartea eraldatzeko estrategia horren zutabea euskal gizartea sakon ezagutzean datza nahitaez. Gizartea ikertuz errealitatea ezagutzea sustatu du Emakundek sortu zenez geroztik, eta bihar-etzi ere bide horri jarraituko dio.

Filosofia horren barruan kokatzen da " EAEko Nerabeak. Hurbilketa ahalduztetik abiatuta" azterlana. Emakundek sustatu du, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren nerabeen ahalduztze-prozesuen eta negoziatzeko gaitasunaren egungo egoera zein den jakiteko. Azterlan honek nerabeen egunerokotasuneko alderdiak erakusten dizkigu: fisikoa, ekonomikoa, arautu gabeko denbora eta adinkideen taldea. Nerabeak heldu izango direnean izango dituzten joerak edo jokabide-arauak ere aurreratzen ditu; eta generoaren ikuspegitik talde horretara heltzea ahalbidetzen du, bizitzako aldi horretan nesken eta mutilen artean egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzen saiatuz, ahalduztzearen kontzeptuaren ikuskera zabalago bat erabilita.

Eskerrak eman nahi dizkiot azterlana egin duen ikerketa-taldeari, eta bereziki landa-lana egiten lagundu duten ikastetxeei, izan duten jarreragatik. Nahi nuke, argitalpen hau argitaratuz eta hedatuz, gizarte berdinzaleago bat eraikitzen beste urrats bat egitea.



MARÍA SILVESTRE CABRERA  
EMAKUNDE-Emakumearen Euskal  
Erakundeko zuzendaria



**1**

**SARRERA**



Jarraian "Nerabeen ahalduntze-prozesuen - Faktoreak, prozesuak eta negoziatzeko gaitasuna" azterketa aurkezten da

Behin ikerketaren helburu nagusiak eta zehatzak adierazita (2. kapituluan), 3. kapituluan, diseinu metodologikoaren azalpen zehatza egiten da, geletan zuzenean egindako galdeketa batean oinarritzen dena. Galdeketa horren helburua izan da 2007/2008 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan DBHko 3.-4. mailan eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urteko bitarteko bederatziehun eta hirurogeita hamar (970) nerabeen lagin estatistiko adierazgarria egitea. Halaber, kapitulu honetan, ikerketan ahalduntzearen kontzeptua nola ulertu den azaltzen da.

Laugarren kapituluan emaitzak erakusten dira, zazpi atal handitan banatuta (nerabeen ezauzgarri soziodemografikoak, familia-esparrua, arlo ekonomikoa, denbora esparru ez arautua, bikote-taldean esparrua, gorputzaren esparrua eta etorkizuneko jarduera). Horrez gain, taulak eta grafikoak ere badaude, eta planteamendurik garrantzitsuenak azaltzen dira.

Bosgarren kapituluan, ikerketaren elementurik adierazgarrienak laburtzen dira, ahalduntze-ari eta negoziatzeko gaitasunari dagokienez gaur egungo eta etorkizuneko egoera zein izango den adieraziz; betiere gure autonomia-erkidegoko biztanlerik gazteenen kasuan.

Azkenik, bibliografia (6. kapituluan) eta taulen eta grafikoen aurkibidea (1. eranskina) azaldu eta gero, egoki iruditu zaigu erabilitako galdeketa ereduaren erantzea (2. eranskina), edozein irakurlek argiago ikus dezan zein izan zen ikerketa honetan egindako hurbilketa kuantitatiboko estrategia, geroagoko ikerketetan jarraitutasuna izateko helburuarekin.

Ikerketa honen garapenean parte hartu duten pertsona guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu falta, bereziki ia ikasturte amaieran ikasleei eskolako denbora kentzea utzi ziguten ikastetxeetako arduradunei.





**2**

**HELBURUAK**



## HELBURU NAGUSIA

# 2.1

1. EAEko nerabeen ahalduntze-prozesuen eta negoziatzeko gaitasunaren egungo egoera zein den jakitea.

## HELBURU ZEHATZAK

# 2.2

1. Nerabeen (14 eta 17 urte bitartekoen) ahalduntzearen eta negoziatzeko gaitasunaren arlo fisikoan (edo gorputzean) integratuta dauden alderdi nagusiak zein diren jakitea.
2. Arlo honetan zer negoziazio-estrategia dauden jakitea, eta jabetze edo kudeatze autonomo honek gizarte-, afektibitate- eta sexu-harremanetan dituen eraginei erantzutea.
3. Nerabeen (14 eta 17 urte bitartekoen) ahalduntzearen eta negoziatzeko gaitasunaren arlo ekonomikoan integratuta dauden alderdi nagusiak zein diren jakitea.
4. Arlo honetan zer negoziazio-estrategia dauden jakitea, eta jabetze edo kudeaketa autonomo honek dituen eraginei erantzutea.
5. Gizarte- eta kultura-arloan (bikote taldeekin eta beste belaunaldi batzuekin –gurasoekin-harremanak ezartzea) integratuta dauden alderdi nagusiak zein diren jakitea, eta denbora ez-arautuko jarduerak garatzea.
6. Arlo honetan zer negoziazio-estrategia dauden jakitea, eta jabetze honek dituen eraginei erantzutea.
7. Nortasuna sortzean eta adin talde horretan generoaren araberako gizarte-harremanak ezartzean diferentzia potentzialei eta inplikazioei erantzutea.
8. Nerabeei dagokienez, ahalduntze kontzeptura hurbiltzea.
9. Ikerketan identifikatutako gaur egungo nerabe euskaldunen ahalduntze-prozesuaren gaur egungo egoerak hurrengo belaunaldietan izan ditzakeen eraginen geroko ariketa bat egitea.
10. Gaur egun indarrean dauden politiken proposamenak egitea berriz orientatzeko, edo dagozkien agenteei eskaera edo behar berriak antzematea.



3

**IKERKETAREN  
DISEINUA**



Kapitulu honetan, ikerketa honen diseinu metodologikoa osatu duten elementu desberdinak aurkezten dira. Kapituluaren hasieran, ahalduntze kontzeptua ikertu den nerabeen etaparen berezko ezaugarrietara zabaldu dela azaltzen da. Gero, nerabeak ikertzeko arrazoiak azaltzen saiatzen dira, eta gure inguruan genero eta ahalduntze ikuspegi bati jarraiki adierazle estatistikoen bidez, nerabeen –eta gazteen- gaur egungo egoera ezagutzeko helburua duen hau bezalako ikerketarik ez dagoela berresten da.

Lehen hiru atal hauen ondoren, ikerketaren helburuak betetzeko zer metodologia edo arrazoiak metodologiko erabili den azaltzen da, eta baita haren fase desberdinak ere. Arlo hau bereziki nabarmendu da jarduerak azaltzean arloko lan kuantitatiboa egitean; alegia, ikastetxeetan 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. maila egiten ari ziren Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikasleei galdeketa egitea.

## **AHALDUNTZE KONTZEPTUAREN IKUSKERA ZABAL BATERANTZ**

# 3.1

Nahiz eta ahalduntze kontzeptua sakonean aztertzea ikerketa aplikatu honen helburuetatik at geratu, are gehiago teoria feminista (1) delakoan eragin handia duenean, denok dakigu ahalduntze hitza “empowerment” ingeles kontzeptuaren itzulpena dela eta “boterea lortzea”, “indartzea”, esan nahi duela. Horrez gain, emakumeei ere lotutako hitza da; izan ere, *“emakumeen banakako eta taldekako jabetze prozesu bat zeharka aipatzen du, eta horri esker, erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea lortzen eta eragiteko gaitasunean parte hartze handiagoa dute”* (2).

Ez dago zalantzarik ahalduntze hitza Hirugarren Munduko herrialdeetan sortu dela. Nairobiri, 1985. urtean egindako Emakumearen Munduko III. Konferentzian sartu eta Pekinen egindako Emakumearen Munduko IV. Konferentzian finkatu zen, erkidego bateko gizarte-bizitzaren arlo guztietan eta hori dela-eta norberaren nortasuna sortzean, emakumeen partaidetza sustatzeko beharrarekin lotuta.

---

(1) Gomendatzen da S. MOSEDALEn *Towards a framework for assessing empowerment*, paper lana, “New Directions in Impact Assessment for Development: Methods and Practice”, Manchester UK, 24 and 25 November 2003 nazioarteko hitzaldirako egindakoa. Han, hurbilketa egiten da kontzeptura, hastapenetatik gaur egun arte. Halaber, J. ROWLANDSen *Questioning empowerment: working with women in Honduras*. Oxford. Oxfam, 1997 lana ere barne hartzen da, gai horretan ohiko erreferentzia dena.

(2) EMAKUNDE. *EAEko emakumeen eta gizonen berdinetasunerako IV. Plana. VIII. Legegintzaldiaren arauak*. Vitoria-Gasteiz. 2.006, 44. or.

Izaera holistikoa edo dimentsio anitzekoa izateaz gain, genero-desberdintasunak gainditzeko prozesua deskribatzeko balio du, emakumeen gaitasunak indartuz (3). Ahalduntzea, beraz, genero-desberdintasuna gainditzeko prozesutzat hartzen da, eta horregatik gaur egungo botere erlazioetatik dator –berdintasunerantz-, erakundeen esku-hartze desberdinak sustatzeko eta egituratzeko beharrarekin (4).

Kontuan hartzen badugu ikerketa honetan neska eta mutil nerabeak batera hartzea nahita erabaki zela, ahalduntze kontzeptua modu “zabalean” ulertzen saiatu gara. Horregatik, emakumezkoen generoari ere atxikita azaldu da. Horrela, ahalduntzea, pertsona guztiek beren bizitzen gaineko kontrola lortzen duten prozesutzat hartzen da (5). Ahalduntzea, beraz, “desberdina da banako eta talde bakoitzarentzat, haien bizitzaren, testuinguruaren edo historiaren arabera.” Horrez gain, “*ahalduntzeak esanahi desberdinak ditu testuinguru bakoitzean, eta desberdina da banako eta talde bakoitzean; ahalduntzearen xehetasun praktikoen azterketa enpiriko sakona egin behar da*” (6).

Ikerketa honen asmoa da Magdalena Leonek adierazitako ahalduntzearen itzulpen enpiriko edo aplikatuaren adibide zehatza izatea. Gainera, nerabeak (banakoak nahiz taldeak), beren genero-identitateak osatzen dituzten jarduera biografikoaren unean daude, eta erabaki autonomoak hartzeko gaitasuna esanguratsua da gainerako jarduera biografikorako, banako eta gizarte-identitateak moldatzerako orduan izan ditzakeen eraginengatik. Eta ahalduntzearen kontzeptu zabal horren oinarrian ulertzen dira EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planean jasotako adierazpen hau: “*ahalduntzea estrategia baliozkoa da boterea lortzeko eta autonomiaz eta herritartasun osoz jarduten duten pertsonak bihurtzeko*” (7).

---

(3) Ikusi, esaterako lan hauek: HAINARD, F. *Ciudades y empoderamiento de las mujeres. Luchas y estrategias para el cambio social*. Narcea. Madril, 2006, eta azken lan hau: SÁNCHEZ ÁLVAREZ, P. *Empoderamiento. Recurso para conseguir la igualdad de géneros*. Ediciones Diego Marín. Murtzia, 2007.

(4) Haien artean Emakundek ezarritakoak, ahalduntzea eta emakumeen parte-hartze soziopolitiko bateratu dituen EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren bigarren ardatz estrategiko gisa.

(5) Ikusi artikulua hau: RAPPAPORT, J. “Studies in empowerment: introduction to the issue.” *Prevention in Human Services*, 1984, 3, 1-7 or., elkarteen eta erkidegoen kasura zabal daitekeena.

(6) LEÓN, M. “El empoderamiento de las mujeres: encuentro del primer y el tercer mundo en los estudios de género.” *La ventana*, 2001, 13. zk., 94-106 or. (104. or.).

(7) EMAKUNDE. *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legegintzaldiaren arauak*. Auk., aip., 44. or.



Ahalduntze kontzeptura egindako hurbilketaren kasuan bezala, ikerketa honen lehentasunak ez dira pertsona baten jarduera biografikoaren aldi horren; hots, nerabezaroaren, azterketa xehatua egitea. Ezarritako helburuen arabera, atal honen asmoa da etapa garrantzitsu hori zergatik aukeratu genuen azaltzea.

Itzulitururik gabe, eragikortasun metodologikoari dagokionez, arrazoi pragmatiko baten- gatik aukeratu genituen 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailetan zeuden EAEko nerabeak ahalduntzea aztertzeke. Azken erabakian erlazionatuta dauden hiru dimentsio hauek kontuan hartu genituen:

1. Dimentsio teorikoa; alegia, ahalduntzearen dimentsio aniztasuna, mugatzera behartzen zuena.
2. Dimentsio soziologikoa; alegia, gaur egungo ongizatearen gizarteetan zer den gaztea izatea, nor diren gazteak eta noiz arte garen gazteak mugatzeko zailtasuna.
3. Dimentsio operatiboa; alegia, pertsona talde baten, kasu honetan nerabeen, iritziak zuzenean lortu beharra, epe jakin batzuetan.

Egoera horren aurrean, ikerketak funtsezkoenera jo zuen: ahalduntze prozesuen gaur egungo egoera eta gure autonomia-erkidegoan bizi diren gazteen negoziatzeko gaitasuna jakin nahi baziren, teknika kuantitatiboen bidez, nerabeak aztertzeak ez zion eragozten helburu horri, eta gazteen kategoriaren kontzeptuzko mugen eragozpenak nahiz informazioa lortzeko zeuden mugak konpontzen zituen. Izan ere, informazio kuantitatibo hori lortzeko testuingururik egokiena ikastetxeak ziren.

Halaber, talde gisa euskal nerabeak aukeratzean ahalduntzearen zenbait dimentsio murriztu ziren, ez baitziren kontuan hartu autonomia ekonomikoaren barruan zeuden autonomia politikoa eta lan-dimentsioa, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planean ezarritako ahalduntzearen arloei jarraiki.

Nerabeak aztertzerako mugatzea, beraz, aukera estrategikoa izan zen, ikerketa honi modu egokiagoan ekiteko. Hortaz, onargarria da aurreko plantenamendutik ondorioztatzea hau bezalako ikerketa aplikatuen ikuspegitik, nerabezaroa, zalantzarik gabe, gaztaroa baino hobeto azter daitekeela. Lehen etapa, edo gaztaroaren hasiera denez, nerabezaroa hein handi batean, gertatzen diren aldaketa fisiologikoen menpe dago. Horri esker, gizarte- edo kultura-arloko bestelako gaiak mendean jarri edo indargabetu daitezke; hala nola, ongizatearen gizarteetan (EAEkoan esaterako) gaztaroaren bukaeraren izaera zehaztugabea nabarmentzen dutenak, bereziki lan eta bizilekuari dagokionez gazteak gero eta beranduago emantzipatzen direlako.

Nerabezaroan jartzen du abian pertsonak autonomia-prozesu hori, eta ordura arte ezarritako gizarte-harremanen oinarriak berrantolatzea edo berriz planteatzea ekartzen du. Horrela, norberaren eta gizartearen nortasuna sortzen da, maila desberdinetan, autonomiari, ahal-

duntzeari eta negoziatzeko gaitasunari dagokienez, eta pertsona horien garapenean eragina izango geroko alditan, bizitzaren maila guztietan. Eta "geroko eragin" horiek -gaztaroaren gainerako etapan eta helduaroan nabaritzen direnak- ematen diete nerabeei aztertzeo interesa, geroagoko belaunaldien gizarte- eta genero-harremanen izaera edo oinarria aurreratzeko gaitasuna dutelako.

## **NERABEEI EDO GAZTEEI ETA AHALDUNTZEARI BURUZKO IKERKETA KUANTITATIBO EZA**

# 3.3

Ikerketa honetan, harekin zerikusia duten gaikako alorretan dauden erreferentzia bibliografikoetara egindako hurbilketak, mailakatuta dauden ondorengo lau egiaztapenak egiteko bidea ematen du. Lehendabizi, nerabezaroari buruzko ikerketa askoz ere gutxiago dago gazteei edo gaztaroari buruzkoak baino. Hori logikoa da nerabezaroa gaztaroaren barnean sartzen delako. Hala ere, nabarmendu behar da duela gutxiko ikerketek, gure gizarteetan nerabeak gero eta "goiztiarragoak" direla azpimarratu dutela (8), beraz, badirudi, beti zailak diren belaunaldi arteko harremanak gero eta konplexuagoak direla adierazten dutela (9). Agian horregatik egokiagoa da nerabeei buruz hitz egitea, nerabezaroari buruz baino, eta gazteei buruz gaztaroari buruz baino.

Bigarrenez, gazteei (edo gaztaroari edo nerabezaroari) buruzko hurbilketa teorikoak edo ez aplikatuak berresten dira (10), -bizitzako etapa hauek etengabe edo ohiko moduan arazo

---

(8) A. SERAPIOren "Realidad psicosocial: la adolescencia actual y su temprano comienzo" artikularen ondorio nagusia da. *INJUVE*, *Revista de Estudios de Juventud*. Monográfico "Adolescencia y comportamiento de género." SILVA, I. (COORD.), 2006ko ekaina, 73. zk., 11-23 or.. Zentzu horretan, nabarmentzekoak dira lan hauek: SILVA, I. (COORD.) *La adolescencia y su interrelación con el entorno*. INJUVE. Madril, 2006; LAN ETA GIZARTE GAJETAKO MINISTERIOA ETA F.A.D. *Ser adolescente hoy*. Madrilen 2005eko azaroaren 22-24an egindako Kongresuaren txostenen liburuak, eta baita testu hau ere: FIZE, M. *Los adolescentes*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko. 2007.

(9) Dagoeneko klasikoak dira Mannheimek belaunaldi arteko harremanei egindako ekarpenak, eta gure ustez, oraindik baliagarriak dira. MANNHEIM, K. "El problema de las generaciones." *REIS aldizkarian (Revista Española de Investigaciones Sociológicas)*, 1993, 62. zk., 193-242 or.

(10) Horien artean, egokia iruditzen zaigu nabarmentzea ekarpen hauek: MARTÍN SERRANO, M. (DIR.) *Historia de los cambios de mentalidades de los jóvenes entre 1960-1990*. Instituto de la Juventud y Ministerio de Asuntos Sociales. Madril, 1994; eta GIL CALVO, E. *Los depredadores audiovisuales. Juventud urbana y cultura de masas*. Tecnos. Madril. 1985.

bihurtzen duten bestelako hausnarketak kontuan hartu gabe - (11) "ad hoc" ikerketa batean oinarritutako beste batzuk baino gehiago (12).

Hirugarrenez, ikerketa honekin zerikusia duten alderdiei buruzko informazioa lortzeko metodo eta teknika kualitatiboak aplikatzen dituzte era batera edo bestera, bereziki sexualitatearekin zerikusia duten gaietan (13), baina baita kirolarekin zerikusia dutenekin ere (14), baterako hezkuntzaren esparruan barne hartutako bestelako ekintzez ahaztu gabe (15).

Eta laugarren egiaztapen gisa, nabarmendu behar da gure inguruan ez dagoela nerabeei edo gazteei bideratutako ikerketarik non genero-ikuspegia garrantzitsua den (16), are gutxiago ahalduntzea.

Horrekin guztiarekin, bilaketa bibliografikoa egin zen ikerketaren lehen fasean egoera atsekabegarria dugu, ikerketa aplikatu kuantitatiborik ez dagoelako, ez bakarrik nerabeei buruzkorik, baizik eta ikerketa honen helburuekin gutxi gorabehera zerikusia duten gaietarako buruzkorik ere ez. Eta kontuan hartzen badugu ikerketa honetan galdeketa bat egin behar zela, hiru lanak garrantzi berezia hartu zuten ia "erreferentziako eredu" bakarrak izateagatik. Hauek dira:

1. *Health Behaviour in School-Aged Children* ikerketa: kontuan hartu ziren galderak ageri diren galdeketa bat erabiltzen du (17).

---

(11) Nabarmendu behar da JAUME FUNESen lan desberdinetan proposatutako postulatu hauen kontrako orientazioa; esaterako: "¿Cómo trabajar con adolescentes sin empezar por considerarlos un problema? En *Papeles del Psicólogo*, 2003, urtarrila, 84. zk.

(12) Zentzu horretan, nabarmendu behar dira EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILEKO GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZAREN lan hauek: *Juventud vasca*, 2004. Vitoria-Gasteiz, urria, 2004; *Hacia una nueva cultura de la identidad y la política. Tendencias de la juventud vasca 2002-2005*, Vitoria-Gasteiz, urria, 2005; eta *Tendencias de la juventud*, 2006. Vitoria-Gasteiz, 2006; eta baita Gazte Institutuak eta FADek egindako zenbait ikerketa. Nabarmendu behar da lan hau: COMAS, D.; ET AL. *Jóvenes y estilos de vida: valores y riesgos de los jóvenes urbanos*. Madril. INJUVE eta F.A.D. 2004.

(13) Haien artean nabarmendu behar da eztabaida-taldetan eta elkarrizketetan oinarritutako ikerketa: MEGÍAS, I. ET AL. *Jóvenes y sexo. El estereotipo que obliga y el rito que identifica*. Madril. FAD, 2005

(14) Ikusi EHUko Gizarte Antropologiako Saileko irakasleek eta ikertzaileek egindako ikerketa GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KULTURA, EUSKARA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTURAKO. *Hamabi eta hamazortzi urte bitarteko gazteek kirola egiteari uzteko arrazoien ikerketa eta esku-hartzeko proposamenak*. Donostian, 2002ko abenduan.

(15) Emakundek bultzatutako NAHIKO programa ezinbestean aipatu behar dugu esku-hartze ildo honetan, baterako hezkuntzatik emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioan lan egiteko, hezkuntza-mundutik. Zentzu horretan, nabarmendu behar da txosten hau: PESCADOR, E. "Estrategias de intervención en el marco educativo: masculinidad y población adolescente." EMAKUNDEN. *Nazioarteko kongresua: Los hombres ante el nuevo orden social*. Vitoria-Gasteiz, 2002; baita egin berri den ikerketa hau: USATEGI, E.; eta DEL VALLE LOROÑO, A.I. *La escuela sola: transmitir en valores en una escuela en cambio. Informe sobre la transmisión de valores en la enseñanza obligatoria de Vitoria-Gasteiz*. Fernando Buesa Fundaziorako ikerketa. Leioa, 2007.

(16) Nabarmendu behar da lan hau: AGINAGA, J. *Las desigualdades de género entre las y los jóvenes*. INJUVE. Madril, 2005.

(17) Ikusi lan honetan estatu mailan Morenok egindako emaitzen azalpena: MORENO, M<sup>a</sup> C. ET AL. *Los adolescentes españoles y su salud. Un análisis en chicos y chicas de 11 a 17 años*. Ministerio de Sanidad y Consumo y Universidad de Sevilla. Madril, 2003.

2. Navarro-Pertusaren bi artikuluak: hein handi batean, bere doktorego-tesiaren emaitzak azaltzen ditu. Nerabeen sexu-osagaietara mugatzen da, eta kideko taldearen barruan aztertzen ditu (18).
3. Eta, azkenik, nabarmendu behar da Enriqueta Diaz Pererak egindako ikerketa: *Rols i estereotips de gènere entre l'aumnat de batxillerat de la provincia de Barcelona*. Ikerketa hori, gehiago hurbiltzen zaio hemen egindakoari, gure ikerketaren gaia ere ezartzen duelako eta antzeko estrategia metodologikoa egin zuelako –lehendabizi kualitatiboa (eztabaida-taldeak) eta gero kuantitatiboa (galdeketa geletan)- (19).

Laburbilduz, hiru erreferentzia horiek, eta bereziki azkena, izan ezik, esan daiteke Emakundek bultzatutako ikerketa honek "berrikuntza" maila handia duela bere gaian nahiz diseinuan edo metodologian. Beraz, zenbait arazo sortu ahala konpondu behar izan ditu ikerketa honek, bereziki galdeketa edukien diseinuan, ez dagoelako erreferentziako eredurik gure hurbileko testuinguruan.

Eta nahiz eta alde zuzenetik barkamena eskatzen dugun dauden akatsengatik, egokia deritzogu ikerketa hau "erreferentziako eredu" izateko baldintzak dituela babesteari, generoaren ikuspegitik gaur egungo nerabeen egoeraren berri izan nahi duenarentzat. Horrez gain, esan dezakegu "oinarri edo informazio nagusizat" hardaitekeela sakontzen jarraitzeko, kuantitatiboki edo kualitatiboki, ikerketa honetan lehen aldiz aztertu ditugun ahalduntzearen arlo batean edo gehiagotan, eta talde honen negoziatzeko gaitasunean.

## **METODO KUALITATIBO ETA KuantitatiboEN ONDOZ ONDOKO KONBINAZIOA**

# 3.4

Gaur egun EAEko nerabeen ahalduntze prozesuetan parte hartzen duten alderdi desberdinei buruzko adierazle kuantitatiboak aurkitzea izan zen ikerketaren hasieratik ezarritako ildo nagusia. Bestalde, hasieratik ere ikerketa honen talde teknikoak argi izan zuen "kanpotik", ikerketaren xedetik "urrunduta", egindako diseinuak edo azterketa metodologikoak "arris-

---

(18) NAVARRO-PERTUSA, E. ET AL. "Diferencias de género en motivación sexual." *Psicothema*-n, 2003, 15. lib., 3. zk., 395-400 or.; eta NAVARRO-PERTUSA, E. ET AL. "Grupos de iguales e iniciación sexual adolescente: diferencias de género." *Internacional Journal of Clinical and Health Psychology*, 2006, 6. lib., 1. zk., 79-96. or.. Ildo honetan sartuko litzateke M. FLEMINGen artikulu hau: "Género y autonomía en la adolescencia: las diferencias entre chicos y chicas aumentan a los 16 años." Aldizkari honetan: *Revista Electrónica de Investigación Psicoeducativa y Psicopedagógica*, 6. zk., 3 (2), 33-52. or..

(19) DÍAZ PERERA, E. *Rols i estereotips de gènere entre l'aumnat de batxillerat de la provincia de Barcelona*. Bartzelonako aldundia. Recerca Francesca Bonnemaison, 2006. Iraila, 2007.

kuak" izango zituela, beste batzuetan, teknika kuantitatiborik egokien bidez baliagarria izan bada ere .

Eta diseinu metodologiko kuantitatibo baten arriskuak, funtsean, bi ziren: bata, berez, aldartetsua den eta nerabezaroaren igarotzeak markatutako pertsona baten funtsezko jardueraren aldi batean, hots, nerabezaroan, sartu behar izatea, eta bestea, pertsona ikertzai-le eta pertsona ikertuen arteko belaunaldi desberdinek informazioaren fidagarritasunean izan lezaketen eragin negatiboa.

Beraz, ia ezinbestekoa zen diseinu metodologiko bat egitea, "aurretik" euskal nerabeen kodeetan, iritzietan eta portaeretan "murgiltzen" laguntzeko, diseinu metodologiko kuantitatibo batek izan ditzakeen muga guztiak "arintzeko". Horrela, ikerketa honen diseinu metodologikoa, "metodo eta ikerketa-tekniken ondoz ondoko konbinazioa" honetan oinarritu da.

- Ustiatzeko estrategia, "metodo kualitatiboa"ren bidez (eta bi teknika: "elkarrizketa sakonak" eta "eztabaida-taldeak"), hasiera batean eta zuzenean EAEko nerabeen eguneroko bizitzan dauden egoera nagusiak ezagutzeko.
- Adierazgarritasun estrategia, "metodo kuantitatiboa"ren bidez (eta teknika bat: "egituratutako galdeketa in situ"), beren iritzien informazio zuzena eta estatistikoki adierazgarria jasotzeko, aurretik aipatutako lehen murgilketa egin eta gero aztertzeko.

Azkenean diseinatutako galdeketarekin batera, ikerketaren xedera hurbiltzeko ondoz ondoko estrategia kualitatibo-kuantitatibo hori, gure ustez, ikerketa honen ekarpen metodologikorik nagusietako bat da. Arloko lan kuantitatiboan lortutako emaitzak objektiboagoak direla esan dezakegu, eta gure autonomia-erkidegoko nerabeen gaur egungo "errealitateetatik" hurbilago daude, aurretik lan kualitatiboa egin eta gero.

## **IKERKETAREN FASEAK**

# **3.5**

Atal honetan ikerketaren faseak azaltzen dira, eta kontuan hartu da aurretik aipatutako ondoz ondoko konbinazioa.

### **LEHEN FASEA: TESTUINGURU BIBLIOGRAFIKOA**

## **3.5.1**

Ikerketa orok erreferentzia bibliografiko ugari biltzea eskatzen du, bere ikerketaren gaiaren barnean dauden alderdi desberdin eta garrantzitsuenak "testuinguruan sartzeko". Kasu

honetan, testuinguruan sartzean, ikerketaren helburu aplikatua kontuan hartu zen hasieratik; alegia, bilaketa bibliografikoa egitean, ikerketa-teknikak garatu ziren azterketak, liburuak, artikulak, erreferentziak eta bestelakoak erabiltzea, bereziki kuantitatiboak (galdeketak), nerabeekin nahiz ahalduntzea aztertuz edo bi kasutan.

Noski, erabilitako erreferentzien bilaketa bibliografikoan zegoen lehentasun horrez gain beste erreferentzia orokor edo teorikoak ere kontuan hartu behar ziren, kapitulu honen lehen ataletan ikusi den moduan. Hala ere, ikerketaren zenbaterainokoa nabarmen mugatzen zuen.

### **BIGARREN FASEA: ARLOKO LAN KUALITATIBOA (ELKARRIZKETA SAKONAK)**

## **3.5.2**

Bilaketa bibliografikoaz gain, eta irakurri eta azertzearekin batera, ikerketaren bigarren fasea hasi zen. Horretarako lau elkarrizketa sakon egin genituen.

Ikerketaren helburuak zalantzak sortzen dituenean, normalean gizarte-ikerketa aplikatuak egitean haiek murrizteko joera dago. Horrela, pertsonen ezagutzaz baliatzen dira, beren jardura profesionala ikerketaren helbururantz –osorik edo partzialki- orientatzen dutenak. Horregatik, nerabeak ezagutzen dituzten edo harreman zuzena duten “informatzaile estrategikoei” lau elkarrizketa sakon egin genizkien –guztira, sei pertsonak parte hartu zuten-, helburu horrekin hain zuzen ere: galdeketa egokiena, aplikatua eta nerabeengandik hurbilten dagoena diseinatzeko ulermen eta interpretazio-elementuak ekartzea ikerketa honetarako.

Horrela, elkarrizketa sakon hauek egin genituen:

1. Hezkuntza- eta trebakuntza-arlo arautua: Fernando Oregi, Nahiko programaren koordinatzailea. Horrez gain, esperientzia ugari izan ditu zuzenean nerabeekin.
2. Sexu- eta osasun-hezkuntza: Mari Luz Esteban, Carmen Díez eta Jone Miren Fernández, EHUko Antropologia Saileko langileak, aipatutako arloetan eta beste zenbaitetan ikertzen esperientzia dutenak.
3. Ikasketa nahiz ikerketen arloa. Elisa Usategi, EHUko Soziologia Saila, hezkuntza gaietan eta euskal gazteen balioetan ikertzaile gisa esperientzia duena.
4. Gizarte- eta kultura-arloa: Urtxintxa Eskola, Euskal Herriko Aisialdiko eta Gizarte- eta Kultura-animazioko Eskolen eta Elkartearen Federazioa, gure autonomia-erkidegoko nerabeekin esperientzia zuzena duena.

Elkarrizketa sakonen gidoi generiko bat diseinatu genuen, 1. fasearen emaitzak (bibliografia) eta ikerketaren helburuak kontuan hartuz. Horiek guztiak, hautatutako pertsonen bidali genien, ikerketaren baimen-txartel ofizialarekin batera. Elkarrizketaren ordua eta eguna fin-

katu ondoren. Berehala grabatu eta gero, informazio kualitatiboaren lehen azterketa bat egin zen, galdeketan jarri beharreko arloak eta gaikako itemak modu hobean jartzeko.

**HIRUGARREN FASEA:**  
**ARLOKO**  
**LAN KUALITATIBOA**  
**(EZTABAIDA-TALDEAK)**

## 3.5.3

Elkarrizketa sakonei esker, eta baita egindako lehen azterketari esker ere, ikerketaren mugatze egokiagoa egin ahal izan zen, kontuan hartu ez ziren euskal nerabeen eguneroko errealitatearen eta ahalduntzearen dimentsioak gehitu zirelako. Horrela, alde batera utzi ziren hasierako diseinuan garrantzia izan bazuten ere, interes analitikoa eskasa izateagatik, teknika kuantitatiboen bidez ulertzeko ezintasunarengatik edo bi arrazoiengatik, kontuan ez hartzea komenigarriagoak ziren beste batzuk.

Gure autonomia-erkidegoko nerabeekin hiru eztabaida-talde egitearen helburua, ikertutako taldeen iritziak eta bizipenak zuzenean eskuratzea zen. Hala ere, ikerketa honen esparruan, teknika kualitatibo hau planteatzea eta garatzea "kontrol-talde" gisa hartu zen, kontuan hartzen badugu ez genituela bilatu talde-dinamiketan parte hartuko zuten pertsonen adierazgarritasun-irizpideak; baizik eta galdeketaren galderen diseinua egiteko informazio kualitatiboa ekoizteko (4. fasea).

Horrez gain, eztabaida-taldeak osatzean eta egitean, nahi zena (genero, adin eta bizilekua-  
ren ikuspegitik iritzi desberdinak bilatzea helburu zuen diseinu metodologikoa), premiazkoa zena (galdeketak egin baino lehen, denbora premia genuen 2007/08 ikasturtea bukatzen ari zelako) eta posiblea zena (kasu honetan, nerabeak izatea talde-dinamika kualitatiboan parte hartzeko, egokienak ziren bitarteko agenteen aldetik) nahastu ziren. Hori guztia konbinatzearen ondorioz, hiru eztabaida-talde egin genituen. Ezaugarri hauek zituzten:

1. Nerabeen talde mistoa, DBHko 4. mailakoak, Ondarroakoak.
2. Emakumezko nerabeen taldea, Batxilergoko 1. mailakoak, Tolosakoak.
3. Gizonezko nerabeen taldea, DBHko 3. eta 4. mailakoak, Bilbokoak.

Behin gidoia diseinatuta, bitarteko hiru agenteei (beren jarduera talde honetan garatzen duten irabazi-asmorik gabeko bi erakunde eta pertsonak harremanetan jartzen dituen enpresa bat) profilen ezaugarriak eta dinamikaren helburuak bidali genizkien, ordua eta tokia finkatzeko. Eta elkarrizketa sakonen kasuan bezala, talde-dinamikak grabatu eta gero, sortu zen informazio kualitatiboa aztertu genuen; betiere galdeketaren arlo eta gaikako itemei begira.

**LAUGARREN FASEA:  
ARLOKO LAN  
KUANTITATIBOA ("IN  
SITU" GALDEKETAK)**

## **3.5.4**

Egiatzatu ahal izan denez, testuinguru bibliografikoa nahiz ikerketaren helburura hurbiltzeko lehen estrategia osatzen duten bi teknika kualitatiboak, galdeketaren diseinuaren "menpe" zeuden, 14 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenean ("in situ") aplikatutakoa, EAEko ikas-tetxeetan, non DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailak egiten ari ziren 2007/08 ikasturtean.

Galdeketa hau, zalantzarik gabe, ikerketaren "pieza nagusia" da, kontuan hartzen badugu nerabeen ahalduntze prozesuen gaur egungo egoerari eta negoziatzeko gaitasunari buruzko informazio kuantitatiboa ematea helburu nagusi gisa duela.

**GALDEKETAREN DISEINU PARTEKATUA:  
AURRETEST BAT EGITEA**

Behin betiko galdeketaren ekarpenei begira, ikerketa honen jarduerarik garrantzitsuenetako bat izan zen ikerketaren hirugarren fase kualitatiboan parte hartu zuten nerabe berdinekin aurretest bat egitea. Horrela, parte hartu zuten pertsonen hiru eztabaida-taldeak –Bilbo, Ondarroa eta Tolosa- egiten bukatu genuenean, gehienez, bi astetan, leku berean bilduko ginela adierazi genien, hiru jarduera hauek egiteko: Banaka, galdeketaren lehen bertsio bat (aurretesta) betetzea; haren barruan zeuden gaikako arlo desberdinei buruzko iritziak eza-gutzea; eta garrantzitsuena, egin zitezkeen ekarpenei erantzutea, bai galderak egitean bai jaso zitezkeen erantzutean ere, galdeketaren xedea ziren pertsonen esperientziatik abiatuta.

Egokia da adieraztea galdeketaren gizarte arloko jarduera hori ez zela bakarrik maila hone-tan; baizik eta ikerketaren erakunde sustatzailea bera barne hartu zuen. Erakunde horrek galdeketaren bertsio desberdinen berri izan zuen beti, eta, horrez gain, zenbait ekarpen egin zituen arlo jakinetan. Horrela, azkenean erabilitako galdeketa sortu genuen.

Ikerketa honen gaiaren zabaltasunarekin bat, eta ahalduntzearen ezaugarri desberdinak itzultzeko esfortzu metodologikoarekin, eranskin gisa jarritakoa, galdeketa zabaltzat har dai-teke. Guztira, berrogeita hamabi (52) galdera ditu, baina erantzuteko aukerak lauhun (400) baino gehiago dira; gehienak itxiak dira. Galdera horiek gaikako zazpi arlo hauetan banatu genituen:

1. Identifikazioa (ezaugarri soziodemografikoak).
2. Familia- eta bizikidetzatarloa.
3. Arlo ekonomikoa.
4. Bikote-taldearen arloa.
5. Aisialdiaren arloa (arautu gabea).



6. Emozioaren, afektibitatearen eta sexu-harremanen Arola.

7. Bizitzako proiektuaren arloa.

Adierazi behar da diseinatu zen hasierako unetatik, "iragazkirik gabeko" edo bestelako zailtasun teknikorik gabeko galdeketa egitea erabaki genuela; izan ere, galdeketa egingo zutenak 14 eta 17 urte bitarteko nerabeak izango ziren. Bestalde, ageriko ziren zenbait gairen edukiak aintzat hartu genituen. Horrela, funtsezko helburua zen arloko lana egiteko genuen denbora txikian informazioa jasotzea "erraztea".

## **ARLOKO LANA PRESTATZEA**

Baina azkenean informazioa jasoko den tresnaren diseinua garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da tresna hori erabiliko den eremua aurretik prestatzea. Horrela, ikerketa honetan, denbora luzea eman genuen eremu hori egokitzen, garrantzitsua zela bagenekielako, ez bakarrik ahalik eta informaziorik objektiboena lortzeko egokienak ziren baldintzak sortzen zirelako, baizik eta arloko lanari ekiteko zegoen denbora ere oso mugatua zelako, kontuan hartzen badugu 2007/2008 ikasturtea bukatzen ari zela eta azterketak handik oso gutxira hasiko zirela.

Jarraian, arloko lana hiru mailatan prestatzeko garatu ziren zenbait neurri azalduko ditugu:

### **1. Irakasle arduradunen ikuspegitik:**

- a. Ikerketaren erakunde-izaera: baimen-txartel bat postaz bidaltzea selekzio bati, edo gure autonomia-erkidegoko ikastetxeen lagin zabala egitea –irizpide hauen arabera: eskaintako hezkuntza-maila, hizkuntza-eredua, titulartasuna eta kokapena eskualdean eta udalean-, non ikerketaren funtsezko ildoei buruzko informazioa emateaz gain, horretan parte-hartze aktiboa izateko eskaera adierazten zaien.
- b. Harreman zuzena izatea parte hartzen duten ikastetxeekin: Postaz egindako bidalketaren ondoren, telefonoz jarri ginen harremanetan ikastetxeko arduradunarekin, ikerketaren helburuak eta horretan parte hartzeko prestasun maila azaltzeko.
- c. Gela bat, eguna eta ordua hautatzea galdeketa egiteko.

### **2. Nerabeen ikuspegitik:**

- a. Galdeketa egitea beren etxeko testuinguruan, kasu honetan, beren hezkuntza-espazio beretik (gela).
- b. Norbera identifikatzeko galderarik ez egitea galdeketa. Horrek, konfidentzialtasuna, anonimatua eta objektibotasuna sustatzen da erantzunetan.
- c. Diseinatutako galdeketa galderak eta erantzunak nerabeen hizkeratik hurbil egotea saiatu ginen, aurretik adierazi dugun moduan.

### **3. Inkesta egindako pertsonen ikuspegitik:**

- a. Ikastetxeko arduradunarekin egon baino egun bat edo bi lehenago inkesta egingo zuen pertsonaren izena eta erreserbako beste baten izena eman genion.

- b. Galdeketa egingo genuen orduan ikasleei galdeketa aurkeztean, inkestatzailearekin egotea egokia zela adierazi genion hezkuntza-jardueraren arduradunari.
- c. Pertsona berari adierazi genion ezin geniela esan ikasleei nor zen ikerketaren azken sus-tatzailea; bakarrik inkesta egiteaz arduratuko zen erakundearen izena. Halaber, galdeke-ta egitean bera ez egotea komenigarria zela adierazi genion.
- d. Ikasleei modu orokor batean aurkeztu genien ikerketa ("ikerketa bat egiten ari da zuen iritziak zein diren eta normalean zer egiten duzuen jakiteko"), eta bereziki azpimarratzen genuen helburua eurek esaten edo egiten zutena jakitea zela, ez beste pertsona batzuek esandakoa.
- e. Galdeketa ageri zen informazioa anonimoa eta konfidentziala ere bazela nabarmendu genuen, eta galdeketa galderetan ez zutela izenik jarri behar. Halaber, galdeketa ez izenak ez abizenak ez zituztela jarri behar.
- f. Bestalde, galdeketa egitea borondatezkoa zela adierazi genien. Beraz, interesa zuten pertsonak bakarrik egitea adierazi genien. Galdeketa betetzen ez zutenak gelan egon behar ziren, besteak gogaitu gabe.
- g. Galdeketa bi hizkuntzetan (euskaraz edo gaztelaniaz) egiteko aukera eman genien, tal-dearen hizkuntza-eredua kontuan hartu gabe.

## **LAGINAREN SEGMENTAZIO-ALDAGAIK**

Hasierako unibertso gisa 2007-08 ikasturtean DBHko 2. zikloa (3. eta 4. mailak) eta Batxilergoko 1. maila egiten ari ziren 14 eta 17 urte bitarteko neska-mutilak kontuan hartuz, laginak, sexuaren arabera estatistikoki esanguratsua zenak, 762 galdeketa inguru zituen hasiera batean, 381 gizonezko eta 381 emakumezkoen artean banatuta.

Beraz, sexu bakoitzaren emaitzetarako, errore estatistikoa +/- %5ekoa zen, konfiantza-maila %95,5ekoa eta  $p=q=50$ ; hots, egoera desberdintasun handiagoa egongo zen tes-tuingururik kontrakoena. Bestalde, emaitza orokorretarako, errore estatistikoaren marjina % +/- 3,6 arte murrizten zen.

Laginaren banaketa EAEko hiru lurralde historiko bakoitzean kontuan hartutako ikasleen pisuaren arabera egin genuen. Horretarako, bi etapako laginketa mota bat egin genuen, eta bigarren mailako unitateak (aurretik aipatutako hezkuntza-mailak ematen dituzten ikaste-txeak, eta haien barruan, berariazko gelak) nahiz azken unitateak (gela horietan dauden neska-mutilak) ausaz aukeratu genituen.

Baina ikastetxeen ausazko aukeraketa hori gure autonomia-erkidegoko errealitatera gehia-go egokitzea saiatu zen, ez bakarrik ikastetxeen eskualde-banaketa ikuspegitik, baizik eta ikastetxearen titulartasun publiko edo pribatua eta aukeratutako taldeak emandako hiz-kuntza-eredua ere kontuan hartuz. Hiru taula hauetan 2006/07 ikasturtearen matrikulazioa-ri buruzko informazio hori ageri da, ikerketa egin genuen unean zeuden azken datu errea-lak baitziren.

**3.1. TAULA.** 2006/07 ikasturtean DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen unibertsoa eta lagina, EAEko lurralde historikoen eta eskualdeen arabera.

LUR. HIST. ETA ESQUALDEAK	2006/07 IKASTURTEA		
	DBH ETA BATXILERGOKO IKASLEAK		
	GUZTIRA	%	LAGINA
<b>Araba</b>	<b>14.686</b>	<b>14,8</b>	<b>113,1</b>
Arabako Ibarrak		0,0	0,0
Arabako Lautada	12.473	12,6	96,1
Arabako Mendialdea	53	0,1	0,4
Errioxa Arabarra	489	0,5	3,8
Gorbeia Inguruak	24	0,0	0,2
Kantauri Arabarra	1.647	1,7	12,7
<b>Gipuzkoa</b>	<b>32.672</b>	<b>33,0</b>	<b>251,6</b>
Bidasoa Beherea	3.557	3,6	27,4
Deba Beherea	2.588	2,6	19,9
Deba Garaia	2.924	3,0	22,5
Donostialdea	14.845	15,0	114,3
Tolosaldea	2.082	2,1	16,0
Goierrri	3.189	3,2	24,6
Urola-Kostaldea	3.487	3,5	26,9
<b>Bizkaia</b>	<b>51.583</b>	<b>52,1</b>	<b>397,3</b>
Arratia Nerbioi	673	0,7	5,2
Bilbo Handia	40.215	40,6	309,7
Durangaldea	4.596	4,6	35,4
Enkartzazioak	1.267	1,3	9,8
Gernika-Bermeo	1.872	1,9	14,4
Markina-Ondarroa	1.157	1,2	8,9
Plentzia-Mungia	1.803	1,8	13,9
<b>Euskal AE</b>	<b>98.941</b>	<b>100,0</b>	<b>762,0</b>

*Iturria:* Eustat. Autoreak egindakoa.

**3.2. TAULA.** 2006/07 ikasturtean DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen unibertsoa eta lagina, zentroaren titulartasunaren arabera. Guztizkoak eta ehunekoak.

TITULARTASUNA	GUZTIRA	%	LAGINA
Publikoa	45.913	46,4	353,6
Pribatua	53.028	53,6	408,4
<b>Euskal AE</b>	<b>98.941</b>	<b>100,0</b>	<b>762,0</b>

*Iturria:* Eustat. Autoreak egindakoa.

**3.3. TAULA.** 2006/07 ikasturtean DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen unibertsoa eta lagina, hizkuntza-ereduen arabera. Guztizkoak eta ehunekoak.

HIZKUNTZA-EREDUA	GUZTIRA	%	LAGINA
A Eredua	31.802	32,1	244,9
B Eredua	17.586	17,8	135,4
D Eredua	48.864	49,4	376,3
X Eredua	689	0,7	5,3
<b>EUSKAL AE</b>	<b>98.941</b>	<b>100,0</b>	<b>762,0</b>

*Iturria:* EUSTAT. Autoreak egindakoa.

3.4. taulan, arloko lanean zehar azkenean egindako galdeketa kopurua jasotzen da, lurralde historikoen eta haien eskualdeen arabera banatuta. Ikusten den moduan, guztira 970 galdeketa egin genituen. Haietatik, %17,8 (n=173) Arabako ikastetxeei dagokie; %37,3 (n=362) Gipuzkoakoei, eta azkenik, %44,8 (n=435) Bizkaiko lurralde historikoari. Beraz, guztira, berrehun eta zortzi (208) galdeketa gehiago egin genituen, hasieran ezarritako latinean baino: hirurogei (60) gehiago Araban, ehun eta hamar (110) Gipuzkoan eta hogeita hamazortzi (38) gehiago Bizkaian.

Baina hurrengo atalean xehetasun gehiagorekin islatuko dugun bezala, galdeketa gehiago jasotzeak ez zuen ekarri guztiak emaitzen ustiapenean sartzea; izan ere, zenbait "inkongruentzia tekniko" aurkitu genituen. Horrela, ikerketa honetan azkenean 780 galdeketa erabili ditugu. Haietatik, 397 neskak egin zituzten (%50,9) eta gainerako 383ak, mutilak (%49,1). Lurraldeen arabera banatuta: Bizkaian, %52,1; Gipuzkoan %31,4 eta Araban, %16,5, %58,3<sup>a</sup> titulartasun publikoko ikastetxeetan matrikulatuta, eta gainerako %41,7a titulartasun pribatukoetan. Azkenik, %59,4 D ereduak izan ziren, %34,1, A ereduak eta %6,5, B ereduak.

Nahiz eta informazio hau hurrengo kapituluaren lehen atalean (ikerketan parte hartutako nerabeen egitura soziodemografikoari buruzkoan) xehetasun gehiagorekin banakatuko dugun, behin betiko galdeketa kopuruak zertxobait gehitu du ezarritako lagina (hamazortzi gehiago); hala ere, sexuaren arabera estatistikoki esanguratsua den banaketa mantendu da, eta baita lurralde historikoen araberrako banaketa ere. Baina adierazi behar da ikerketa honetako galdeketetan titulartasun publikoko ikastetxeek berariazko garrantzi handiagoa izan zutela azkenean, eta baita D ereduak ere.

**3.4. TAULA.** 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei egindako galdeketa kopurua, EAEko lurralde historikoen eta eskualdeen arabera. Guztizkoak.

LUR. HIST. ETA ESQUALDEAK	EGINDAKO GALDEKETAK		
	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
<b>Araba</b>	<b>70</b>	<b>103</b>	<b>173</b>
Arabako Ibarrak			
Arabako Lautada	52	89	141
Arabako Mendialdea			
Errioxa Arabarra			
Gorbeia Inguruak			
Kantauri Arabarra	18	14	32
<b>Gipuzkoa</b>	<b>211</b>	<b>151</b>	<b>362</b>
Bidasoa Beherea	35	39	74
Deba Beherea	36	20	56
Deba Garaia	6	9	15
Donostialdea	60	46	106
Tolosaldea	29	12	41
Goierri	14	11	25
Urola-Kostaldea	31	14	45
<b>Bizkaia</b>	<b>212</b>	<b>223</b>	<b>435</b>
Arratia Nerbioi			
Bilbo Handia	119	155	274
Durangaldea	12	7	19
Enkartzioak	29	15	44
Gernika-Bermeo	26	14	40
Markina-Ondarroa			
Plentzia-Mungia	26	32	58
<b>Euskal AE</b>	<b>493</b>	<b>477</b>	<b>970</b>

*Iturria:* Autoreak egindakoa.

**BOSGARREN FASEA:  
INFORMAZIO  
KUANTITATIBOAREN  
SISTEMATIZAZIOA**

## 3.5.5

Galdeketa iragazitako galderak saihesteko aukerak -14 eta 17 urte bitarteko nerabeek ulertzea eta egitea errazteko helburuarekin- eragin zuzena izan du; izan ere, ikerketa honetan lortutako informazio kuantitatiboaren sistematizazioa gehiago zaildu da. Horrela, "adostasun ezak" zituzten galdeketa kopurua handiagoa izan da, zenbait erantzunetan ez baita egon jarraipen logikorik.

Hala ere, xede-publikoaren ezaugarriak (nerabeak), arloko lana egiten zen lekua (ordutegian muga zuten eta beste helburu batzuetarako bideratzen zuten ikastetxeetako geletan), eta

ikerketa egiteko behar zen denbora premia (maiatza zen, 2007/08 ikasturtea bukatzeko azterketak baino falta ez zirenean) kontuan hartzen baditugu, diseinatutako galdeketa egokiena izan zen eta hasieran ezarritako lagin estatistikokoa baino nabarmen handiagoa zen galdeketa kopuruari esker, tarte nahikoa izan genuen ikuspegi tekniko batetik ongi betetako galdeketa hautatu ahal izateko.

Hori horrela, erraz ondoriozta daiteke erantzunetan, bereziki sexu-harremani buruzkoetan, "adostasunik eza" teknikoak zituzten galdeketa ugari egoteak, eta haien barruan nerabeek zuzen erantzundako galdeketa egoteak (aztertuko den atalean adieraziko dugun moduan), denbora nabarmena eskatu zuela informazioa egokitzeko, SPSS 13.0 programa estatistikokoa grabatu eta gero. Eta "sukaldeko lan" hau ez da bakarrik azaltzen kontuan hartu gabeko berrehun galdeketa -egindako galdeketa kopuruaren eta azkenean ikerketa honen informazioa eman dutenen arteko aldea-; baizik eta berriz kategorizatu behar izan genituen galderengatik, sexuaren arabera egindako azterketa alde batera utzi gabe, ikerketaren helburuei jarraiki horrela egin behar genuelako.

## **ARLOKO LANARI BURUZKO ZENBAIT AZALPEN**

# 3.6

Ikerketa honetan egindako arloko lan kualitatibo eta kuantitatiboari buruzko iritziak bikainak dira. Izan ere, ikerketaren emaitzez gain, egindako garapen tekniko edo estrategia metodologikoen garapena positibotzat hartu dugu. Eta ez da izan aurretik adierazitako denbora premiak gainditu ditugulako, baizik eta lortutako esperientziengatik.

Lehendabizi eta modu laburrean arloko lan kualitatiboari begiratzen badiogu, elkarrizketa sakonen fasean sei pertsonen laguntza nabarmendu behar dugu (lau elkarrizketetan taldekatutakoak). Pertsona haiek ikerketaren garapenaz arduratutako talde teknikoari lagundu zioten, gaia zaila zelako, ahalduntzeari dagokionez eta hain bereziak diren nerabeekin lan egin behar zelako. Hala ere, guztiei zeharkako ondorioa atera genien: mota honetako ikerketak egin beharra, pertsonen portaerari eta gizarte-harremani buruzko informazioa emateko gai direlako; hori guztia, nerabeen kasuan, gehienetan, "besteen", "helduen" iritis estereotipatuak izaten dituztenak. Horrekin, hemen, oro har, landuko ziren arlo jakinetan ikertzeko ildoak ireki ziren.

Beraz, pertsona horiek, ikerketa honen emaitzen zain zeuden. Eta bereziki eskertu behar ditugu Fernando Oregik egindako ekarpenak, generoaren arabeko nerabezeroaren etapa honen ahalduntzearen arlo ekonomikoaren garrantziari dagokionez batez ere.

Martxoaren bigarren hamabostaldian elkarrizketa sakonak bukatu eta gero, apirilaren lehen hiru astetan hiru eztabaida-taldeak egin genituen, lehen aldiz harremanetan jarri ginenean eta baita aurretik egin genuenean ere. Eta talde dinamikak eraginkorrak izan ziren bere helburu nagusirako; hau da, galdeketa egitera orientatzeko. Parte hartu zuten pertsonak

oso eroso egon ziren une oro, galdeketa egiteko esparrua dagoeneko ezagutzen zutelako, eta gaian benetako espezialistak zirelako, eguneroko bizitzakoak baitziren.

Nabarmendu behar dugu ikerketa hau egoki garatzeko, bigarren aldiz batean bildu ginela aurretesta onartu genuen nerabe berdinekin. Beren parte-hartzea aktiboa izan zen aurkeztutako galdeketa lehenera bertsioaren zuzenketa: batzuetan, galdera eta erantzunak enuntziatu zuzenagoekin sinplifikatuz; beste batzuetan, zenbait galderen erantzun aukerak aukera posible guztiak jasotzen ez zutela islatuz; edo "gauzak" konplexuagoak direla adieraziz. Horrela, zaila da aldagai edo egoera desberdinen menpe dauden ekintzak erantzun bakar batean murriztea.

Behin nerabeek aurretestan adierazitako aldaketak sartuta, eta bezeroak gaztelaniazko eta euskarazko bertsioen azken balidazioa egin eta gero, arloko lan kuantitatiboa hasi genuen, ikerketaren benetako proba zena. Apirilko laugarren astean aukeratutako ikastetxeetara baimen-txartelak bidali eta gero, eta hurrengo astean zenbaiten partaidetza baieztatu eta gero, galdeketa egiteari ekin genion ikastetxeetan, 2008ko martxoaren 5etik 20ra.

Ikastetxeetako arduradun askok onartu zuten parte hartzea; hala ere, mota honetako ikerketa jardueren aurrean nekatuta agertu ziren, are gehiago ikasturte amaieran zirelako.

Ikasleei dagokienez partaide kopurua handia ere izan zen galdeketa. Argi dago kasu honetan beste interes batzuk sartzen zirela jokoan -hala nola, eskola bat ez ematea-, baina, egia esan, oro har, nerabeek eskertu zuten bere eguneroko bizitzari buruzko galderak egitea, galdeketa entregatzean edo iruzkinak egiteko atalean. Gainera, drogak eta alkohola ez ziren aipatzen.

Arloko lana egitean, eta emaitzak grabatzean eta aztertzean bereziki, galdeketa galderak eta erantzunak ulertzerakoan aldeak egon zirela konturatu ginen; izan ere, denbora gehiago behar izan zuten betetzeko nerabe gazteenak, hots, DBHko 3. mailan zeuden 14 urteko nerabeek. Halaber, galdeketa grabatzean ere konturatu ginen neskak mutilak baino erraztasun eta formaltasun handiagoarekin erantzun zutela.





**4**

**EMAITZEN  
AZTERKETA**



Kapitulu honetan geletan bertan, 2008ko maiatzaren lehen hamabostaldian, 2008/09 ikasturtean gure autonomia-erkidegoko DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko nerabeei egindako galdeketaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

Informazioa zazpi atal nagusitan laburtu dugu:

1. **Ezaugarri soziodemografikoak** edo parte hartu duten nerabeen identifikazio laburra, haien sexua, batez besteko adina, bizilekua eta ikastetxea ezagututa.
2. **Familia arloa**, non nerabeen bizikidetz-unitatea, eta haien gurasoen jatorria, ikasketamaila, lanbide-egoera eta etxeko lanen banaketa jasotzen diren. Horrez gain, gurasoek bere seme-alaba nerabeen eguneroko jardueri buruz duten informazio maila ("dakite-na") eta nerabeek berek etxean zer jarduera egiten dituzten barne hartu dira.
3. **Ekonomia-arloa**, 1991 eta 1994. urteen artean jaiotako eta gure autonomia-erkidegoan bizitako nerabeek zer baliabide ekonomiko dituzten aztertu genuen. Baina ez genituen bakarrik bilatu diru-sarrera iturriak, baizik eta baita haien (gastuaren) nahiz aurrezkiaren kudeaketa ere.
4. **Arautu gabeko denboaren (edo aisialdiaren) arloa**, nerabeek astean zehar (non "eskolakoak" espazioak eta denborak antolatzen dituen) nahiz asteburuetan zer jarduera egiten zituzten jakiteko helburuarekin; betiere ahalduntzearen eta autonomia izateko gaitasunaren adierazleak bilatzeko helburuarekin kasu bakoitzean.
5. **Bikote-taldeen esparrua**, adiskide taldeen osaera (mistoa edo homogenea, generoaren arabera), nerabeek egunero zer gizarte-jarduera egiten dituzten jakiteko, eta generoaren arabera, buruzagitza eta ahalduntze estrategien adierazleak zirriborroa egiteko.
6. **Arlo fisikoa (edo gorputzarena)**, non hiri informazio-arlo barne hartu diren: norbera zaintzea; hala da, osasunarekin edo irudiarekin zerikusia duten gaiak; afektibitate-harremanak, bikotea duten edo izan duten nerabeak identifikatuz, eta baita afektibitate-harremani buruz mantentzen dituzten eredu egokienak; azkenik, nerabeen egoera eta sexu-harremanen izaera ezagutzeko bideratutako atal zabala.
7. **Arlo prospektiboa**, non helduak direnean euskal nerabeek zer prestakuntza- eta lan-jarduera izango dituzten eta zer bizitza eta balio estilo izango dituzten aurretiaz aurkeztea saiatu garen.

Kapitulu honetan jasotako informazioan, emaitzak sexuaren arabera banakatuta ageri dira; izan ere, aurreko kapituluan adierazi dugun moduan, lagin estatistikaren helburua berriazko adierazgarritasun estatistikoa lortzea izan baitzen. Arrazoi horregatik, zenbait taula eta grafiko aurkituko ditu irakurleak, non, oro har, hiru zutabe ageri baitira ehuneko emaitzekin: emakumezko nerabeei dagokiena ("neskak" hitza erabiliz), gizonezko nerabeei dagokiena ("mutilak" adierazpena erabiliz), eta, azkenik, "guztira" zutabea. Halaber, adierazi behar dugu zenbait tauletan, nerabeen emaitzen arteko "diferentzia" sartu dugula, erantzunetan egon zitezkeen alde berri emateko.

Saiatu gara kapitulu hau ahalik eta arinen laburtzen, baina oinarri kuantitatiboko ikerketa aplikatuetan oso ohikoak diren taulak, grafikoak eta testua egoteak irakurketa moteldu dute, datu ugari ageri direlako, are gehiago galdeketaren gaiak oso bestelakoak zirenean.

Irakurleentzat geuk egindako emaitzen interpretazioa egokia izatea espero dugu. Baina ez da interpretazio bakarra, emaitzek zalantzarik gabe beste ondorio batzuk ere eragin ditzaketelako. Hori horrela izango balitz, ikerketa honen helburuetako bat beteta egongo litzateke.

## **EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK (IDENTIFIKAZIOA)**

# **4.1**

Atal honen asmoa da ikerketa honetan parte hartu duten nerabeen ezaugarri soziodemografikoak laburki aurkeztea; alegia, sexua, adina, bizilekua, ikastetxeen titulartasuna, hizkuntza-mailak eta –ereduak, diseinu metodologikoa aurkeztu dugun aurreko atalaren adierazitakoarekin bat.

## **SEXUA**

# **4.1.1**

4.1. taulan, ikerketa honetan parte hartu duten nerabeen banaketa ageri da, termino absolutuetan eta ehunekoetan. 2008/09 ikasturtean gure autonomia-erkidegoan DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. maila egiten ari ziren neska eta mutilak parte hartu dute, hain zuzen.

**4.1. TAULA.** Ikerketan parte hartu duten nerabeak, sexuaren arabera. Guztizkoak eta ehunekoak.

SEXUA	GUZTIRA	%
Neskak	397	50,9
Mutilak	383	49,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>780</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

## ADINA

# 4.1.2

4.2. taulan ikerketan parte hartzen duten nerabeen batez besteko adina 15,70 dela ikus daiteke: neskena, 15,76koa da; mutilena, 15,65ekoa da.

Emaitza hauekin bat, 16 urteko nerabeak izan dira gehien parte hartutakoak, %42a hain zuzen, eta nabarmendu behar da 17 urteko nesken pisu erlatibo handiagoa, adin bereko mutilen aldean. Hala ere, 15 urteko mutilen pisu erlatiboa neskena baino handiagoa izan da.

### 4.2. TAULA. Nerabeen batez besteko adina, sexuaren arabera. Ehunekoak.

ADINA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
14	13,9	13,1	13,5
15	20,2	27,2	23,6
16	42,1	41,8	41,9
17	23,9	18,0	21,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>BATEZ BESTEKO ADINA</b>	<b>15,76</b>	<b>15,65</b>	<b>15,70</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

## BIZILEKUA: LURRALDE HISTORIKOA ETA UDALERRIA


# 4.1.3

4.1. grafikoan, ikerketan parte hartu duten nerabeen lurralde historikoaren arabeko banaketa proportzionala ikus daiteke. Ikuspegi demografiko batetik, hiru lurraldeen berariazko pisuarekin bat, bi nerabeetatik bat baino gehiago (%52,1) Bizkaian bizi zen, %31,4, Gipuzkoan eta gainerako %16,5 Araban.

4.3. taulan, parte hartu zuten nerabeak zehazki bizi ziren hamazortzi udalerrien banakapena ikus daiteke. Hautaketa horretan, udalerrri bakoitzaren populazioaren pisua aldagai gisa hartu da, betiere hezkuntza-eskaintza bazegoen, titulartasunean, hizkuntza-maila eta eredu, ikerketaren helburu metodologikoekin bat etortzeko.

Vitoria-Gasteizen bildu dira nerabe gehienak. Atzetik, Barakaldo, Bilbo eta Santurtzi geratu dira. Halaber, aniztasunik handiena Gipuzkoan bizi diren nerabeen artean ikus daiteke, bizilekuaren osarearekin bat.

**4.1. GRAFIKOA.** Parte hartu duten nerabeen lurralde historikoen araberako banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak.



**4.3. TAULA.** Parte hartu duten nerabeen udalerrien araberako banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak.

GALDEKETAK EGIN ZIREN UDALERRIAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Amurrio	2,8	0,8	1,8
Balmaseda	3,3	7,0	5,1
Barakaldo	11,8	7,6	9,7
Beasain	2,8	2,3	2,6
Bilbo	11,1	7,0	9,1
Donostia	5,8	8,9	7,3
Durango	3,0	1,3	2,2
Eibar	7,3	6,3	6,8
Gernika	3,3	5,5	4,4
Getxo	2,3	4,4	3,3
Hernani		1,6	0,8
Irun	5,3	9,7	7,4
Leioa	4,3	2,3	3,3
Mungia	8,3	4,2	6,3
Santurtzi	9,8	7,3	8,6
Tolosa	7,1	2,9	5,0
Vitoria-Gasteiz	11,8	17,8	14,7
Zarautz		3,1	1,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>


*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**HEZKUNTZA: ZENTROAREN  
TITULARTASUNA,  
HEZKUNTZA-MAILA ETA  
HIZKUNTZA-EREDUA**

## 4.1.4

Atal honetan, ikerketa honetan parte hartu duten nerabeen eskola-ezaugarriekin zerikusia duten hiru alderdi ikus daitezke. Kasu honetan, gure autonomia-erkidegoan dagoen benetako egoerara edo matrikulazio-egoerara egokitzen ere saiatu gara, eta 4.2. grafikoan, parte hartu duten nerabeen %58,3a, 2007/09 ikasturtean, titulartasun publikoko zentro batean DBHko 3. eta 4 eta Batxilergoko 1. mailan zeudela ageri da. Gainera, %41,7a, titulartasun pribatuko zentro batean zeuden.


**4.2. GRAFIKOA.** Parte hartu duten nerabeak eskolatuta dauden zentroaren titulartasunaren arabera banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak.




4.3. grafikoan, ikerketa honetan parte hartu duten nerabeen %47,8a, informazioa jasotzean, Batxilergoko 1. maila egiten ari zirela ikus daiteke, eta hezkuntza-maila honetan neska kopurua handiagoa dela. DBHko 3. mailan zeuden nerabeak %29,4 baino gehiago izan dira, eta DBHko 4. mailakoen artean, %22,8.

Azkenik, ikerketa honetan parte hartu duten 1991 eta 1994 artean jaiotako nerabeen %59,4a D ereduan zeuden aurretik aipatutako hiru hezkuntza-mailetan. A ereduan, %34,1 zeuden eta B ereduan, %6,5 (4.4. grafikoan).

**4.3. GRAFIKOA.** Parte hartu duten nerabeak eskolatuta dauden hezkuntza mailen araberako banaketa, xeduaeren arabera. Ehunekoak.




**4.4. GRAFIKOA.** Parte hartu duten nerabeak eskolatuta dauden hizkuntza ereduaren araberako banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak.





Ikerketa honetan interesgarria ere bada jakitea jatorri atzerritarreko zenbat nerabek parte hartu duten. 4.5. grafikoan, nerabeen %6,3a egoera horretan daudela ikus daiteke. 4.4. taulan, herrialdeen arabera egiten da banaketa. Horrela, "Latinoamerikakoak" nagusi dira, %53,1ekin –Boliviakoak nabarmentzen dira. Haien atzetik, %12,2 Errumaniakoak dira.

**4.5. GRAFIKOA.** Jatorriz atzerritarrak diren nerabeak, sexuaren arabera. Ehunekoak.




**4.4. TAULA.** Atzerriko nerabeen herrialde multzoak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztizkoa"ren arabera. Ehunekoak.

HERRIALDE MULTZOAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Latinoamerika	46,2	60,9	53,1
Errumania	15,4	8,7	12,2
25eko EB	7,7	13,0	10,2
Gainerako Afrika	11,5	8,7	10,2
Gainerako Europa	7,7		4,1
Magreb	7,7		4,1
Asia		8,7	4,1
AEB eta Kanada	3,8		2,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Informazio hau sakontzeko, adierazgarria da ikerketa honetan parte hartu duten 14 eta 17 urte bitarteko hamar neska-mutiletatik ia bederatziti (%89,8) titulartasun publikoko zentroetan ikasten ari ziren, 2008/09 ikasturtean, DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan.

**4.6. GRAFIKOA.** Jatorriz atzerritarrak diren nerabeak eskolatuta dauden titulartasuna, sexuaren arabera. Ehunekoak.



**FAMILIA ESPARRUA**


# 4.2

Gaur egun gure autonomia-erkidegoko nerabeak bizi diren bizikidetza-unitatera edo familia-esparrura hurbiltzeak zentzua du ikerketa honetan, talde honen jarduera biografikoa eta sozializazio prozesua mugitzen ari den testuinguru nagusietako bat delako.

Jakina, ikerketa honen helburua ez da banakako eta gizarte-nortasunen osaeran gurasoek dituzten eraginen –agerikoen nahiz ezkutuen- azterketa sakona egitea. Hala ere, emaitza hauek arlo horri buruzko informazioa eman dezakete, sozializazio agente gisa azalpenezko garrantzia handitzen jarraitzen duena, are gehiago nerabeen etapak. Eta 14 eta 17 urte bitarteko nerabeen "familia- eta sozializazio-testuinguru hau ezagutzeko asmoarekin bideratu ziren galdeketaren lehen hamar galderak.

4.7. grafikoan, 2008/09 ikasturtean, gure autonomia-erkidegoan, DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden nerabeak bizi diren bizikidetza-unitateen taldekatzea ageri da. Taldekatze horrek EUSTATEk –Estatistikako Euskal Institutuak (20) ezarritako tipologiari jarraitzen dio. Argi dago “seme-alabak dituzten nukleo-familia” delakoa nagusi dela bizikidetza-unitate gisa hamar euskal nerabeetatik zortzitan (%79,6). Ehuneko antzekoetan - %8aren inguruan- kokatu ziren bestelako bizikidetza-ereduak, “handitua” eta “gurasobakarrekoa”. Azkenik, egokia iritzi diogu bizikidetza-unitate kategoria berri bat sortzea (adierazitako EUSTATEN tipologian barne hartzen ez dena, amarekin eta bikotearekin bizi diren nerabeen %4ak osatutakoa.

**4.7. GRAFIKOA.** Nerabeen bizikidetza-unitateen tipologiak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



(20) EUSTAT- Estatistikako Euskal Institutuak "familia motei" buruz ezartzen dituen definizioak hauek dira: "Nuklearra seme-alabekin": ezkondu gabe dauden seme-alabak dituen senar-emazte batek osatutako familia-nukleoa; "Handitua": ahaidetutako pertsona bat edo batzuk bizi diren edozein motatako familia-nukleoa; eta "gurasobakarrekoa": bakarrik dagoen ama edo aita batek ezkongai diren seme-alabekin osatutako familia-nukleoa.

## GURASOEN JATORRI ATZERRITARRA

# 4.2.2

Nerabeekin egin genuen bezala, talde honen familia-testuinguruaren deskribapenezko ikuspegi batetik adierazgarria den beste adierazle bat da guraso baten edo bien jatorri atzerritarra, eta baita haien kontinenteak eta herrialdeak ere.

4.5. taulan, informazio desberdinak ageri dira, eta hiru hauek nabarmendu daitezke: Lehenengoa, gaur egun, gure autonomia-erkidegoan bizi diren 14 eta 17 urteko DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailako nerabeen %15,8k jatorri atzerritarreko gurasoa (ama edo aita) dutela. Bigarrena, nerabeak bizi diren hamar bizikidetz-unitateetatik zazpik baino gehiagok (%71,0) atzerritik datozen gurasoak dituztela nabarmen daiteke. Hirugarrena, bizikidetz-unitate hauen %20,4 jatorri atzerritarreko ama batez osatuta daudela.

### 4.5. TAULA. Nerabeen gurasoen jatorri atzerritarra, sexuaren arabera. Ehunekoak.

JATORRI ATZERRITARRA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Biok	74,3	69,0	71,0
Ama bakarrik	14,3	24,1	20,4
Aita bakarrik	11,4	6,9	8,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>Gurasoen jatorri atzerritarraren %</b>		<b>15,8</b>	

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Guraso hauen jatorriari begiratzen badiogu herrialde taldeen arabera (4.6. taula), nabarmendu behar da "Latinoamerikan jaiotako gurasoen datua, %46,7koa hain zuzen, bereziki Kolonbian eta Brasilen, eta baita 25eko EBn dauden herrialdeen pisua ere. Horien artean nabarmendu behar dira Frantzia (batez ere amen kasuan), Portugal eta Alemania.

**4.6. TAULA.** Jatorri atzerritarra duten aita eta amen herrialde multzoak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

HERRIALDE MULTZOAK	AMAK	AITAK	GUZTIRA
EB 25	25,8	14,3	20,5
Rumania eta Bulgaria	9,1	10,7	9,8
Gainerako Europa	1,5	5,4	3,3
Magreb	3,0	3,6	3,3
Gainerako Afrika	7,6	8,9	8,2
Asia	3,0	3,6	3,3
AEB eta Kanada	4,5	1,8	3,3
Latinoamerika	43,9	50,0	46,7
Ozeania	1,5	1,8	1,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**GURASOEN  
IKASKETA-MAILA**


## 4.2.3

4.8. grafikoan, gaur egun EAEn bizi diren nerabeen bi gurasoek lortutako ikasketa-maila ageri da, handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen emaitzen arabera. Horrela, bi gurasoek "unibertsitateko ikasketak" dituzten bizikidetzak-unitateak dira nagusi, %27,8 hain zuzen. Haien atzetik, eskola-graduatuak dutenak (ia %22) eta Lanbide Heziketa dutenak (%19,2) daude.

Hala ere, ikerketa honen aztertutako biztanleen taldean lortutako emaitzei begira, emakumezko nerabeen kasuan "eskola-graduatuak" izango litzateke bi gurasoen lehen ikasketa-maila, %25,2arekin. Gizonezko nerabeen kasuan, aldiz, amek eta aitek "unibertsitateko ikasketak" dituzte gehienbat, %31,7an, hain zuzen.

Beste datu adierazgarri bat da nerabe askok ez zutela gurasoen ikasketa-mailaren berri. Horrela, "EE/EE" aukera erantzun zuten nerabeen %15,3k. Adierazle honek, zalantzarik gabe, interpretazio desberdinak izan ditzake -horien artean gazteen, eta horren ondorioz nerabeen interes eza edo axolagabekeria-; hala ere, ez da hain "harrigarria" zure gurasoek zer ikasi duten ez jakite, ez ordea zertan lan egiten duten.

**4.8. GRAFIKOA.** Nerabeen gurasoen ikasketa-maila, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.



**GURASOEN LAN-EGOERA**

**4.2.4**

Gurasoen lan-egoera (edo jarduerarekin duten erlazioa) jakitea, informazio esparru garrantzitsua ere bada. 4.7. taulan, arlo lana egitean inkestatutako nerabeak bizi ziren gurasoen lan-egoera ageri da (2008ko maiatzean). Ikerketa honen nerabeen adinarekin bat, gurasoak nagusiki lanean ari ziren; hots, "jardunean" (%87,1) eta "landunak" (%85,3) ziren. "Jarduera eza"ren ikuspegitik, etxeko andre edo gizonaren irudia nagusi da kategoria honetan, "etxekoandreena" zehazkiago; izan ere, jasotako informazioaren %10,6an ez zen egon "aitarik" jarduera horrekin.

**4.7. TAULA.** Nerabeen gurasoen egungo lanbide-egoera, sexuaren arabera. Ehunekoak.

GURASOEN GAUR EGUNGO LANBIDE-EGOERA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
<b>LANEAN</b>	<b>87,2</b>	<b>86,9</b>	<b>87,1</b>
Landunak	85,7	84,8	85,3
Langabeak	1,4	2,2	1,8
<b>LANIK EGIN GABE</b>	<b>12,8</b>	<b>13,1</b>	<b>12,9</b>
Gaixorik	1,2	0,5	0,9
Erretiratuta	1,6	1,3	1,5
Etxekoandrea/etxejauna	10,1	11,2	10,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Gertaera hori 4.8. taulan ikus daiteke; izan ere, ez baitago “etxeko gizonik”, eta gehitze nabarmena dago lanean ari diren gurasoak dituzten nerabeen kasuan (%94,5).

**4.8. TAULA.** Nerabeen aiten egungo lanbide-egoera, sexuaren arabera. Ehunekoak.

AITAREN GAUR EGUNGO LANBIDE-EGOERA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
<b>LANEAN</b>	<b>96,0</b>	<b>97,0</b>	<b>96,5</b>
Landuna	94,1	94,8	94,5
Langabea	1,9	2,2	2,0
<b>LANIK EGIN GABE</b>	<b>4,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,5</b>
Gaixorik	1,3	0,5	0,9
Erretiratuta	2,7	2,5	2,6
Etxejauna	0,0	0,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

“Etxekoandreak” diren amen kopurua %21ekoa denez, horren ondorioz, lanean ari diren emakumeen ehunekoa %76,4ra arte murriztu da, gizonezkoen kasuan baino %18 txikiagoa.

#### 4.9. TAULA. Nerabeen amen egungo lanbide-egoera, sexuaren arabera. Ehunekoak.

AMAREN GAUR EGUNGO LANBIDE-EGOERA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
<b>LANEAN</b>	<b>78,7</b>	<b>77,2</b>	<b>78,0</b>
Landuna	77,7	75,1	76,4
Langabea	1,0	2,1	1,6
<b>LANIK EGIN GABE</b>	<b>21,3</b>	<b>22,8</b>	<b>22,0</b>
Gaixorik	1,0	0,5	0,8
Erretiratuta	0,5	0,3	0,4
Etxekoandrea	19,7	22,0	20,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>


*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

“Etxekoandrea”ren jarduerak gure autonomia-erkidegoan bizi diren nerabeen gurasoen rolak hartzen dituzten emakume eta gizonen artean jarduerarekin duen harremanaren elementu bereizle gisa duen protagonismoa kontuan hartzen badugu, galdeketaren asmoa izan zen protagonistak nola helduz iren jarduera horretara. Gaur egun, 14 eta 17 bitarteko nerabeen %21 amak “etxekoandreak” dira, eta emaitzen arabera, “beti izan direnen” eta “beste pertsona batzuk zaintzeko lana utzi zutenen” arteko aldea parekatuta dago. Beraz, ez da baztertu behar gure autonomia-erkidegoan bizi diren seme-alaba nerabeak dituzten emakumeen %50 hori, beren lana utzi behar izan zuten gaur egun gure gizarte-testuinguruetan eta erakundeen gutxi baloratzen den beste lan bat egiteko.


Atal hau bukatzeko, aurrekoaren laburpen bat izatea saiatuz, egokia deritzogu ikerketa honetan aztertutako nerabeen bizikidetza-unitateetan bi tipologia ezartzea, gurasoen jardueraren arabera. Horrela, 4.9. grafikoan, bizikidetza-unitateen %63,7an, ama nahiz aita (edo amaren bikotea, hala dagokionean) landunak direla ikus daiteke. Ehuneko hori altua da “seme-alabak dituzten” bizikidetza-unitate nuklearraren kasuan, %71,2koa hain zuzen. Bizikidetza-unitate “handituen” kasuan, aldiz, %65,2ra murrizten da, non ziur asko, emakumeek lanari utzi behar izan zioten beste pertsona batzuk zaintzeko -kasu honetan adinekoak-.



**4.9. GRAFIKOA.** Familien tipologia, "bi gurasoak lanean ari direnean", sexuaren arabera. Ehunekoak.



**4.10. GRAFIKOA.** Familien tipologia, "aita lanean ari denean eta ama etxeoandrea denean", sexuaren arabera. Ehunekoak.



Gaur egun gure autonomia-erkidegoan bizi diren DBHko 2. eta 3. eta Batxilergoko 1. mailan dauden 14 eta 17 urte bitarteko nerabeen bigarren familia tipologiari dagokionez, non aita lanean ari den eta ama etxeoandrea den, 4.10. grafikoan, %18,5 egoera horretan dagoela ikusi daiteke. Hori, orokorragoa da bizikidetza-unitate "handituta" duten nerabeen kasuan (%25,7). Hala ere, tipologia hori ez dago eta ehuneko txikiagoak ditu nerabeen ama bere bikotearekin bizi den unitateetan.

**GURASOEN LANEN  
KUDEAKETAREN ETA  
BURUTZEAREN  
BANAKETA ETXEAN**

## 4.2.5

Etxeko testuinguruan garatzen diren zenbait jardueren kudeaketa eta burutzearen genero-aren arabera banaketak interesa du ikerketa honetan, nerabeen artean emakume eta gizonen portaera jarraibideetan eta eremuan izan ditzakeen eraginengatik.

Etxeko testuinguruari lotuta dagoen gizarte- eta genero-sorkuntzako elementu hori identifikatzeko asmoa -garrantzia handia duena sozializazio prozesuetan, eta horregatik baita ahalduzko-prozesuetan ere; hala ere, batzuetan, bigarren maila batean geratzen da ekoizpen eta lan arloaren nagusitasunarengatik- galdeketa 12. galderan ikus daiteke. 4.10. taulan, etxearekin ("etxea") lotuta dauden nerabeen hamahiru jardueren emaitzak ageri dira, bere agente nagusiaren edo ohikoenaren esleipena jakinda; hots, ama nahiz aita nahiz biak edo bestelako pertsonak.

**4.10. TAULA.** Nerabeen gurasoen etxeko lanen burutzea eta kudeaketa. Handienetik txikienera ordenatuta "ama bakarrik" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NORK ZER EGITEN DUEN ETXEAN	AMAK BAKARRIK	AMAK AITAK BAINO GEHIAGO	AITAK AMAK BAINO GEHIAGO	AITAK BAKARRIK	BIEK	BESTE BATZUEK	ED/EE
Egunero egin behar diren janariak honek erabakitzen eta antolatzen ditu...	42,9	35,4	0,6	0,9	14,9	0,6	4,6
Etxeko kontuak eramaten ditu...	39,1	23,2	5,3	2,4	24,5	3,1	2,4
Nire arroparen neurria eta zapata-zenbakiak dakizki...	34,5	32,6	4,6	1,4	22,3	3,3	1,3
Nota txarrak ateratzen ditudanean lotsa handiagoa ematen dit berari esatea...	33,8	25,5	8,3	6,7	15,4	3,8	6,4
Errazagoa egiten zait nire arazoak berari esatea...	24,9	26,8	9,0	3,1	28,7	3,3	4,2
Etxeko lanak egiten laguntzeko gehien esaten didana da...	29,6	40,6	1,2	1,0	20,4	5,0	2,2
Etxean supermerkatuara joaten direnean, falta denarekin zerrenda pentsatzen eta egiten duena da...	21,4	23,8	3,5	1,8	43,3	4,1	2,1
Elektrizitateko, iturgintzako eta bestelako konponketa txikiak egiten ditu...	15,9	14,7	14,5	13,3	34,5	3,5	3,6
Adoregabe sentitzen naizenean, egoera gaintitzen laguntzen dit...	14,6	17,6	2,6	2,2	43,8	10,3	9,0
Garbigailua, hozkailua eta abar konpontzeko deitu behar denean berak egiten du...	13,5	15,6	17,3	9,0	39,9	1,7	3,1
Asteburuetan etxeko lanak egiten ditu...	13,2	10,6	21,2	14,6	28,8	3,2	8,3
Oporretan nora eta noiz joatea erabakitzen du ...	9,4	9,4	4,7	2,3	66,3	4,0	4,0
Etxeko lanak normalean egiten ditu...	3,6	1,2	17,1	57,1	5,1	11,7	4,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>22,8</b>	<b>21,3</b>	<b>8,4</b>	<b>8,9</b>	<b>29,8</b>	<b>4,4</b>	<b>4,3</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Emaitzak handienetik txikienera ordenatu dira "ama bakarrik" zutabearen arabera, hori baita jarduera horien kudeaketaren eta mantentzearen agente nagusia (21). Izan ere, ikerketa honetan parte hartu duten nerabeen artean, %44,1k gertaera hori berretsi dute ("ama bakarrik" gehitzea (%22,8) eta "ama, aita baino gehiago" (%26,3). Haien atzetik, aipatu hamahiru jarduerak "biek" (amak eta aitak) egiten dituztela uste duten nerabeen %29,8 kokatu ziren, eta hirugarren tokian, %17,3 nerabek adierazi zuten jarduera horiek "aitak" egiten zituela ("aitak bakarrik" eta "aitak amak baino gehiago" aukeren gehitzea).

Baina horrez azpian elementu bereizgarriak daude generoen artean, kontuan hartutako berariazko jardueren arabera. Hamahiru jardueren azken diseinuaren xedea haietako bakoi-tzak lau gizarte-adierazpen laburtzea zen, gaur egun nerabeak bizi diren etxeko agertokien kudeaketari eta burutzeari dagokienez. Horrela, jarduera hauek bereizi ziren: "etxekoaren kudeaketa", ugarienak izan zirenak, "agintaria", "afektibitatea" eta "erantzukidetasuna", 4.11. taulan erakusten den moduan.

*"Egunerokoaren kudeaketaren -eta burutzearen-"* kudeaketaren ikuspegitik, nerabeen emakumea-ama, arropa, bazkaria eta etxearen mantentzearekin zerikusia duten kontuen arduradun nagusia da astean zehar. Asteburuan, aldiz, "bi" gurasoak (edo hobeto esanda, gizona-aita elkartzen da) etxeko lanez arduratzen dira, eta baita etxeko kontuez ere. Nerabeen gizona-aita, etxeko konponketez arduratzen den agentea izango litzateke.

*"Afectibitatearekin"* zerikusi handiagoa duten bi ekintzetan, alaba edo seme nerabea adorerik gabe dagoen unetan, badirudi "bi" gurasoak arduratzen direla adorea emateaz. Hala ere, kontuak larriagoak direnean, emakumea-ama da arazoak entzutearen jarduera hori neurri handiagoan egiten duena.

*"Agintaria"*ren ikuspegitik, kasu honetan, nerabeek gurasoei aurkeztu behar dizkieten eskolako emaitzek sinbolizatuta, emaitzei begiratzen badiegu, badirudi aitaren irudia rol horrekin mantentzen dela, bai bera bakarrik bai amarekin. Etxekoaren esparruarekin lotutako beste ekintza bat, non agintariaren irudia ere ageri den, opor egunak eta lekua hautatzea da. Kasu horretan, badirudi bi gurasoak arduratzen direla horretaz.

Azkenik, jardueren barruan, *"erantzukidetasuna"*rekin zerikusia duen bat barne hartu genuen, eta emaitzen arabera, emakumea-ama da "etxeko lanak egiten laguntzeko behin eta berriz esaten duen" pertsona; aitak eta nerabeak, aldiz, joera eskasa agertzen dute hori egiteko.

---

(21) Horrekin, EMAKUNDEK egindako ikerketa kualitatiboaren emaitza nagusietako bat berretsiko lirateke. *Zainketaren ondorioak. Bateratzeko estrategiak emakume eta gizonen eguneroko bizitzan EAEn*. 22. txostena, Vitoria-Gazteiz. 2007.

**4.11. TAULA.** Nerabeen gurasoen etxeko lanen burutzea eta kudeaketa, tipologiaren arabera [“egunerokoaren kudeaketa”, gehienak, “nagusitasuna”, “eraginkortasuna” eta “ardura banaketa”]. Handienetik txikienera ordenatuta “ama bakarrik” zutabearen arabera. Ehunekoak.

NORK ZER EGITEN DUEN ETXEAN	AMAK BAKARRIK	AMAK AITAK BAINO GEHIAGO	AITAK AMAK BAINO GEHIAGO	AITAK BAKARRIK	BIEK	BESTE BATZUEK	ED/EE
<b>Egunerokoaren kudeaketa</b>	<b>67,6</b>	<b>63,1</b>	<b>21,6</b>	<b>29,3</b>	<b>69,1</b>	<b>11,1</b>	<b>8,0</b>
Nire arroparen neurria eta zapata-zenbakiak dakizki...	42,9	35,4	0,6	0,9	14,9	0,6	4,6
Etxean supermerkatua joaten direnean, falta denarekin zerrenda pentsatzen eta egiten duena da...	39,1	23,2	5,3	2,4	24,5	3,1	2,4
Egunero egin behar diren janariak honek erabakitzen eta antolatzen ditu...	34,5	32,6	4,6	1,4	22,3	3,3	1,3
Etxeko lanak normalean egiten ditu...	29,6	40,6	1,2	1,0	20,4	5,0	2,2
Asteburuetan etxeko lanak egiten ditu...	21,4	23,8	3,5	1,8	43,3	4,1	2,1
Garbigailua, hozkailua eta abar konpontzeko deitu behar denean berak egiten du...	15,9	14,7	14,5	13,3	34,5	3,5	3,6
Etxeko kontuak eramaten ditu...	13,5	15,6	17,3	9,0	39,9	1,7	3,1
Elektrizitateko, iturgintzako eta bestelako konponketa txikiak egiten ditu...	3,6	1,2	17,1	57,1	5,1	11,7	4,4
<b>Afektibitatea</b>	<b>16,3</b>	<b>14,5</b>	<b>3,7</b>	<b>3,0</b>	<b>20,0</b>	<b>4,8</b>	<b>5,2</b>
Errazagoa egiten zait nire arazoak berari esatea...	33,8	25,5	8,3	6,7	15,4	3,8	6,4
Adoregabe sentitzen naizenean, egoera gainditzen laguntzen dit...	14,6	17,6	2,6	2,2	43,8	10,3	9,0
<b>Erantzukidetasuna</b>	<b>8,4</b>	<b>9,0</b>	<b>3,0</b>	<b>1,0</b>	<b>9,7</b>	<b>1,1</b>	<b>1,4</b>
Etxeko lanak egiten laguntzeko gehien esaten didana da...	24,9	26,8	9,0	3,1	28,7	3,3	4,2
<b>Buruzagitza</b>	<b>7,6</b>	<b>6,7</b>	<b>8,7</b>	<b>5,7</b>	<b>32,1</b>	<b>2,4</b>	<b>4,2</b>
Nota txarrak ateratzen ditudanean lotsa handiagoa ematen dit berari esatea...	13,2	10,6	21,2	14,6	28,8	3,2	8,3
Oporretan nora eta noiz joatea erabakitzen du ...	9,4	9,4	4,7	2,3	66,3	4,0	4,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>22,8</b>	<b>21,3</b>	<b>8,4</b>	<b>8,9</b>	<b>29,8</b>	<b>4,4</b>	<b>4,3</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**NERABEEN JARDUERAK  
ETXEAN**

**4.2.6**

Ikerketan honetan aztertutako nerabeak bizi diren bizikidetzaren unitateen gurasoek egindako etxeko testuinguruarekin bat etortzen diren jardueren kudeaketaren eta burutzearen banaketa behin adierazita, egokia deritzogu talde horrek testuinguru berean zer jarduerak egiten dituzten jakiteari.

Xede horretarako galdeketa egindako galderaren asmoa, funtsean, hau zen: 2008/09 ikasurtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeen artean, gaur egun, dagoen ahalduntze-prozesuak zenbateraino aurkitzen duen garapen-agertokietako bat jarduerak desberdinetan, edo beste gizarte-agertoki batzuetara zabaltzeko joera duen.

4.12. taulak, erantzuna eman zion aurreko hausnarketari neurri handi batean. Horrela, nerabeen %38,0k "inoiz ez edo gutxitan" egiten ditu adierazitako etxeko zazpi jarduerak, handienetik txikienera ordenatuta daudenak kategori" horren arabera. Hala ere, nerabeen %30,0k adierazi du hautatutako lan horiek "ia egun guztietan (%14,9)" edo "astean behin baino gehiagotan (15,1%)" egiten dituztela.

Baina barne diferentzia nabarmenak aurkitu ditugu emaitzetan. Kontuan hartu behar dugu galdeketa barne hartutako "etxeko" zazpi jarduerak familia-unitatean bizi diren "beste pertsonentzat" bideratutakoen artean bereizi zirela, eta beste batzuk, aldiz, "nerabeei" zegozkiela. Azken jarduera hauek dira, hain zuzen, burutze ehunekorik handienak izan dituztenak. Horrela, "bere ohea egitea" eta "gela txukuntzea", ikerketa honetan parte hartu duten nerabeek "ia egun guztietan edo asteen behin baino gehiagotan" egiten dituztela adierazten duten jarduerak dira, %73,8 eta %54,0 kasutan, hurrenez hurren.

Bizikidetz-unitatearen beste pertsonentzat gehiago bideratutako etxeko jarduerak, hala nola "besteen oheak egitea", "besteen bazkaria prestatzea" edo "senidekoak zaintzea", emaitza altuak izan dituzte "inoiz ez edo gutxitan" kategorian.

**4.12. TAULA. Nerabeek etxean egindako jarduerak. Handienetik txikienera ordenatuta, "inoiz ez edo oso gutxitan" zutabearen arabera. Ehunekoak.**

ETXEAN ZER EGITEN DUTEN	IA EGUN GUZTIETAN	ASTEAN BEHIN BAINO GEHIAGOTAN	IA ASTE GUZTIETAN	HILEAN BEHIN	INOIZ EZ EDO OSO GUTXITAN	ED/EE
Besteen oheak egitea	2,4	6,9	5,1	10,5	72,8	2,2
Besteei janaria egitea	1,4	7,6	5,3	16,9	65,6	3,2
Senideak zaintzea	11,8	8,5	10,4	13,7	45,5	10,1
Zure janaria egitea	4,7	17,8	10,0	25,0	40,4	2,1
Etxea garbitzea	3,5	17,4	23,2	28,3	26,4	1,2
Zure ohea egitea	50,9	22,9	9,5	5,9	10,3	0,5
Zure gela txukuntzea	29,2	24,7	26,5	14,4	4,7	0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>14,9</b>	<b>15,1</b>	<b>12,9</b>	<b>16,4</b>	<b>38,0</b>	<b>2,8</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Genero-desberdintasunak egotea, gure autonomia-erkidegoko nerabeen etxeko jardueren burutze mailaren beste dimentsio bat da. Eta 4.13. taula, haiek daudela adierazteko modu bat da. Horrela, neska eta mutilen eta guztien artean, etxeko zazpi jarduerak "astean behin baino gehiagotan" egitean, erantzunak bereizi dira neska, mutil eta bien artean, eta bi sexuen arteko diferentzia gaineratu da. Jarduera guztietan, neska nerabeek mutilek baino jarduera gehiago egiten dituztela islatu da, %33,6 hain zuzen, %26,3aren aldean. Beraz, %7,3 aldea dago.

Horrez gain, genero-desberdintasun hau handiagoa da banakako autonomia handiagoa behar den jardueretan; hots, "bere ohea egitea" eta "bere gela txukuntzea" jardueretan (nesken kasuan, %14,3koa; mutilenean, %9,6koa), baina baita "etxea garbitzea" eta "seni-

dekoak zaintzea” jardueretan ere. Horiek, laguntza maila handiagoa adierazten dute bizikidetza-unitatearen eguneroko garapenean, eta adin horietan, nesken rola badirudi zaintzeko joera duela.

**4.13. TAULA.** Nerabeek astean behin baino gehiagotan egindako etxeko jarduerak (ia egun guztietan zutabeen bildutakoa), sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta “ama bakarrik” zutabearen arabera. Ehunekoak.

ASTEAN BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ZER EGITEN DUTEN	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Zure ohea egitea	80,9	66,6	73,8	14,3
Zure gela txukuntzea	58,7	49,1	54,0	9,6
Zure janaria egitea	23,7	21,4	22,6	2,3
Etxea garbitzea	25,7	15,9	20,9	9,8
Senideak zaintzea	24,4	15,9	20,3	8,5
Besteen ohea egitea	10,3	8,4	9,4	2,0
Besteei janaria egitea	11,3	6,5	9,0	4,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>33,6</b>	<b>26,3</b>	<b>30,0</b>	<b>7,3</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**NERABEAK “EGITEN  
DUENA”RI BURUZ  
GURASOEK  
DAKITENAREN  
BANAKETA**

## 4.2.7

Belaunaldi desberdinak bizi diren familia-unitateen barruan, non haietako bat helduen bizitzara igarotzeko prozesu betean baitago, aitzakiarik gabe norberaren eta gizartearen nortasunaren garapena suspertzen duten funtsezko alderdiak aurkituz, egokia deritzogu gurasoek nerabeen eguneroko gizarte-jarduera nagusien eta funtsezko kontuen berri izateari, hots, “zer egiten duten” jakiteari.

Informazio hori jakitea oso garrantzitsua da, eta xede horretarako prestatutako galdeketa-  
ren bi galderen helburua ez zen izan bakarrik “belaunaldien arteko komunikazio maila” jakitea (zazpi gaiko zerrenda batean gurasoek seme-alabei buruz “asko”, “gutxi” edo “ezer ez” dakiten bereiziz); baizik eta ezagutzaren banaketa horretan “genero bereizketa” ere baze-  
goen jakitea.

4.14. taulan, nerabeen funtsezko zazpi alderdi horien “amak eta aitak asko daki” erantzunen ehunekoa ikus daiteke (handienetik txikienera ordenatuta, “ama”ren emaitzen arabera). Gurasoaren generoari begiratzen badiogu nabarmendu daiteke ezagutza mailan dago-

en desberdintasun handia; izan ere, zazpi alderdi horietan "amak" "aitak" baino askoz ere gehiago daki ikerketa honetaren xede diren nerabeei buruz. Eta alde hori gehiago handitzen da "seme-alaba nerabearen lagun-taldea nor den esatea" aukeran (%27,3ko aldea) eta baita "dirua nola gastatzen duten" aukeran ere (%18,6).

"Eskolako kontuak" aukerari ematen dioten lehentasuna gurasoek, belaunaldi arteko eta gurasoen eta seme-alaben artean ardura nagusia delako eurentzat. Baina hortik aurrera, betiere bakoitzaren informazioaren arabera, gainerako alderdiak bigarren maila batean daude "aiten" kasuan. "Amen" kasuan, aldiz, adierazi dugun moduan desberdina da, eta "nor diren lagunak" (%81,2) edo "aisialdian zer egiten duten" (%61,6) eta "gauean nondik ibiltzen diren" (%61,5) aukerei buruz duten ezagutza maila handia da.

Hala eta guztiz ere, nerabeen emaitzek argi utzi dute "ezagutza -eta horren ondorioz, komunikazio- hutsunea dagoela belaunaldi eta genero arteko harremanen afektibitatearen esparruan. Afektibitatearen esparru hori, bi elementuren bidez egongo litzateke adierazita ikerketa honetan: "amodio-kontuei" buruz dakitena, non amen %85,5 "gutxi" eta "ezer ez" dakiten, eta aiten %81,8a, eta "zure arazoez dakitena", non amen %56,8a "gutxi" eta "ezer ez" dakiten, aiten %72,5aren aldean.

**4.14. TAULA. Gurasoek nerabeen eskola-, afektibitate- eta aisialdi-egoerei buruz duten ezagutza. Handienetik txikienera ordenatuta, "ama" zutabearen emaitzen arabera. Ehunekoak.**

NERABEEN INGURUAN ASKO DAKITE HONI BURUZ ...	AMA	AITA	ALDEA
Eskolako egoerari buruz	89,4	76,0	13,4
Nor diren zure lagunak	81,2	53,9	27,3
Zer egiten duzun aisialdian	61,6	49,5	12,1
Nora zoazen gauean	61,5	52,0	9,5
Nola gastatzen duzun dirua	57,6	39,0	18,6
Zure arazoak	40,6	25,8	14,8
Zure amodio kontuez	19,3	13,5	5,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>58,7</b>	<b>44,2</b>	<b>14,5</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Oro har, nerabeen kasurako adierazitako etxeko eta familiako testuinguruan barne hartzen den belaunaldi eta genero arteko ezagutza eta komunikazioaren banaketaren bide bikoitza mantentzen da nerabeen emaitza bereizietan. Hala ere, 4.15. eta 4.16. tauletan, amek bere alaben jarduerari buruz duten ezagutza maila ikus daiteke. Gure ingurunean, nabarmen handiagoa da semeen kasuan baino; hots, askoz ere gehiago dakite alabei buruz semei buruz baino.

Emaitza hauetatik, beraz, bi ondorio atera daitezke: lehenengoa, seme-alaben zainketaren kudeaketa eta ardura badirudi emakumeak-amak bere gain hartzen duela, gizonak-aitak baino neurri handiagoan nerabezaroan. Bigarrena, "egiten dutenari adi egote" hori emaku-

meei begira gehiago dagoela; izan ere, ama eta alaba nerabeen artean gehiagotan ematen delako seme nerabeen aldean.

**4.15. TAULA.** Gurasoek nesken eskola-, afektibitate- eta aisialdi-egoerei buruz duten ezagutza. Handienetik txikienera ordenatuta, "ama" zutabearen emaitzen arabera. Ehunekoak.

NESKEN INGURUAN ASKO DAKITE HONI BURUZ ...	AMA	AITA	ALDEA
Eskolako egoerari buruz	89,8	77,0	12,8
Nor diren zure lagunak	87,2	54,1	33,2
Zer egiten duzun aisialdian	65,6	50,8	14,8
Nora zoazen gauean	65,1	53,2	11,8
Nola gastatzen duzun dirua	60,7	38,4	22,3
Zure arazoak	43,1	23,5	19,6
Zure amodio kontuez	25,0	13,0	12,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>62,4</b>	<b>44,3</b>	<b>18,1</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**4.16. TAULA.** Gurasoek mutilen eskola-, afektibitate- eta aisialdi-egoerei buruz duten ezagutza. Handienetik txikienera ordenatuta, "ama" zutabearen emaitzen arabera. Ehunekoak.

MUTILEN INGURUAN ASKO DAKITE HONI BURUZ ...	AMA	AITA	ALDEA
Eskolako egoerari buruz	88,9	74,9	14,0
Nor diren zure lagunak	74,9	53,7	21,2
Zer egiten duzun aisialdian	57,8	50,7	7,1
Nora zoazen gauean	57,5	48,2	9,3
Nola gastatzen duzun dirua	54,4	39,7	14,7
Zure arazoak	38,0	28,1	9,9
Zure amodio kontuez	13,5	14,0	- 0,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>55,0</b>	<b>44,2</b>	<b>10,8</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.



## ARLO EKONOMIKOA

# 4.3

Atal honek duen interes nagusietako bat 1991 eta 1994 urteen artean jaio eta gaur egun, gure autonomia-erkidegoen bizi diren nerabeek zer baliabide ekonomiko dituzten jakitea da; baita gastua nola kudeatzen duten eta aurrezteko duten gaitasuna jakitea ere.

Ikerketa honen helburuekin bat, atal honen helburua ere bada arlo ekonomikoaren hiru alderdi horietan (diru-sarreretan, gastuetan eta aurrezkian) nerabearen generoaren arabera zer desberdintasun dauden jakitea. Kontuan hartu behar da pertsona baten jarduera biografikoaren arlo ekonomikoa interes handieneko arlo bat dela ahalduntzea kontuan hartzen badugu. Eta jarduera biografikoaren nerabeen etapa honetan, nerabeen "behar eta gaitasun ekonomikoak generoaren arabera" eta arlo honetan (diru-sarrerak lortzeko eta aurrezteko) "ekiten dioten" jakiten saiatzea interesa duten elementuak dira, zalantzarik gabe.

## ZUZENEAN DITUZTEN BALIABIDE EKONOMIKOAK


### 4.3.1

Lehen atal honen xedea da 2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailako gure autonomia-erkidegoko 14 eta 17 urte bitarteko nerabeek zuzenean dituzten baliabide ekonomikoak zein diren jakitea. Horretarako, eta kontuan hartzen badugu ikertzen ari garen taldearen egoera biografikoa, inkestan bi diru-sarrera iturri nagusi bereizi genituen: batetik, gurasoen esleipen ekonomikoa –"paga"-; bestetik, berariazko jardueren bitartez lortutako diru-sarrerak.

## ASTE-SARIA ESLEITZEA

4.11. grafikoan, nesken %65,2 eta mutilen %68a aste-saria dutela ikus daiteke. Beraz, alde txiki bat dago mutilen eta nesken artean. Badirudi, neskek bakarrik behar dutenean eskatzen dutela dirua (%31,7), edo aste-saririk ez dutela (%2,8).

#### 4.11. GRAFIKOA. Nerabeen artean aste-saria egotea. Ehunekoak.




#### ASTE-SARI KOPURUA

Aste-saria duten nerabeei bost tarte ekonomikotan kokatzea eskatu genien. Horrela, gure autonomia-erkidegoko hamar nerabeetatik ia zortziri (%78,8) aste-saria ematen diete gurasoek, 5 euro eta 20 euro artekoa hain zuzen.

Informazioa tartetan egituratzean ezin da batezbestekoa egin, baina badirudi mutilek aste-sari handiagoa dutela, 20 euro baino handiagoko tarte ekonomikoan (20 euro eta 30 euro artekoa eta 30 eurotik gorakoa) ehunekoan batura neskena baino handiagoa da.

**4.12. GRAFIKOA.** Nerabeen aste-sariaren zenbatekoa, sexuaren arabera. Ehunekoak.




**ASTE-SARIA ESLEITZEN DUEN PERTSONA**

Nerabeen autonomia ekonomikoaren arlo honetan interesa duen beste elementuetako bat da aste-saria nork ematen duen zer desberdintasun egon daitezkeen jakitea.

Eta 4.13. grafikoan bi ondorio atera daitezke: batetik, aste-saria "bi gurasoek" ematen dutela normalean; nesken kasuan %43,2an eta mutilen kasuan %48,5ean; bestetik, badirudi "amak" ematen duela aste-saria nesken kasuan, %24,2an hain zuzen, mutilen %19,7aren aldean.

Bestalde, egokia deritzogu "beste senide batzuk" aste-sariaren ematean duten garrantzia nabarmentzeari. Kategoria horretan aitona-amonak nagusi dira, baina amonak aitona baino gehiago. Horrez gain, badirudi aitona-amonak garrantzi handiagoa dutela nesken kasuan (%8,4) mutilen kasuan (%5,5) baino.

**4.13. GRAFIKOA.** Nerabeen aste-saria zeinek ematen duten, sexuaren arabera. Ehunekoak.




**BESTELAKO DIRU-SARRERA ITURRIAK**

Nerabegaroko pertsonen oinarrizko diru-sarrera iturrietako bat den "aste-saria" ren ezaugarri nagusiak ezagututa, egokia irudi zitzagun jakitea 1991 eta 1994. urteen artean jaiotako gure autonomia-erkidegoko nerabeek zenbateraino lor zitzaketen bestelako diru-sarrera iturriak. Eta 4.14. grafikoan horren hurbilketa bat ikusi dezakegu. Gutxienez, bi arlo nabarmendu daitezke. Batetik, 14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeen %69,2k "ez" du bestelako diru-sarrera ekonomikorik. Bestetik, agian informazio esanguratsuagoa gisa, neurri handi batean neskek dira aparteko diru-sarrera horiek ez dituztenak, %76,3k hain zuzen; mutilen kasuan, aldiz, %62k ez dute.

Gure autonomia-erkidegoko nerabeek gehienbat ez dute bestelako diru-sarrera ekonomikorik; beraz, gurasoek emandako aste-sariaren menpe daude. Hala ere, jarraian deskribatuko dituguna parteko diru-sarrera ekonomiko gutxiago biltzen dituzte neskek, %22,7k hain zuzen, mutilen %35,2aren aldean.

**4.14. GRAFIKOA.** Nerabeek aparteko diru-sarrerak izatea, sexuaren arabera. Ehunekoak.




Mutilek lor dezaketen aparteko diru gehiago hori alde batera utzi gabe, horrek ekar zitekeen ondorioak ere barne hartuz, diru-sarrerak lortzearekin edo ahalduntze gaitasunarekin eta erabakietan autonomia izatearekin lotutako jardueretan izandako esperientziengatik, lehen-dabizi aparteko diru-sarrerak lortzeko "beharrean" eta gero sarrera horiek lortzeko jardueraren garapenean, 4.15. grafikoan gure autonomia-erkidegoko nerabeen "aparteko dirua lortzeko baliabide" nagusien hautaketa ikus dezakegu. Guztira, sei ageri dira, handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen emaitzen arabera.

"Udan lan egitea" (%25,2) da 2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko gure autonomia-erkidegoko nerabeek aparteko dirua lortzeko erabilitako baliabide nagusia. Oso hurbil dago "entrenatuz, arbitratuz" aukera ere (%24,1).

Hala ere, aparteko diru hori lortzeko estrategietan hiru alde nabarmen daude nerabearen generoaren arabera. Horiek erakusten dute gizarte- eta ekonomia-jardueretan desberdintasuna dagoela generoaren arabera nerabezaroan. Hauek dira: nesken %18,6k "haurrak zainduz" lortzen dute aparteko diru hori, mutilen kasuan baino %15,5 gehiago (%3,1); nesken %13,3k "eskola partikularrak emanez" lortzen dute aparteko dirua; mutilen kasuan baino %9 gehiago (%4,3); eta, azkenik, nesken %16k kirol-jarduera baten edo gehiagoren kudeaketarekin zerikusia duten jarduerak eginez ("entrenatuz, arbitratuz") lortu du gaur egun "aparteko dirua. Kopuru hori ia hamalau puntu handiagoa da mutilen kasuan, eta hain zuzen euren aparteko diru-sarreraren iturri nagusia da (%29,8 mutilek).

**4.15. GRAFIKOA.** Nerabeek aparteko diru-sarrerak lortzeko baliabideen tipologia, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Erantzun anitza. Ehunekoak.



## BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

### 4.3.2

Gaur egun 14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeen bi diru-sarrera iturri nagusiak aipatu eta gero, baliabide ekonomiko horiek nola kudeatzen duten jakitea ere egokia dela uste dugu. Bi diru-sarrera iturrien –aste-saria eta norberaren jardueren- bereizketa mantendu dugu, baliabide horien eguneroko kudeaketan nerabeen artean egon daitezkeen desberdintasunei begiratzeko.

Horrez gain, atal hau bukatzeko, baliabide ekonomikoak kudeatzeko beste modu bati jarriko diogu arreta, aurrezkiari hain zuzen.

## ASTE-SARIA GASTATZEA

4.17. taulan, galdeketa ezarri ziren aste-saria gastatzeko hamazortzi arlo ageri dira, berriz ere handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen emaitzen arabera. "Parrandan ibiltzea" eta "litxarrerriak" erostea dira nerabeen bi gastu nagusiak. Haien atzetik, "arropa"

erostea, "garraioa", "sakelako telefonoa" aukerak daude, eta garrantzitsuak ere badira kulturaren ohiko kategorian bildutako ehunekoak ("liburuak, CDak, zinema...") eta "tabernetan, kafetegietan".

Eta nahiz eta gastuaren egitura, oro har, ia berdina izan, generoaren arabera zenbait bereizketa daude partiden banaketari dagokionez. Horrela, neskek nahiago dute "arropa"n diru gehiago gastatzea mutilek baino; "parrandan ibiltzea" aukeraren aurretik, gainera. Eta desberdintasun bera da "tabernetan eta kafetegietan" egindako gastuaren kasuan. Mutilek, aldiz, gastu handiagoa egiten dute "litxarreriatan" eta batez ere "bideo-joko"etan. Gastu hori, seigarren tokian dago mutilen kasuan (%7,8) eta nesken kasuan, berriz, hamalaugarrean (%0,3).

**4.17. TAULA.** Nerabeen aste-sariaren banaketa, sexuaren arabera. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

GASTU ESPARRUAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Parrandan ibiltzea	17,3	16,5	16,9	0,7
Litxarreriatan	14,5	17,7	16,0	- 3,2
Arropan	16,2	7,0	11,9	9,2
Garraioan	9,9	10,6	10,2	- 0,7
Sakelako telefonoaren saldoan	9,8	8,2	9,0	1,6
Liburuetan, Cdetan, zineman	7,3	8,6	7,9	- 1,3
Tabernatan, kafetegietan...	9,4	6,1	7,8	3,4
Mutil/neska lagunari gonbidatzea edo opariak egitea	5,0	4,5	4,7	0,5
Tabakoan	5,0	3,0	4,0	2,0
Bideo-jokoetan	0,3	7,8	3,9	- 7,4
Lokalean (lonjan...)	2,5	4,3	3,4	- 1,9
Eskolako materialean	1,3	1,8	1,5	- 0,5
Beste batzuk	0,5	1,6	1,0	- 1,1
ED/EE	0,3	0,7	0,5	- 0,5
Kirol materiala	0,1	0,7	0,4	- 0,6
Senideen nahiz lagunaren oparietan	0,5	0,1	0,3	0,4
Aurrezten	0,2	0,3	0,2	- 0,1
Lagunekin afaltzera joatea	0,1	0,2	0,2	- 0,1
Motorrerako gasolinan	0,0	0,4	0,2	- 0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**BESTELAKO ITURRIETATIK ETORRITAKO DIRU-SARRERAK**

4.18. taularen konturik nabarmenena, gure autonomia-erkidegoko nerabeen aste-sariaren gastuaren banaketa eta beste iturrietatik etorritako diru-sarreraren gastuaren banaketa dira.

Diferentzia gisa bakarrik aipatzen da gastuaren indartzea nerabearen autonomia edo gus-tuen arloen antzekoak diren gizarte-jardueretan, "arropa"ren nahiz "sakelako telefonoaren saldoa"ren kasuan.

Azken horri dagokionez, bestelako erabilgarritasunen artean, pertsona erabiltzaileei elka-rrizketetan autonomia-gaitasun handiagoa ematen dien tresna teknologikoa dena, aipatu behar da nesken %11,0k (gogoratu behar dugu %22,7 neska direla) aste-saritik kanpo lor-tutako diru-sarrerera mota horretatik %3,7 "sakelako telefonoaren saldo"rako bideratzen dute, mutilen gainerik.

"Arropa"ri dagokionez, partida hori lehen tokian dago mutilen kasuan (%18,6), eta nahiz eta gastuaren orientazioan desberdintasun nabaria egon mutilen aldean, mutilen artean "arro-pa" bigarren tokian dago, %11,4.

**4.18. TAULA. Nerabeen aparteko diru-sarreraren banaketa, sexuaren arabera. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.**

GASTU ESPARRUAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Parrandan ibiltzea	16,0	17,1	16,6	- 1,1
Arropan	18,6	11,4	14,6	7,2
Litxarreriatan	10,5	9,5	9,9	1,0
Sakelako telefonoaren saldoan	11,0	7,3	9,0	3,7
Garraioan	7,0	8,3	7,7	- 1,3
Liburuetan, Cdetan, zineman	6,7	8,5	7,7	- 1,8
Tabernatan, kafetegietan...	9,3	6,2	7,6	3,1
Mutil/neska lagunari gonbidatzea edo opariak egitea	6,4	8,5	7,6	- 2,1
Tabakoan	6,1	4,5	5,2	1,6
Bideo-jokoetan	0,6	8,3	4,8	- 7,7
Lokalean (lonjan...)	1,5	2,8	2,2	- 1,4
ED/EE	1,5	1,9	1,7	- 0,4
Beste batzuk	0,6	2,4	1,6	- 1,8
Eskolako materialean	2,3	0,7	1,4	1,6
Aurrezten	1,2	1,2	1,2	0,0
Auto bat erosiz	0,0	0,9	0,5	- 0,9
Lagunekin afaltzera joatea	0,9	0,0	0,4	0,9
Kirol materialean	0,0	0,5	0,3	- 0,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.




## AURREZTEKO GAITASUNA ETA AURREZKIAREN KUDEAKETA

2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko nerabeek dituzten diru-sarrera ekonomikoaren familia barruko edo kanpoko jatorria bereizi gabe, garrantzitsua ere bazen aurrezteko gaitasunaren berri izatea; baita hori kudeatzeko moduaren berri izatea ere. Helburua zen ahalduntzearen dimentsio ekonomiko horren erabaki autonomorako eta negoziatorako gaitasuna egiaztatzea nerabeen artean.

4.16. grafikoan ikus daitekeenez, nabarmendu behar den lehen kontua da hamar euskal nerabeetatik zortzik normalean aurrezten duela adierazi duela (%81,9). Aurrezki kopurua zein den jakin gabe, badirudi mutilek neskek baino zertxobait gehiago aurrezten dutela (%83,8, %80,1en aldean). Alde horren arrazoia agian izan daiteke nesken diru-sarreraren ehuneko txikiagoa dela -aste-sariaren esleipenean nahiz bestelako jarduerak garatzeagatik lortutako aparteko diruan-.


**4.16. GRAFIKOA.** Aurrezteko gaitasuna nerabeen artean sexuaren arabera. Ehunekoak.



Hala eta guztiz ere, 4.17. grafikoan, aldiz, aurrezkiari dagokionez ondoriozta daiteke neskek autonomoak izateko gaitasun handiagoa dutela mutilek baino; izan ere, nesken %75,8k dio autonomia ekonomikoko jarduera hori "bakarrik" egiten duela, mutilen %68,2aren aldean,

non logikoa denez bi gurasoek parte-hartze handiagoa baitute erabakiak kudeatzean eta hartzean (%19,3), edo baita haietako batek bakarrik ere (amak, %10ean) (22).

**4.17. GRAFIKOA.** Nerabeen aurrezkiaren kudeaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak.



**BILTZEKO ESTRATEGIAK APARTEKO GASTUAK EGIN BEHAR DIRENEAN**

**4.3.3**


Atal hau bukatzeko, diru-sarrera iturriak zein diren jakin eta gero, generoaren arabera nerabeen gastu eta aurrezki "arrunten" esparruak, talde honen ahalduntze-prozesuak eza-gutzeko beste elementu interesgarri bat da nerabeek edozein dela arrazoa ere erabiltzen dituzten estrategiei begiratzea; izan ere, "aparteko" gastuei aurre egin behar dietenean, edo horiek behar edo nahi dituztenean, gurasoengana edo belaunaldi helduan dagoen beste edozein pertsonarengana jo behar izan dute.

"Aparteko" egoera horien aurrean, galdeketatutako pertsonari zortzi aukeren artean bi ohikoak aukeratzea eskatu genien, eta 4.18. grafikoan ikus daitezke behar edo aparteko gastu horiek lortzeko estrategiek antzeko jarraibideak dituztela gure autonomia-erkidegoko

(22) "Beste pertsona batzuk" kategorian lagunak eta neba-arrebak sartzen dira.

nerabeen artean. Horrela, "dirua aurrezte" eta "bi gurasoei eskatzea" dira estrategia ohikoena. Hala ere, lehen aukera ohikoagoa mutilen kasuan (adierazi den bezala gehiago aurrezten dutelako eta diru-sarrera desberdinak dituztelako), eta bigarrena nesken kasuan (23).

**4.18. GRAFIKOA.** Nerabeek aparteko gastu-beharren aurrean, diru-sarrera iturriak aurkitzeko erabiltzen dituzten estrategiak, sexuaren arabera. Erantzun anitza (bi ohikoena aukeratu). Aldagaiak hautatzea. Ehunekoak.




Baina behin aparteko gastuetarako diru-sarrerak lortzeko estrategien lehen egoera hori ezagututa familiaren arloan, nerabeen ahalduntze-prozesuak aztertzeko helburuz, gaur egun, egoera gatazkatsuagoa zuten; hau da, familiaren-helduen arlo horrek seme-alaba nerabeek eskatutako aparteko gastu eskaerei erantzuten ez dietenean.

4.19. grafikoaren emaitzen lehen interpretazio batean esan daiteke 14 eta 17 urte bitarteko neska nerabeek gurasoen ezezko erantzunaren aurrean konformistagoak direla, euren beren baliabide ekonomikoaren bidez aparteko gastuari ezin diotenean aurre egin eskatzen dutenean. Halaber, neskek gurasoak konbentzitzeko gaitasun handiagoa dute egoera horre-

(23) "Gainerakoak" kategorian hauek barne hartzen dira: 1) Etxean eman dizute eskatu behar izan gabe; 2) Zure aitari bakarrik eskatzea; 3) Xeheka salerostea; 4) Beste senide batzuei eskatzea; 5) Nota onak/hobeak atereaz; 6) Urtebetetzea edo Gabonak izan arte itxarotzea; 7) Nire gurasoekin erdi bana ordaintzea; 8) Beste gauza batzuk; 9) EE/EE.

tan -%12,3, mutilen %7,0aren aldean-. Horrek, beste bi aukerak indargabetzen ditu, hau da, proaktiboena, "beste modu batean lortzen saiatzea", edo pasiboena, "eustea eta ez protestatzea".

**4.19. GRAFIKOA.** Nerabeek beren baliabide ekonomikoez "zerbait" erosteko ezintasunaren aurrean duten erantzun mota, sexuaren arabera. Ehunekoak.



Familiaren-helduen –edo gurasoen- esparruak ezetz esaten duenean, aparteko gastu hori (artikulua, erosketa) lortzeko "beste baliabide baten bidez lortzen saiatzen diren" nerabeen berariazko azterketa bat egiten badugu zenbait desberdintasun aurkitu ditugu generoaren arabera jarduteko estrategietan. Ezetz esate hori gizarte-jarduera jakin bat gisa hartzen da, eta nerabeen ahalduntze-maila bat edo erabakiak berak hartzea eskatzen du. Horrela, 4.19. taulan, nerabeek elkarrizketarako irekienak eta baita indibidualenak ere diren estrategiak ikus daitezke, kontuan hartzen badugu nesken lehen estrategia "aurrezte" dela, eta hurrengo biak, "beste senide batzuei eskatzea" eta "aitekin negoziatzea (eta akordioak egitea)" direla.

Mutilek, aldiz, aparteko gastu hori beste modu baten bidez lortzen saiatzen badira ez dute zehazten zer estrategia erabili duten, eta badirudi "jaramon egin arte (astuna izanik)" aukera nahiago dutela, gero aurreztera ekiteko eta hizketan aritzeko.

**4.19. TAULA.** Nerabeek nahi dutena eta gurasoek ukatu dietena erosteko erabilitako estrategiak. Lehenetasunaren arabera ordenatuta, "Neskak" zutabearen arabera.

NAHI DUTENA ETA GURASOEK UKATZEN DIETENA EROSTeko ESTRATEGIAK	NESKAK	MUTILAK
Aurrezten	1 <sup>a</sup>	3 <sup>a</sup>
Beste pertsona edo senide batzuei eskatuz	2 <sup>a</sup>	5 <sup>a</sup>
Gurasoekin negoziatuz (akordioak eginez)	3 <sup>a</sup>	4 <sup>a</sup>
Ez du zehazten	4 <sup>a</sup>	1 <sup>a</sup>
Behin eta berriz ekinez (astuna izanik)	5 <sup>a</sup>	2 <sup>a</sup>
Lan eginez	6 <sup>a</sup>	6 <sup>a</sup>
Etxean lagunduz	7 <sup>a</sup>	8 <sup>a</sup>
Zure urtebetetzea edo Gabonak izan arte itxaroten	8 <sup>a</sup>	12 <sup>a</sup>
Portaera hobea izanik	9 <sup>a</sup>	7 <sup>a</sup>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Gauza bat erosi nahi dutenean baina gurasoek ezezkoa ematen dietenean erabilitako estrategia horien azken emaitzei edo eraginkortasunari buruz galdetu genien; ea lortzen ez badute beste modu baten bidez lortzen saiatzen diren. Argi utzi behar den lehen gauza da mutilen nahiz nesken kasuan, azken emaitza "batzuetan" aukera dela nagusi, erantzunen %75ean. Horrek ekartzen du aurretik adierazitako jarduteko estrategia horiek ez dutela bermatzen arrakasta izango dutenik. Baina hori adierazita, egia esan, gainerako estrategiek baina emaitza arrakastatsukoak izan dituztela "aurrezte", "lan" bat garatzea eta "etxean laguntzea" aukerak, ziur asko hirurak hautemangarriak direlako.

## DENBORA ESPARRU EZ ARAUTUA (AISIALDIA)

# 4.4

Gizarte-jarduerak garatzean eta kudeatzean, leku jakinetan asialdian nerabeen artean egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzea da atal honen helburu nagusia.

Espazio-denbora arautu eta ez-arautuaren arteko bereizketa horrekin bat, (DBHko nahiz Batxilergoko) eskola-jarduera egoteak edo ez egoteak mugatutako nerabeen eguneroko jarduerari jarraituz, nerabeen denbora ez arautu horretan –aisialdian edo eskolatik kanpokoan-jardueretara eta haien kudeaketara hurbiltzea egoki iruditu zaigu. Horrela, bi une bereizi ditugu: batetik, "asteazken zehar" garatzen diren jarduerak, non aisialdia maila desberdinetan dagoena, eskolako denbora arautuaren eskaeren menpean; bestetik, "asteburu"ko jarduerak, non eskaera formal horiekin –kasu honetan eskolakoekin- apurtzen den sentsazio handiagoa dagoen. Horregatik, denbora "libre" gisa hartzen dute (termino horren erabilera ondo erabiltzen den edo ez eztabaidatzen hasi gabe).

Ez dago esan beharrik lan-astearen edo eskola-astearen eta asteburuaren arteko bereizketa hori ez dela bakarrik nerabeen artean egindako gizarte-jardueren bereizketa bakarrik, baizik eta gure ongizatearen gizarteetan belaunaldi guztietan oro har edo zeharka zabalduko jardueren egituraketa, espazio eta denboretan (24).

## **DENBORAREN KUDEAKETA ASTEAN ZEHAR**

### **4.4.1**

Atal jakin honen helburua nerabeen asteko gizarte-jardueren berri izatea da. Beraz, xedea da zertan ematen duten eguneroko aisialdia eskolako ordutegia bukatu eta gero.

Baina egunero jarduera horien berri izateaz gain, euskal nerabeen ahalduntzean interesa zuen ikerketa baten esparruan, egokia irudi zaigun jarduera horiek arrazoi desberdinengatik –helduen adinetik hurbiltzeak dakartzan “beharrengatik”, edozein funtsezko etaparen berezko “gustu edo motibazio aldaketengatik” edo beste edozein arrazoiengatik– uzten diren aztertzea generoaren arabera. Eta ildo horretan, atalaren bukaeran, nerabeei denbora gehiago ematea edo egitea gustatuko litzaiekeen zenbait jarduera ageri dira. Jarduera horiek ez egiteko zenbait arrazoi aurretik aipatu ditugu. Hori guztia nerabezaroan nortasunak osatzean egon daitezkeen “gizarte- eta genero-baldintzatzaileak” bilatzeko eta identifikatzeko; izan ere, nerabeen jarduera biografikoaren helduen etapan itxura emango baitio eta berriz sortuko baitu.

## **GAUR EGUN EGITEN DITUZTEN JARDUERAK**

4.20. taulan, 2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko nerabeak eskolatik irten eta gero zer gizarte-jarduera egiten zituzten ageri dira. Emaitzak handienetik txikienera ordenatuta daude lehen kategoriatik, eta eskolatik irten eta gero lau jarduera egiten zituzten “ia egun guztietan”. Lehenengoa eskola egunaren deribazioa da; izan ere, nerabeen %17,1ek dio ia egun guztietan “ikasten edo etxe-ko lanak egiten” ematen dutela denbora.

Eskolaz kanpoko edo arautu gabe denboran egindako beste hiru jardueretan tresna teknologikoren bat erabiltzen dute, “musika entzuteko” (%15,5), “telebista ikusteko” (%13,9) eta “interneten egoteko, bideo-jokoetan aritzeko, etab.”. (%11,3). Ikerketa honen helburua

---

(24) Ikusi, zentzu honetan, esaterako lan hau: MASA, M. “Antes de la política: la estructuración de lo cotidiano en el País Vasco.” *Inguruak, Revista Vasca de Sociología*, 28. zk., 153-162. or.

nerabeek eguneroko arautu gabeko denbora tarte handi horretan egiten dituzten jardueren eraginei buruzko iritziak ematea ez dela kontuan hartuz, ez dago zalantzarik teknologien erabilera -kuantitatiboki, hau da, kalitatean edo aniztasunean sartu gabe) nahiko zabaldua dagoela gure autonomia-erkidegoko nerabeen artean, eta aintzat hartzen jarraitu behar zaiola.

#### 4.20. TAULA. Nerabeen gizarte-jarduerak eskola bukatu eta gero. Handienetik txikienera ordenatuta "ia egun guztiak" zutabetik. Ehunekoak.

NERABEEK ESKOLA BUKATU OSTEAN EGITEN DITUZTEN GIZARTE-JARDUERAK	IA EGUN GUZTIETAN	ASTEAN BEHIN BAINO GEHIAGOTAN	IA ASTE GUZTIETAN	HILEAN BEHIN	INOIZ EZ EDO OSO GUTXITAN	ED/EE
Ikastea edo etxeko lanak egitea	17,1	5,9	4,8	1,3	1,4	0,5
Musika entzutea	15,5	5,4	5,3	2,1	2,1	1,2
Telebista ikustea	13,9	7,2	7,2	1,9	1,7	0,8
Interneten egotea, bideo-jokoekin, etab.	11,3	8,7	6,1	3,1	2,6	1,1
Lagunekin egotea	8,8	13,1	8,4	2,0	1,4	0,9
Kirolen bat egitea	7,2	10,1	6,8	3,2	4,5	1,5
Eskolaz kanpoko jarduerak (hizkuntza, musika-tresna bat jotzea, ...)	6,4	11,5	3,4	0,8	6,5	2,8
Etxeko lanetan laguntzea	4,3	7,6	12,1	8,0	4,0	1,6
Irakurtzea	3,6	4,3	7,4	9,5	7,8	2,1
Ezer egin gabe	3,2	5,5	5,5	5,9	9,3	3,5
Mutil/neska lagunarekin egotea	3,2	5,2	4,1	1,1	8,6	13,5
Beste jarduera fisiko batzuk (dantza egitea, patinatzea, ...)	1,9	4,0	6,7	6,5	10,5	3,5
Paseatzea	1,8	6,0	8,3	9,2	8,1	1,8
Beste jarduera bat	0,8	0,4	0,1	0,0	0,0	57,0
Ikuskizunetara joatea (zinema, kirola, musikalak, antzerkia, ...)	0,4	1,7	4,8	20,7	8,1	2,0
Dendatan, erosketan joatea	0,3	2,3	7,6	22,3	6,1	1,2
Boluntario gisa (begiralea, elkarte batean parte hartzea, ...)	0,3	1,1	1,4	2,6	17,3	4,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Bigarren maila batean, hots, ia egun guztiak baino maiztasun txikiagoan, baina "astean behin baino gehiagotan", hiru jarduera ditugu: "lagunekin egotea" (%13,1), "kirolaren bat egitea" (%10,1) eta "eskolaz kanpokoak" (%11,1). Azken jarduera hau aurretik aipatutako "ikastea edo etxeko lanak egitea" jarduerari gehituko bagenio, nerabeen %28,5ek "ia egun guztietan" eskola egunarekin lotutako jarduerak egiten dituztela ikusiko genuke, jarduera arautu eta ez-arautuen artean etengabe errepikatzen dena. Horrela, agian, geroagoko helduen etaparen egituratzeko moduei itxura emango zaie nerabezaroan; izan ere, gero, ekoizpen-jarduerari ekingo zaie.

Gainera jarduerak sakonean aztertu gabe, 4.20. taulan hiru alderdi nabarmendu behar ditugu: Lehenengoa, kultura-jarduerak ("ikuskizunetara joatea, zinemara, etab.") "hilean behin" egiten dituztela gure autonomia-erkidegoan bizi diren 14 eta 17 urte bitarteko nerabeek. Maiztasun berarekin joaten dira "dendatan edo erosketan egiten".

Azkenik, nabarmendu behar da "borondatezko lana" jarduerak eragin eskasa duela nerabeen artean asteko arautu gabeko denboran. Horren erakusgarri dugu "inoiz edo oso gutxitan" kategorian egondako ehunekoan (%17,3), baina baita "ez daki/ez du erantzuten" kategorian ere (%4,8). Azken horri dagokionez, badirudi boluntarioen jarduera horren esanahi sintaktikoa eta semantikoa ez dakitela.

Emaitza orokorrak azaldu eta gero, ikerketa honen helburu nagusietako bat generoen artean egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzea da; kasu honetan, gaur egun gure autonomia-erkidegoan bizi diren 1991. eta 1994. urteen artean jaiotako neska eta mutil nerabeek eskola egunaren ondoren denbora ez-arautua emateko edo kudeatzeko moduari dagokienez.

Aurretik erabilitako beste eredu batzuei jarraituz, 4.21. taulan generoen artean egon daitezkeen desberdintasun horiek ikus daitezke. Horretarako, eskola egunaren ondoren "ia egun guztietan" egiten diren hamazazpi jardueren erantzunak lau zutabetan bereizi ditugu: neskak, mutilak, guztira, aldea.

Ez dirudi genero desberdintasunik dagoenik adin horietan denboraren kudeaketan, izan ere, "ia asteko egun guztietan" "telebista ikustea" edo "Interneten egotea, bideo-jokoetan..." aukerak lehen postuetan daudelako (hala ere, azken aukera horretan badirudi mutil gehiago daudela).

#### **4.21. TAULA. Nerabeen gizarte-jarduerak eskola bukatu eta gero "ia egun guztiak", sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabetik. Ehunekoak.**

NERABEEK ESKOLA BUKATU ETA GERO "IA EGUN GUZTIETAN" EGINDAKO GIZARTE-JARDUERAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Ikastea edo etxeko lanak egitea	18,2	15,8	17,1	2,4
Musika entzutea	16,5	14,3	15,5	2,2
Telebista ikustea	13,9	13,8	13,9	0,1
Interneten egotea, bideo-jokoekin, etab.	11,0	11,6	11,3	- 0,6
Lagunekin egotea	8,4	9,3	8,8	- 0,9
Kirolen bat egitea	4,3	10,6	7,2	- 6,3
Eskolaz kanpoko jarduerak (hizkuntza, musika-tresna bat jotzea, ...)	7,3	5,3	6,4	1,9
Etxeko lanetan laguntzea	4,9	3,6	4,3	1,4
Irakurtzea	4,0	3,3	3,6	0,7
Ezer egin gabe	2,9	3,2	3,2	- 0,3
Mutil/neska lagunarekin egotea	3,6	2,9	3,2	0,7
Beste jarduera fisiko batzuk (dantza egitea, patinatzea, ...)	1,7	2,1	1,9	- 0,5
Paseatzea	2,1	1,3	1,8	0,8
Beste jarduera bat	0,8	0,8	0,8	0,0
Ikuskizunetara joatea (zinema, kirola, musikalak, antzerkia, ...)	0,1	0,7	0,4	- 0,5
Dendatan, erosketan joatea	0,2	0,4	0,3	- 0,2
Boluntario gisa (begiralea, elkarte batean parte hartzea, ...)	0,1	0,5	0,3	- 0,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.




Hala ere, gainerako jardueretan genero-desberdintasunak ikus daitezke. Badirudi gure inguruko neskek mutilek baino denbora gehiago ematen dutela eskolatik kanpo horrekin zerikusia duten jarduerak egiten. Horrela, asteko ia egun guztietan "ikasten edo etxeko lanak egiten" dituzte; baita "eskolaz kanpoko" jarduerak ere.

Neskek denbora gehiago ere ematen dute "musika entzuten" eta "irakurtzen". Horrek esan nahi lezake mutilek joera handiagoa dutela "asteko ia egun guztietan" talde-jarduerak egiteko; esaterako, "lagunekin egotea" eta "kirolaren bat egitea". Azken jarduera honetan tarte nabarmena dago neska eta mutil nerabeen artean.

## LEHEN EGITEN ZITUZTEN JARDUERAK

Ikerketa hasi genuenetik zenbait proposamen prestatu genituen jakiteko ea 2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko gure autonomia-erkidegoko nerabeek aurretik adierazitako arautu gabeko denboran egindako jardueraren bat edo batzuk utzi behar izan bazituzten.

### 4.20. GRAFIKOA. Nerabeek eskola bukatu eta gero gizarte-jarduerari uztea egotea, sexuaren arabera. Ehunekoak.



Arautu gabeko jarduera horiek hartzeko erabakiak zenbateraino eta zer arrazoiengatik hartu zituzten jakitea zen helburua.

Eta galdeketaren 29. galdera informazio hori jasotzeko izan zen. Horrela, zenbait arrazoi bereizi genituen uzteko; hala nola, genero bakoitzak garatu behar dituen jarduerari esleitutako gizarte-balio nagusiak ezartzea, heltzen ari den pertsona batek landu behar izatea nahiz norberaren gustuarekin eta motibazioekin lotuta daudenak.

Eta nabarmendu behar den lehen alderdia, interpretazio hauetan sartzeko eta esparru izateko bide gisa, nerabeen ia %27k beren jarduera biografikoan arautu gabeko jardueraren bat utzi dutela dio; %63,5ek "ez" etz adierazi dute. "Bai" erantzun duten nesken ehunekoak %31,7koa da; mutilen kasuan, ia %22koa.

Astean zehar aurretik jardueraren bat egiten zuen nerabeen %27ri jarduera horiek eta uzteko arrazoiak aipatzeko eskatu genien. Eta 4.22. taulan, funtsean hiru arrazoiak aipatzen dira jarduerak uzteko: "beste behar batzuk" izatea (%29,3), "jarraitzeko motibazioa" galdu izana (%22,4), eta azkenik, "gustu aldaketa" gertatu izana (%17,2).

**4.22. TAULA.** Ikerketaren nerabeek lehen egiten zituzten jarduerari uzteko arrazoiak. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

LEHEN EGITEN ZUEN JARDUERA BATEKIN EZ JARRAITZEKO ARRAZIOAK	KIROLA	MUSIKA-TRESNA BAT JOTZEA	BESTE JARDUERA FISIKO BATZUK	ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	BESTE JARDUERA BATZUK	GUZTIRA
Beste betebeharrak	28,7	25,5	43,8	31,6	23,5	29,3
Jarraitzeko motibaziorik gabe	21,5	35,3	12,5	21,1	17,6	22,4
Gustu aldaketa	14,4	19,6	15,6	26,3	26,5	17,2
Deseroso egotea	10,3	9,8	6,3	10,5	11,8	10,0
Beste arrazoi batzuk	10,8		15,6	5,3	2,9	8,5
Ez du etorkizunerako balio	7,7	3,9	6,3		5,9	6,3
Denbora falta	6,7	5,9		5,3	11,8	6,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

4.23. taulan, aldiz, arrazoi horien banaketa ageri da, galdeketaren galdera irekiari (30. galderari) egindako jardueren bost taldekatze bakoitzean. Nabarmendu daitekeen lehen kontua da "kirola" k erantzun guztietan duen garrantzia; izan ere, nerabeek gehien utzitako jarduera da %59rekin. Alde handira "tresna bat jotzeari" uztea dago, %15,4rekin.

**4.23. TAULA.** Ikerketaren nerabeek lehen egiten zituzten jarduerari uzteko arrazoiak. Handienetik txikienera ordenatuta "kirola" zutabearen arabera. Ehunekoak.

LEHEN EGITEN ZUEN JARDUERA BATEKIN EZ JARRAITZEKO ARRAZOIAK	KIROLA	MUSIKA-TRESNA BAT JOTZEA	BESTE JARDUERA FISIKO BATZUK	ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	GUZTIRA
Beste betebeharrak batzuk	57,7	13,4	14,4	6,2	8,2
Jarraitzeko motibaziorik gabe	56,8	24,3	5,4	5,4	8,1
Gustu aldaketa	49,1	17,5	8,8	8,8	15,8
Deseroso egotea	60,6	15,2	6,1	6,1	12,1
Beste arrazoi batzuk	75,0		17,9	3,6	3,6
Ez du etorkizunerako balio	71,4	9,5	9,5		9,5
Denbora falta	61,9	14,3		4,8	19,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>58,9</b>	<b>15,4</b>	<b>9,7</b>	<b>5,7</b>	<b>10,3</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Orobat, nerabeek jardueraren uztean eragina izan zuten zazpi arrazoietakako bakoitza arrazoi nagusia da "kirola"ren kasuan, eta "beste arrazoi batzuen" kasuan "lesioak" dira nagusi, eta baita "eroso ez egotea" ere. "Tresna bat jotzea"ri dagokionez, "jarraitzeko motibaziorik ez izatea"ren arrazoi nagusi da, eta baita "gustu aldaketa" ere. "Beste jarduerak fisiko"en kasuan, "beste arrazoi batzuk" aukeraren garrantzia ikus daiteke, eta funtsean garatzeko eskaintzarik ez egotea da arrazoi nagusia. Azkenik, nabarmendu behar da "denbora falta"k duen eragina "beste jarduerak batzuk" kategorian dauden jarduerak desberdinen uztean. Beste jarduerak batzuk horien artean hauek daude: lagunekin egotea, bikotearekin egotea, irakurtzea, Interneten/bideo-jokoekin egotea, telebista ikustea eta ezer egin gabe egotea.

Nerabeen emaitzak adierazi eta gero, 4.24. taulan jarduerak uzteko arrazoiak dauden zenbait desberdin ageri dira. Horrela, nerabezaroaren etapa biografiko honetan "beste behar batzuk" agertzea, funtsean eskolako eta eskolaz kanpoko trebakuntza-prozesuarekin lotuta daudenak direnak, nesken kasuan indartzen da. Mutilen kasuan, aldiz, arrazoi hori bigarrena da, "motibazio falta"rengatik.

Bestalde, adierazi behar dugu "beste arrazoi batzuk" aukera laugarren postuan dagoela nesken kasuan, eta horren arrazoi nagusia kirol-jarduerak eta bestelako jarduerak fisikoak garatzeko azpiegitura falta dela. Mutilen kasuan ez dirudi gauza bera gertatzen dela.

**4.24. TAULA.** Lehen egiten zuten jarduera bat egiten ez jarraitzeko arrazoiak, sexuaren arabera. Garrantzia ordenaren arabera ordenatuta, "neskak" zutabearen arabera.

LEHEN EGITEN ZUEN JARDUERA BATEKIN EZ JARRAITZEKO ARRAZOIAK	NESKAK	MUTILAK
Beste betebeharrak batzuk	1.	2.
Jarraitzeko motibaziorik gabe	2.	1.
Gustu aldaketa	3.	3.
Beste arrazoi batzuk	4.	7.
Deseroso egotea	5.	4.
Denbora falta	6.	6.
Ez du etorkizunerako balio	7.	5.

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.


Laburbilduz, adin bereko mutilekin alderatzen baditugu, -DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan eskolatutako 14 eta 17 urte bitarteko- gaur egun gure autonomia-erkidegoan bizi diren neskek eragile desberdinen (funtsean gurasoen) presio maila handiagoa dute eskolarekin nahiz trebatzearekin zerikusia ez duten jarduerak uzteko, bereziki kirol arlokoak, baina baita jarduera fisikoa egiten den beste batzuetan ere. Musika-tresnak ikastearekin zerikusia dutenekin ere gauza bera gertatzen da.

**EGITEA EDO DENBORA GEHIAGOTAN EGITEA  
GUSTATUKO LITZAIZKIEKEEN JARDUERAK**

Nerabeen jarduera biografikoan zehar egon daitezkeen baldintzatzaile desberdinak identifikatze aldera, ikerketa egiteko genero bereizketa kontuan hartzen badugu, garrantzitsua da beste bi datu jakitea: batetik, zenbateraino zeuden interesatuta nerabeak zenbait jardueratan beste batzuetan baino denbora gehiago emateko; bestetik, beren ikuspegitik zein arrazoi eragozten zuten horiek egiteko.

4.21. grafikoan galdera horiei erantzuten zaie. Horrela, DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailako 14 eta 17 urte bitarteko nerabeen ia %42,0k bere jarduera batzuk egin nahi zituzten, edo egiten ari zirenak handitu. Eta nesken %44,3k mutilen %39,4k baino interes handiagoa izateak nerabezaroan genero desberdintasuna dagoela erakutsi lezake, "jatorritik"; izan ere, aurretik adierazi dugunez gure ingurune hurbileko neskek aukera gutxiago dituzte beste jarduera edo gizarte-jarduera horiek egiteko mutilen aldean, 4.25. taulan adierazten diren arrazoiengatik.

**4.21. GRAFIKOA.** Nerabeek eskolaz kanpoko jardueretan denbora gehiago emateko interesa, ezin duten arren, sexuaren arabera. Ehunekoak.



4.25. taulan neskei nahiz mutilei denbora gehiago ematea gustatuko litzaiekeen jardueren zerrenda ageri da, handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Horrez gain, bien arteko desberdintasunak ageri dira.

**4.25. TAULA.** Egitea gustatuko litzaiekeen jardueren zerrenda. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

EGITEA GUSTATUKO LITZAIIEKEEN JARDUERAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Kirola	42,0	57,6	49,2	-15,6
Lagunekin egotea	14,2	8,6	11,6	5,6
Musika-tresnaren bat jotzea	8,0	11,9	9,8	- 4,0
Dantza egitea	13,6	4,0	9,2	9,7
Bikotearekin egotea	4,0	5,3	4,6	- 1,3
Gehiago ikastea	4,5	3,3	4,0	1,2
Irakurtzea	3,4	0,7	2,1	2,7
Margotzea	2,8	1,3	2,1	1,5
Ez du zehazten	1,1	3,3	2,1	- 2,2
Hizkuntzak	2,3	0,7	1,5	1,6
Ezer ez egin gabe	1,7	0,0	0,9	1,7
Patinatzea	0,6	0,7	0,6	- 0,1
Boluntariotza	0,6	0,7	0,6	- 0,1
Antzerkia	1,1	0,0	0,6	1,1
Etxean laguntzea	0,0	0,7	0,3	- 0,7
Arropa gehiago erostea	0,0	0,7	0,3	- 0,7
Idaztea	0,0	0,7	0,3	- 0,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

"Kirola egitea" (galdeketan modu irekian adierazitako modalitateen aniztasunaren kategorizazio berria) da nabarmen denbora gehiago ematea gustatuko litzaiekeen jarduera, bi nerabeetatik ia bati hain zuzen (%49,2). Kirol jarduera honen atzetik kokatuta daude erantzun askotan jasotzen diren beste hiru hauek: "lagunekin egotea" (%11,6), "musika-tresna bat jotzea" (%9,8) eta, azkenik, "dantza egitea" (%9,2).

Lau jarduera hauetara bakarrik mugatzen bagara, nahiz eta gainerakoetatik zenbait gogoe-ta ere egin daitezkeen, nerabezaroan dauden genero desberdintasunak nabariak dira. Mutilek "kirol jardueren" tarako joera handiagoa dute, eta neurri txikiagoan "musika-tresna bat jotzeko". Eta esanguratsua da neskek "dantza egiteko" duten interesa, jarduera hori aisialdiko agertokitan, akademiatan (eskolaz kanpo) edo bietan egingo luketen zehaztu gabe. halaber, "lagunekin egotea" aukerak eskaera handiagoa du.

Ikuspegi analitiko batetik, hasiera bateko asmoa nerabeei denbora gehiago ematea gustatuko litzaiekeen jarduerak eta horren arrazoi desberdinak lotzea zen. Hala ere, emaitzak direla-eta aukera hori baztertu genuen, "ikasteko denbora falta" arrazoia edo eragozpena nagusi zelako. Denbora falta horren arrazoia, eskola bukatu ostean etxeko lanak egin behar zituztelako edo horrekin lotuta zeuden eskolaz kanpoko jarduerengatik zen. Horrela, 4.26. taulan, nerabeen %73,1ek dio eskola-denboraren deribazioa baldintzatzaile nagusia dela aurretik aipatutako jarduerak egiteko denbora gehiago ez izateko. Baina "denbora arautua ez-arautua baino handiagoa izate" hori neskengan gehiago nabaritzen da (%78,4) mutilengan baino gehiago (%67).

**4.26. TAULA.** Egitea gustatuko litzaiekeen jarduerak ez egiteko arrazoiak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

EGITEA GUSTATUKO LITZAIKEEN JARDUERAK EZ EGITEKO ARRAZOIAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Denbora falta ikasteko	78,4	66,9	73,1	11,5
Ez du zehazten	7,4	19,2	12,8	-11,8
Gurasoek ez dizute uzten	4,0	2,6	3,4	1,3
Eskaintza gutxi	1,7	4,6	3,1	- 2,9
Alfertasuna	4,0	0,7	2,4	3,3
Egoitza urrun	1,1	2,6	1,8	- 1,5
Lagunak ez dira joaten	1,1	0,7	0,9	0,5
Baliabide ekonomiko gutxi	1,1	0,7	0,9	0,5
Beste kirol bat egiten duzu dagoeneko		1,3	0,6	- 1,3
Senideak zaintzea	0,6	0,0	0,3	0,6
Bikotearekin egotea	0,6	0,0	0,3	0,6
Lagunekin egotea		0,7	0,3	- 0,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Jarraian, neskek jarduera arautu horietara duten joera handiagoak zenbateraino ekartzen ari den asteburua gehiago erabiltzea ikusiko dugu; izan ere, "trebakuntza arautu" rako zuzenean bideratuta ez dauden jarduerak egiteko ihes-denbora edo denbora bakarra baita.

**DENBORAREN KUDEAKETA  
ASTEBURUAN**

## 4.4.2

Atal honen helburua gaur egun gure autonomia-erkidegoan bizi diren nerabeen ahalduntzearen edo autonomiarako gaitasunaren zenbait alderdi ezagutzea da, asteburuetako denboraren kudeaketari dagokionez. 14 eta 17 urte bitarteko nerabeek etxera itzultzeko ordu-bete eman behar izatea adierazle horietako bat da. Atal honen bigarren helburu bat da beren etxera beranduagoa itzuli nahi duten edo ez jakitea, kontuan hartzen baditugu gurasoek etxera itzultzeko ezarritako ordua mantentzeko ematen dituzten arrazoiak. Atal honen hirugarren helburua da nerabeek asteburuetan (ostiral eta larunbatetan funtsean) beranduago itzultzeko zer estrategia erabiltzen dituzten jakitea. Beranduago itzultzeko arrazoiak da nerabeek denbora gehiago egon nahi dutela gizarte-harremanetarako familiaz kanpoko lekuetan.


## ETXERA ITZULTZEKO ORDUA

4.22. grafikoan gure autonomia-erkidegoko nerabeek etxera itzultzeko sei aukerak ageri dira, handienetik txikienera ordenatuta (ehunekoetan adierazita), "guztira" zutabearen emaitzen arabera.

"22:00ak eta 00:00ak artean" da nerabe gehienak etxera itzultzen diren ordua, eta argi dago neskek mutilek baino ordutegi murriztagoa dutela. Izan ere, itzultzeko ordu tarte handitzen den heinean, neska gutxiago ageri dira. Beraz, gizarte-harremanak izateko denbora gutxiago dute.

Horrek esan nahi du 14-17 urte bitarteko neskek denbora gutxiago dutela beren adin bereko mutilek baino leku berdinetan egoteko. Hala ere, adierazi behar dugu "itzultzeko ordurik ez" duten nerabeen ehunekoa oso antzekoa dela nesken nahiz mutilen kasuan (25).

### 4.22. GRAFIKOA. Nerabeak asteburuetan etxera itzuli behar diren ordua, sexuaren arabera. Ehunekoak.




(25) "Gainerakoak" kategoriak bi hauek barne hartzen ditu: Ez naiz lagunekin ateratzen eta ED/EE.



## BERANDUAGORA ARTE EGOTEN EZ UZTEKO ARRAZOIAK EUREN USTEZ

Aurrerago adieraziko dugunez, etxera beranduago itzultzea gustatu litzaiekeen pertsonen beren ustez ordura arte ezarritako denbora mantentzeko gurasoek zer arrazoi ematen dituzten galdetu genienean, nerabea "gaztea" dela da argudio nagusia kasu guztietan (%42). Hala ere, 4.23. grafikoan gizarte-kontrol maila desberdina ikus daiteke -kasu honetan familiaren testuinguruan- nerabearen generoaren arabera. Horrela, nesken %37,4k dio etxean ez diotela uzten beranduago itzultzea asteburuetan "bere segurtasunarengatik". Arrazoi bera bigarren postuan badago ere, mutilen kasuan erantzunen %25a baino ez da (26).

**4.23. GRAFIKOA.** Nerabeek etxera beranduago heltzen ez uzteko uste dituzten arrazoiak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



(26) "Gainerakoak" kategoriak hauek barne hartzen ditu: 1) Zigortuta zaudelako; 2) Negoziatzen ez dakizulako; 3) Amak edo aitak autoz ekartzea; 4) Gainerako lagunek itzultzeko ordu bera dute; 5) Beste batzuk; eta 6) ED/EE.


## ETXERA BERANDUAGO ITZULTZEKO INTERESA

Gaur egun gure autonomia-erkidegoan bizi diren 14 eta 17 urte bitarteko nerabeen itzultzeko ordua zein den eta gurasoek ordu horiek finkatzeko emandako arrazoiak jakinda, orain jakin nahi duguna da nerabeek asteburuetan zenbateraino nahi duten etxera beranduago itzultzea, eta baita zer jarduera erabiltzen duten ere edozein dela arrazoa gizarte-harremanetarako leku horietan denbora gehiago egotea eskatzen duten unetan.


4.24. grafikoan, argi ikus daiteke euskal nerabeek ordu bat dutela ezarrita etxera itzultzeko, eta hamarretatik zazpik (%72,7) bere etxetik kanpoko lekuetan egoteko ordutegia luzatu nahi dutela.

Baina adierazlerik esanguratsuena da neska gehiagok nahi dutela itzultzeko ordu hori luzatzea, kontuan hartzen badugu %79,2k neskek asmo hori agertu dutela, %65,9 mutilen aldean. Emaitza horiek generoaren arabera asteburuetan dagoen denbora libre desberdinarekin lotzen badugu, gerta daiteke neskek autonomia handiagoa nahi izatea arautu gabeko denbora edo denbora librea kudeatzeko asteburuetan; gutxienez, belaunaldi bereko mutilek duten beste denbora.

### 4.24. GRAFIKOA. Etxera beranduago itzultzeko interesa, sexuaren arabera. Ehunekoak.



**4.25. GRAFIKOA.** Nerabeei asteburuetan beranduago heltzea gustatuko ez litzaiekeen arrazoiak. Ehunekoak.



Eta nerabearen generoaren arabera denbora libre desberdin horrek azal lezake mutilen %27,4k adieraztea asteburuan etxera beranduago itzultzea gustatuko ez litzaiekeela, nesken %14,8aren aldean. Hori horrela izanik, 4.25. grafikoan ikus daitekeenez, mutilen %21,8k ez du interesik etxera beranduago itzultzeko, baina ordu horretan itzultzen dira "beren lagunak ordu berean egiten dutelako".

Hala ere, grafiko berak erakusten du neskak mutilak baino gehiago konformatzen dira etxera itzultzeko ezarritako orduarekin; izan ere, %67,3rentzat nahikoa da. Baina erantzun "konformista" horien berariazko azterketa egiten badugu, gehienak 22:00ak edo 00:00ak baino beranduago itzultzen direla ikusiko dugu.


**ETXERA BERANDUAGO HELTZEKO  
NEGOZIATZEKO ESTRATEGIAK**

Kontuan hartzen badugu ikerketa honen helburua gure autonomia-erkidegoko nerabeen ahalduntze-prozesuen berri izatea dela, asteburuetan beranduagora arte egotea nahi duten eta uzten ez dioten nerabeei (%72,7ri) normalean gurasoek ezarritako "arauak ez betetzeko" -kasu honetan gizarte-harremanak izateko leku desberdinetan egoteko denbora gaitzeko- normalean zer estrategia erabiltzen dituzten galdetu genien.

4.26. grafikoan ikus daitekeen moduan, hamar estrategia desberdinetatik (27), elkarrizketarako joera handiagoa duten hiru dira zalantzarik gabe ohikoenak eta gehien erabilitakoak nesken kasuan (%83) nahiz mutilenean (%87,3). Hiru horiek hauek dira: "birekin negoziatzen duzu", "zure amarekin negoziatzen duzu" eta "zure aitarekin negoziatzen duzu".

Hala ere, joera orokortu hori alde batera utzi gabe, emaitzei begiratzen badiegu ziur asko lotuta dauden bi kontu aipa ditzakegu: lehendabizi, "elkarrizketaren generoa"n dagoen antzekotasuna, neska asteburuan aisialdia zertxobait luzatzen saiatzen denean, amarengana jotzen duelako hein handigoan. Nesken eta amen arteko elkarrizketa handiago horrek, mutilek neurri handiago batean bi gurasoekin negoziatzen dutelak, amek neskei beranduagora arte egoten ez uztean duten protagonismoa indar lezake. Amek segurtasun arrazoiak ematen dituzte, aurretik aipatu dugunez, kalean "arriskua" dagoelako.

**4.26. GRAFIKOA.** Nerabeek asteburuetan beranduago heldu ahal izateko erabilitako negoziatio-estrategiak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



Kontuan hartu beharreko bigarren alderdi gisa, ehunekoei begiratuta neskek asteburuetan etxera beranduago itzuli nahi dutenean egindako jarduera-estrategien %5,3a bakarrik ekartzen duen arren, nerabeen intereserako aldekoa ez den erantzuna ("eztabaidatzen bukatzen duzu beti") mutilen kasuan baino gehiagotan ageri da.

(27) Grafikoan adierazitako bost horien gain, "gainerakoak" kategorian estrategia hauek barne hartzen dira: 1) Zigorlari gaitzak; 2) Negoziatzen ez dakizulako; 3) Amak edo aitak autoz ekartzea; 4) Gainerako lagunek itzultzeko ordu bera dute eta 5) Beste aukera batzuk.

Bestelakoan artean, gerta daiteke estrategia horren arrazoia neskek gaur egun asteburuetan leku publikoan egoteko mutilek baino denbora gutxiago dutela izatea. Eta desberdintasun egoerek norberaren autonomiaren aldeko erantzunak sortzea ekar dezakete.

## KIDeko TALDEEN ESPARRUA

# 4.5

Kontuan hartzen badugu kideko taldeekin egindako gizarte-jarduerek nerabezaroan nahiz portaeretan duten eragina, atal honetan esparru jakin horretarako bideratutako galdeketa-  
ren galderen emaitzak ageri dira. Gure asmoa da adiskide taldeen osaera (mistoa edo  
homogeneoa, generoaren arabera), nerabeek egunero zer gizarte-jarduera egiten dituzten  
jakitea, eta generoaren arabera, buruzagitza eta ahalduntze estrategien adierazleen zirribo-  
roa egitea.

## KIDeko TALDEAREN OSAERA

# 4.5.1

4.27. taulan, 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1.mailan zeuden EAEko  
14 eta 17 urte bitarteko nerabeen kideko taldeen "izaera mistoa" nagusi dela ikus daiteke  
(%55,5). Badirudi nagusitasun hori handiagoa dela nesken artean (%58,4) mutilen artean  
baino (%52,5), taldearen osaera homogeneoak ("mutilak bakarrik") pisu handiagoa duelako.

**4.27. TAULA.** Lagun-taldearen osaera eta batez besteko adina. Handienetik txikienera  
ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

LAGUN-TALDEAREN OSAERA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	BATEZ BESTEKO ADINA
Mistoa	58,4	52,5	55,5	15,66
Mutilak bakarrik	1,0	46,7	23,5	15,63
Neskak bakarrik	40,1	0,5	20,6	15,90
ED/EE	0,5	0,3	0,4	
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Atal honetan bi kontu identifikatzea dugu helburu: nerabeen eguneroko gizarte-jarduerak, eta horien barruan, zenbateraino ageri diren genero-desberdintasunak.

Galdeketaren 23. galderak helburu bikoitz hori zuen, eta parte hartu zuten pertsonen zuzpi gizarte-jarduerak zer maiztasunarekin egiten zuten eskatu genien. 4.28. taulan, emaitza hauek ageri dira, handienetik txikienera ordenatuta "askotan" zutabearen oinarriturik. Argi dago "kalean, parke batean edo bestelako leku publikoetan" egotea nerabeen %30,4k "askotan" egiten duten jarduerak bat dela. Jarduera horren atzetik kokatuko lirateke ehuneko adierazgarriak jasotzen dituzten beste bi jarduerak: "parrandan ibiltzea", %20,0rekin eta "kirolen bat egitea", %16,9rekin.

Gainerako lau jardueretan, beste erantzun kategoriek "askotan" aukerak baino ehuneko handiagoak dituzte. Eta horietatik ondorio hauek atera ditzakegu: lehendabizi, euskal nerabeen kideko taldeen orientazio eskasa "elkarte edo talde batean parte hartzeko", ez bakarrik "inoiz ez" aukerak duen pisuarengatik (%34,5) baizik eta baita jarduerak horri buruz duten "ezjakintasuna" aukeraren ehunekoarengatik ere (%40,4). Bigarrenez, nabarmendu behar da "lokal (lonja) batean egotea" jarduerarik ez dagoela nerabeen artean. Eta hirugarren eta laugarren postuetan, aurreko bietan ez bezala, "tabernatan, kafetegietan egotea" eta "merkataritza-guneetara edo denda-eremuetara joatea" aukerak dira nerabeek "batzuetan" egiten dituztenak.

### 4.28. TAULA. Nerabeen gizarte-jarduerak kideko taldean. Handienetik txikienera ordenatuta "askotan" zutabearen arabera. Ehunekoak.

JARDUERAK KIDEXO TALDEAREKIN	INOIZ EZ	OSO GUTXITAN	BATZUETAN	ASKOTAN	ED/EE
Kalean, parke batean edo bestelako leku publikoetan egotea	0,8	4,7	12,2	30,4	5,3
Parrandan ibiltzea (diskotekan, litroak edatea, ...)	6,6	9,8	17,1	20,0	2,1
Kirolen bat egitea	8,6	15,4	14,9	16,9	10,6
Tabernatan, kafetegietan...egotea	10,1	20,6	16,6	11,5	10,6
Lokalean (lonjan, ...) egotea	36,1	10,6	5,5	9,5	24,5
Merkataritza-gune edo denda-eremuetara joatea	3,3	18,6	27,1	8,4	6,4
Elkarte, talde edo bestelako batean parte hartzea	34,5	20,3	6,5	3,2	40,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Emaitza orokorrak azaldu eta gero, eta aurretik erabilitako eredu berari jarraiki, 4.29. taulan gizarte-jarduerak horietan dauden genero-desberdintasunak ageri dira. Neskek nahiz mutilek "askotan" egiten dituzten hiru jardueretan taldeko portaera berdina edo zeharkakoa ikus daiteke: "elkarte, talde batean parte hartzea..." eta "lokalean (lonjan) egotea", bi kasuetan

maiztasun txikiarengatik, eta azkenik, lehen posizioa bi kasuetan: "kalean, parkean edo bestelako leku publikoetan egotea".

Genero-desberdintasun handiak ikus daitezke, aldiz, "kirolen bat" askotan egitean. Jarduera hori argi dago belaunaldi honetan mutilen artean nagusi dela, eta neska gehiago daudela aukera honetan: "parrandan ibiltzea", "tabernatan, kafetegietan egotea" eta "merkataritza-guneetara edo denda-eremuetara joatea".

Kideko taldearen osaeraren arabera, gizarte-jarduera hauetan zer desberdintasun egon daitezkeen jakitea informazio interesgarria izan daiteke. Eta bestelako alderdien artean, 4.30. taulan aurretik adierazitako zenbait genero-desberdintasun indar daitezke. Horrela, mutilez bakarrik osatutako taldeek askotan "kirolen bat" egiten dute, talde mistoek baino gehiago, eta batez ere neskez bakarrik osatutako taldeek baino gehiago. Eta azken motatako talde horren barruan, "parrandan ibiltzea", "tabernatan, kafetegietan egotea" eta "merkataritza-guneetara edo denda-eremuetara" joatea aukerak maiztasun handiagoarekin egiten dira kideko taldeak mistoak direnean, eta mutilak bakarrik direnean.

**4.29. TAULA. Nerabeek kideko taldean "askotan" egindako gizarte-jarduerak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.**

KIDEKO TALDEAREKIN "ASKOTAN" EGITEN DIREN JARDUERAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Kalean, parke batean edo bestelako leku publikoetan egotea	29,2	31,8	30,4	- 2,6
Parrandan ibiltzea (diskotekan, litroak edatea, ...)	24,1	15,6	20,0	8,5
Kirolen bat egitea	14,5	25,5	16,9	-11,0
Tabernatan, kafetegietan...egotea	11,8	8,3	11,5	3,4
Lokalean (lonjan, ...) egotea	9,1	11,1	9,5	- 2,0
Merkataritza-gune edo denda-eremuetara joatea	8,0	4,8	8,4	3,2
Elkarte, talde edo bestelako batean parte hartzea	3,5	3,0	3,2	0,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**4.30. TAULA.** Nerabeek kideko taldean "askotan" egindako gizarte-jarduerak, talde motaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

KIDAKO TALDEAREKIN "ASKOTAN" EGITEN DIREN JARDUERAK	MISTOA	MUTILAK BAKARRIK	NESKAK BAKARRIK	GUZTIRA
Kalean, parke batean edo bestelako leku publikoetan egotea	30,3	33,2	28,5	30,5
Parrandan ibiltzea (diskotekan, litroak edatea, ...)	20,4	14,1	25,0	20,0
Kirolen bat egitea	16,0	27,4	8,2	16,8
Tabernatan, kafetegietan...egotea	12,0	7,0	14,9	11,5
Lokalean (lonjan, ...) egotea	9,1	11,7	8,2	9,5
Merkataritza-gune edo denda-eremuetara joatea	8,9	3,7	12,0	8,4
Elkarte, talde edo bestelako batean parte hartzea	3,4	2,9	3,2	3,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**NERABEAK KIDAKO TALDEAN DUEN AHALDUNTZEAREN ADIERAZLEAK**


## 4.5.3

Galdeketaren hiru galderak gure autonomia-erkidegoan bizi diren nerabeen ahalduntze-adierazleak identifikatzen saiatu ziren, betiere kideko taldearen barruan. Bagenekin zail izango genuela informazio orokorra eskatzen genielako inkestatutako pertsoneri, ziur asko, une eta egoera jakinen arabera nabardurak aurkitzen dituenen, 4.27. grafikoan nerabeak kideko taldearen barruan "planen bat" egiten duenean zer posizio duen ikus daiteke. Eta posizio horren "erlatibotasuna" argi ikus daiteke grafikoan bertan; izan ere, %84,0k taldearen barruan "posizio normal"tzat jotzen dutelako; hau da, banakoaren planteamenduak "batzuetan" kontuan hartzen dira, eta beste "batzuetan", aldiz, ez. Beraz, talde-dinamikaren barruan beste bat gisa hartzen da (28).

(28) "Gainerakoak" kategorian hiru erantzun posible hauek barne hartzen dira: "beti egiten da zuk esan duzuna", "ez da inoiz hartzen zeuk proposatutakoa", eta "ED/EE".



**4.27. GRAFIKOA.** Nerabearen jarrera kideko taldean planen bat egiten denean. Ehunekoak.




Illo honetan, nerabeei kideko taldeak azkenean eurak ados ez dauden plana egiten duenean zer erantzuten duten galdetu genien. Eta aurreko galderan ez bezala, gehiago zehaztutako galderak ditugu, bakoitzaren erantzunak identifikatzen baitira, maila desberdinetan taldearen erantzunak onartzen dituztenak; zehazki, bi erantzunetatik ia batean. Horrela, 4.28. grafikoan ikus daitekeenez, %38,1a "(taldeak) idea aldatzea saiatzen" da, eta %11,4k "ez dio jaramonik egiten gaiari". Zalantzarik gabe, hitz egiteko joerarik txikiena duen erantzuna da, baina azken batean autonomoki erabakiak hartzeko gaitasuna erakusten du (29).

Gainera, "erantzunen" antzekotasuna ikus daiteke nesken nahiz mutilen kasuan; hala ere, neskak hobeto moldatzen dira taldearen erabakira (nesken %48,1ek dio "ez dagoela guztiz ados baina onartzen duela"), eta mutilen kasuan "erantzun individualistagoa" antzeman daiteke (mutilen %13,1ek "ez dio jaramonik egiten").

Erabakitzeko gaitasun autonomoa baina hitz egiteko asmoa izan zuten nerabeei, hots, nerabeen %38,1i (nesken %37,3 eta mutilen %39), "(kideko taldeak) ideia aldatzea saiatzen direnei", ideia aldatzen saiatzeko zer estrategia erabiltzen zituzten eta arrakasta bazuten galdetu genien.

(29) "Gainerakoak" kategorian bi erantzun posible hauek barne hartzen dira: "beti egiten duzu besteek esandakoa" eta "ED/EE".

**4.28. GRAFIKOA.** Nerabearen jarrera kideko taldean planen bat egiten denean, eta Ados ez dagoenean. Ehunekoak.



4.31. taulan emaitza orokorrak ageri dira, eta argi dago nerabeen autonomia honetan jarre-  
ra proaktiboek duten garrantzia; izan ere, "beste aukera" edo ordezko batzuk proposatzen  
dira taldearen barruan sortutako jarduera-planerako. Oso bestelakoa da jarrera proaktibo  
eta elkarriketatzailer horren eraginkortasuna; izan ere, ikus daitekeenez, hamar egoeretatik  
bederatzitan aukera hori "batzuetan" bakarrik kontuan hartzen da.

Eta kideko taldearen planteamenduaren logikaren aurrean erabakitzeke gaitasunaren estra-  
tegien arrakastan edo eraginkortasunean genero-desberdintasunik aurkitu ez baditugu ere,  
ezin dugu esan gauza bera garatutako estrategiei buruz. 4.32. taulan ikus daiteke neskek  
mutilek baino gehiagotan taldeak adierazitakoaren "ordezko planak edo aukerak" propo-  
satzen dituztela, %81,8an, %64,4aren aldean. Horrek, eragina du hitz egiteko hainbesteko  
joera ez duten bestelako aukeren pisu erlatiboan.

**4.31. TAULA.** Nerabeek kideko taldeak ideia aldatzeko egindako estrategiak (Ados ez  
dagoen planean). Ehunekoak.

KIDEKO TALDEAK IDEIA ALDATZEKO ESTRATEGIAK	BAI	BATZUETAN	EZ
Beste aukera batzuk proposatuz	6,5	90,3	3,2
Ez du zehazten	8,0	88,0	4,0
Norberaren irteera	4,3	91,3	4,3
Behin eta berriz errepikatuz		95,0	
Protestatuz (baina beste aukerarik ekarri gabe)		100,0	
<b>GUZTIRA</b>	<b>5,7</b>	<b>90,9</b>	<b>3,4</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**4.32. TAULA.** Nerabeek kideko taldeak ideia aldatzeko egindako estrategiak (Ados ez dagoen planean), sexuaren arabera. Ehunekoak.

KIDEKO TALDEAK IDEIA ALDATZEKO ESTRATEGIAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Beste aukera batzuk proposatuz	81,8	64,4	73,1	17,3
Ez du zehazten	5,4	11,4	8,4	- 6,0
Norberaren irteera	5,4	10,1	7,7	- 4,7
Behin eta berriz errepikatuz	5,4	8,1	6,7	- 2,6
Protestatuz (baina beste aukerarik ekarri gabe)	2,0	6,0	4,0	- 4,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**ESPARRU FISIKOA (EDO GORPUTZARENA)**

# 4.6

Bagenekin atal honen izena ez zela guztiz egokia, baina gorputzak parte hartzen duen esparruan nerabeen ahalduntzearen adierazpen desberdinak zein diren jakitean atal honetan ageri diren hiru informazio-dimentsio nagusietarako lotura lortuko genuke.

Horrela, lehen alderdian, gure autonomia-erkidegoan bizi diren 14 eta 17 urte bitarteko pertsonentzat norbera zaintzeak duen garrantzia azpimarratzen da. Zaintzeko jarduera horien barruan egongo lirateke osasunarekin eta irudiarekin zerikusia duten gaiak, eta baita beste pertsonak nerabearen gorputzean maila desberdinetan sartzeko ekintzak identifikatzeko jarduerak ere.

Nerabeen arteko afektibitate-harremana izango litzateke atal honen bigarren alderdia. Onartu behar dugu atal propioa izatea merezi dutela, baina informazioa laburtzeko atal honetan sartzea erabaki dugu, non lotura komunak dituzten. Nerabeek arlo honetan bizitako esperientzia jakitea –bikotea badute edo izan badute– da atal honetan adierazleetako bat, baina batez ere eurek afektibitate-harremani buruz dituzten eredu idealei begiratu diegu. Helburua, afektibitate-harreman hauetan maskulinitate eta feminitate-ereduen oinarri axiologikoak eta erreferentziako zein diren jakitea da.

Nerabeen sexu-harremanen egoera eta izaera jakitea da atal honen azken informazio-dimentsioa. Horrez gain, txosten honen arlorik luzeenetako bat da, eta adin-talde eta funtsezko etapa honen sexualitatearen garrantziari, sexu-harreman motei eta gaur egun arte harreman horien mantendu diren pertsonen buruzko informazio ugari jasotzen da, generoaren arabera, ahaztu gabe nerabeek nahita egiten dituztela jarduera horiek. Bukatzeko, penetrazioa dagoen sexu-harremani buruzko berriazko atal bat dago, non zer adinarekin hasi diren eta prebentzio-metodoak zenbateraino erabiltzen dituzten erakusten baita.

Aurretik adierazi dugunez, lehen atal honetan nerabeak bere burua zaintzeko zer jarduera egiten dituen azaltzen da.


**ZAINTEKO JARDUERAK**

"Zaintzeko jardueren" garapenari dagokionez, nerabeen artean ia ez dago desberdintasunik, eta hori da hain zuzen emaitzarik adierazgarrienetako bat 4.29. grafikoan. Horrela, 14 eta 17 urte bitarteko hamar nerabeetatik bederatzik, zaintzeko zerbait egiten dutela diote; %5,4k ez dela zaintzen dio, eta mutil kopurua zertxobait handiagoa da kasu honetan. Bestalde, "ez daki edo ez du zehazten" aukera hartu dutenek ez dute ematen horren arrazoirik, edo "dagoen bezala ongi (konforme) dagoela" adierazi dute.


Baina nerabeak oro har zaintzea oso esanguratsua den adierazlea da, berez; hala ere, ez du esan nahi generoaren arabera desberdintasunik ez dagoela norbera zaintzeko interesean. 4.30. grafikoa nahiko adierazgarria, eta bizitzaren zikloaren etapa honetan zaintzeko egiten dituzten zenbait jarduera ageri dira. Horretan, bi mutiletatik ia batek (%49,7k) zaintzeko jarduera nagusia "ariketa fisikoa (kirola) egitea" dela uste du; nesken kasuan, aldiz, hiru ekin-tza aipatzen dituzte zaintzeko: "bere irudia zaintzea" (%30,4), "jaten duen gauzetan zaintzea (edo kontrolatzea) (%29,2), eta azkenik, adierazitako "ariketa fisikoa (kirola) egitea" (%28,9).

Beraz nerabezaroan interes orokortua edo genero arteko interesa dago norbera zaintzeko; hala ere, zaintzeko berariazko gizarte-jardueretan desberdintasunak daude generoaren arabera: kirola egitea mutilen kasuan; irudia eta elikadura kontrolatzea nesken kasuan. Horrek ez dio garrantzia kendu behar azken bi jarduera horiek mutilengan duten eraginari; izan ere, mutilen %23,1ek "elikadura kontrolatzea" hautatu zuen eta %21,8k "irudia zaintzea".

**4.29. GRAFIKOA.** Nerabeen zainketa-jarduerak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



**4.30. GRAFIKOA.** BAI. Nerabeen zainketa motak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



## IRUDIA ZAINTEARI BURUZ

Zainketaren alderdietako batera, "irudia zaintzera", berariaz mugatzen bagara, adierazi dugun moduan nerabeen %26,3en kezka dena, nahiz eta neurri handiagoan izan (zaintzeko egiten duten lehen jarduera baita) nesken kasuan (%30,4) mutilen kasuan baino gehiago (%21,8), ikerketa honen helburua azterketa-metodo kuantitatiboan bidez generoaren arabera gure autonomia-erkidegoan bizi diren nerabeen ahalduntze-prozesuen desberdintasunak aurkitzea zen. Horretarako, "irudiaren zaintze" hori nerabeek zenbateraino egiten zuten autonomoki identifikatzen saiatu ginen. Horretarako, galdeketaren 42. galderan, "zure janzteko modua (arropa, hilea...) nork erabakitzen duen" ezagutzea izan zen helburua.

Eta 4.33. taulatik, besteak beste, hiru ondorio hauek atera daitezke: Lehendabizi, janzteko moduari buruzko erabakia –neurri handia batean, irudiari buruzkoa dela esan daitekeena-, gehienbat modu autonomoan ("bakarrik") egin zen adin hauetan (14-17 urte) sexu batean nahiz bestean, %57,3a.

Bigarren alderdi gisa, nabaria da "ama"ren parte-hartzea gorputzari buruzko erabakian. Hain zuzen, erabakitzeko bigarren eragilea bihurtzen da bi sexutan, eta argiago dago mutilen kasuan.

Eta hirugarren alderdi gisa, irudiari buruzko erabakia nesken artean partekatuago dagoen prozesua dela esan daiteke; hala ere, sozializazio hori murriztuagotzat jo daiteke, gehienak emakumezkoak direlako: "ama" (%16) eta "emakumezko lagunak" (%15,2).

### 4.33. TAULA. Nerabeen irudiaren erabakia. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NORK ERABAKITZEN DU ZURE JANZTEKO MODUA	NEKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Bakarrik	54,5	60,7	57,3	- 6,2
Zure amarekin	16,0	20,2	17,9	- 4,3
Emakumezko lagunekin	15,2	3,4	9,9	11,7
Gizonezko lagunekin	4,1	5,4	4,7	- 1,3
Bikotearekin	3,3	4,2	3,7	- 0,9
Anaiarekin	4,0	2,2	3,2	1,7
Zure aitarekin	2,3	3,2	2,7	- 0,9
Beste pertsona batzuekin	0,7	0,6	0,6	0,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>


*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

## OSASUNARI ETA HAREN KUDEAKETARI BURUZ

Norberaren zainketaren beste dimentsio bat aipatuz, galdeketa "osasuna"rekin zerikusia duten beste alderdi batzuk sartu ziren: nerabeek kezka bat izateak eta zainketaren eragile nagusia nor den identifikatzeak, nerabeen ahalduntze-prozesua ezagutzea ahalbidetuko lukete, autonomia fisikoaren (ahalduntzearen) esparruaren barruan osasuna gisako alderdi hain garrantzitsu baten barruan.


Ikerketa honetan aztertu ditugun hamar nerabeetatik seik dio ez duela kezkarik bere osasunarekin. Eta nerabeen %37,7k baietz erantzun dio galdera horri, eta badirudi nesken artean (%40,1) mutilen artean (%35,2) baino kezka handiagoa dela, 4.31. grafikoan ageri den moduan.

**4.31. GRAFIKOA.** Nerabeek "osasuna"reko duten kezka, sexuaren arabera. Ehunekoak.



Osasunean kezka bat dutela adierazten duten nerabeen zirkulu horretara bakarrik mugatuta, 4.32. grafikoaren emaitzen arabera, mutilek autonomia handiagoa dute ahalduntzearen esparru fisiko honetan, norbera zaintzeko ehunekoak ("bere osasunaren zainketaren arduraduna bakarrik") handiagoa da nesken kasuan (%46,4, %38,9aren aldean), eta "beste pertsona batzuk" aukerarena txikiagoa da (%50,0, %55,7aren aldean).

**4.32. GRAFIKOA.** Nerabeen osasunaren zainketaren ardura, sexuaren arabera, osasun kezkaren bat badute bakarrik. Ehunekoak.



Osasunaren aurrean kezkaturik agertzen ziren nerabeei (aurreko grafikoan adierazitako %42,3ri) zainketaren arduradun nagusia nor zen adierazteko eskatu genien. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabetik, 4.34. taulan galdera horren erantzunak ageri dira, non "bi gurasoak" eta "ama" nerabearen eragile ohikoenak baitira osasunarekiko kezka horretan. Kasu honetan, alaba edo semearen osasunaren zainketaren eragile nagusia emakumea-ama dela egiaztatu eta gero, beste baten laguntzarekin edo bakarrik, ez da ikusten desberdintasun handirik nerabearen generoaren arabera galdera honetan. Hala ere, nesken kasuan ama eta emakumezko lagunak agertzen dira.

**4.34. TAULA.** Nerabeen osasunaren zainketaren arduradunak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

OSASUNAREKIKO KEZKAREN BAT IZANEZ GERO ZAINKETAREN ARDURADUNA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Bi gurasoak	49,5	50,7	50,0	- 1,3
Ama	39,8	37,7	38,9	2,1
Aita	3,2	2,9	3,1	0,3
Lagun bat	3,2	1,4	2,5	1,8
Beste pertsona batzu	2,2	2,9	2,5	- 0,7
Medikua	1,1	2,9	1,9	- 1,8
Bikotea	1,1	1,4	1,2	- 0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.




## NERABEAREN GORPUTZEAN SARTZEKO JARDUERAK

Nerabeen gorputzaren esparruarekin zerikusia duen atal honekin bukatzeko, nerabeen gorputzean sartzeko jarduerak azaltzen dira, euren ikuspegitik. Gaia zaila zela kontuan hartuz, eta jazarpen ekintza horien azterketa zehatza egiten saiatu gabe, eskolan bertan –bullying delakoa-, afektibitate-harremanetan –genero-indarkeria- edo familia-harremanen barruan gertatu edo ez, ikerketa hau oinarritutako ahalduntzearen ikuspegitik, adierazgarritasun estatistikoa zuten hiru alderdi hauek identifikatzea egoki iruditu zitzaigun: 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeen artean gorputzaren jazarpen ekintza hauen kopurua; sartzeko jardura hauen adierazpenak; eta azkenik, neskek edo mutilak horien aurrean izandako erantzunak.

Lehen informazio-esparruari dagokionez, 4.33. grafikoan ikus daiteke nerabeen %14,6k "inoiz" bere gorputzari buruzko iritziek gogaituta sentitu dela adierazi duela. Baina haute-mate horretan genero desberdintasunak daude; izan ere, hamar nesketatik bik baino gehiagok (%21,4) gogaituta sentitu direla adierazi dute, adin bereko mutilen %7,6aren aldean. Beraz, bien artean ia 14 puntuen aldea dago.

**4.33. GRAFIKOA.** Nerabeen gorputzean sartzeko ekintzak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



4.35. taulan, nerabeen gorputzari egindako jazarpen-ekintza horiek egiten dituzten pertsonak nor diren ageri da. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabean oinarrituta, nabarmendu behar da eskola-jazarpenaren (bullying) ehuneko handiak, %43,2a, identifika-

tutako hiru eragileak batzen badira: "gizonezko lagunak", "emakumezko lagunak" eta "eskolako pertsona helduak".

Hala ere, gorputzarekin zerikusia duen jazarpenaren eskola-agertokira mugatuta, adierazgarriagoa da mutilen kasuan, kontuan hartzen badugu horrela adierazten dutela hamarretatik seik baino gehiagok, eta genero berdineko "lagunak berak" ageri dira ekintza horien eragile nagusi gisa (%46,5).

Nesken kasuan, aldiz, gogaikarritzat jotako ekintzak banatuago daude eragile desberdinen artean, eta horregatik, baita gizarte-agertoki desberdinen artean ere. Halaber, ekintza horiek normalean eskolan gertatzen dira (%36,8), eta pertsona hauek ere ageri dira: "persona ezezagunak" (%12,0), "beste pertsona batzuk" (%11,3), "bikote ohiak" (%11,3), bizikidetzaren bera ahaztu gabe; izan ere, nerabeen %26,3k etxeko-familiako agertoki honetan gorputzari buruz emandako iritziek gogaituta sentitu direla adierazi dute.

**4.35. TAULA.** Nerabeen gorputzari buruzko iritzi gogaikarriak eman dituzten pertsonen tipologia, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NERABEEN GORPUTZARI BURUZKO IRITZI GOGAIKARRIAK EMAN DITUZTEN PERTSONAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Eskolako gizonezko lagunak	22,6	46,5	28,4	-24,0
Eskolako emakumezko lagunak	12,0	14,0	12,5	- 1,9
Pertsona ezezagunak	12,0	7,0	10,8	5,1
Bikote ohiak	11,3	7,0	10,2	4,3
Neba-arrebak	10,5	4,7	9,1	5,9
Beste pertsona batzuk	11,3	2,3	9,1	9,0
Aita	6,8	7,0	6,8	- 0,2
Ama	6,0	2,3	5,1	3,7
Gaurko bikotea	2,3	4,7	2,8	- 2,4
Beste familiar batzuk	3,0	2,3	2,8	0,7
Eskolako pertsona helduak	2,3	2,3	2,3	- 0,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Beste pertsonak bere gorputzari buruz emandako iritziek gogaituta sentitu direla dioten nerabeei jazarpen edo gogaitze hori nola burutzen zen adierazteko eskatu genien. Oro har, zaila da alderdi desberdin horiek galdeketa batean zehaztea, eta oraingo honetan ez dago zalantzarik gaiak eta talde hartzaileak eragina izan dutela ekintza gogaikarri horien tipologia-ri buruzko erantzunen kalitatea guztiz onargarritzat ez hartzeko.

Hala ere, 4.36. taulan, galdeketaren 51. galdearen erantzun irekien kategorizazioaren emaitzak ageri dira, handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ekintza

horien definizio eza da gertaerarik adierazgarriena; izan ere, "azalpenak" eta "ez du zehazten" kategoriak batzen baditugu, guztiaren hiru laurdenak baino gehiago gainditzen dituelako (%77,8). Hala ere, "esamesak" identifikatzea gogaitzearen ekintza nagusia da, eta norberaren nortasuna osatzen den nerabeen etapa honetan hitzek duten garrantzia erakusten da.

Eta "hitzek" gogaitzeko duten eginkizun hori, azaldutako jarduera hauetan zehazten da, non pisuari buruzkoak -kasu honetan, beste pertsonak pisuari buruz uste dutena ("lodi deitzen naute", "argaltzeko esaten didate"... ) protagonistak baitira. Mutilen kasuan, "gizonezkoen edertasunaren eredu ideal"etik urrun egotea aipatzen da, gihar faltagatik eta baxuak izateagatik.

**4.36. TAULA.** Nerabeen gorputzari buruzko zenbait ekintza, gogaikarritzat jotzen direnak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NERABEEN GORPUTZARI BURUZKO ZENBAIT EKINTZA, GOGAIKARRIAK JOTZEN DIRENAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Azalpenak	38,6	43,2	39,8	- 4,6
Ez du zehazten	43,3	22,7	38,0	20,6
Pisua (lodi deitzen naute, argaltzeko esaten didate,... )	5,5	15,9	8,2	-10,4
Beste ekintza batzuk	6,3		4,7	6,3
Jelosia	3,1		2,3	3,1
Irainak	3,1		2,3	3,1
Gihar falta		9,1	2,3	- 9,1
Altuera falta		4,5	1,2	- 4,5
"Burua jaten didate"		4,5	1,2	- 4,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

4.37. taulan, nerabeen erantzunak ageri dira, zenbait agentek zenbait ekintza egin eta nerabeek gogaikarritzat jotzen edo bere gorputzarekin sartzan ari direla hautematen dutenean. Ahalduntzearen barruan, kasu honetan esparru fisikoaren barruan, argi dago informazio horri esker, ekintza-erantzun prozesuen zenbait adierazle adierazgarri jakin ditzakegula, berez nerabeenak diren autonomia-borondateko adierazpen eta erabaki hartze gisa.

**4.37. TAULA.** Nerabeen erantzunak beren gorputzari buruzko ekintzen aurrean, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NERABEEN ERANTZUNAK BEREN GORPUTZARI BURUZKO EKINTZEN AURREAN	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Ez du zehazten	42,5	27,8	39,3	14,7
Defendatzen da	28,3	27,8	28,2	0,6
Islitzen da	11,8	11,1	11,7	0,7
Paso egiten du	7,9	11,1	8,6	- 3,2
Beste pertsonekin hitz egiten du	7,9	11,1	8,6	- 3,2
Kirola egiten du (argaltzeko)	0,8	8,3	2,5	- 7,5
Argitzen saitzen da	0,8	2,8	1,2	- 2,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

"Ez du zehazten" erantzunen ehunekoaren interpretazio hipotesi gisa, bestelako iturri batzuek egiazta ditzaten, inoiz bere gorputzari buruzko iritziek gogaituta sentitu direla adierazten duten nesken erantzunen emaitzek (gogoratu behar dugu %21,4 zirela) iradoki dezakete egoera horien aurrean duten erantzun maila txikiagoa dela mutilen aldean. Nesken erdiak baino zertxobait gehiagok "ez du zehazten" nola erantzuten duen ekintza horien aurrean (%42,5). Horrek esan nahi lezake isilik geratu direla, hots, "isiltzen direla" (%11,8), eta erantzun horiek mutilen kasuan gutxiago dira.

## **AFEKTIBITATE-HARREMANAK 4.6.2**

Atal honetan bi alderdi aztertzen dira: batetik, nerabeek bere jardura biografikoan afektibitate-harremanen arloan bizitako esperientzia maila ezagutzea, gaur egungo edo lehenengo bikote baten esperientziaren bidez egindakoa; bestetik, nerabeen iritzia zein izango diren jakitea, afektibitate-harremanen erduei edo motei buruz hitz egiten duten zazpi esaldien inguruan. Horren asmoa da ondorioak ateratzea gaur egun, eta ziur asko, etorkizunean helduak direnean, harreman mota horiek eusten diren oinarrietan.


### **BIKOTEA EGOTEA EDO EZ**

Gaur egun nahiz duela gutxi bikotea duten edo ez ezinbesteko galdera zen ikerketa honetan. Gainera galdera honek garrantzia adierazgarria du; izan ere, horretatik zenbait interpretazio ondoriozta daitezke autonomia fisikoaren (edo gorputzaren) esparru honetan barne hartzen diren beste edozein emaitzetan, hipotesi gisa, "zuzeneko esperientzia izatea edo aurretik dagoeneko izatea" eta "inoiz ez izatea" ez direlako gauza bera bikote-harremanen

“eredu idealei” buruzko iritziak edo balorazioak egiteko. Horri buruz arituko gara atal honetan bigarren zatian.


4.34. grafikoan ikus daiteke parte hartu duten nerabeen %64k bikotea dutela edo izan dutela diotela. Horrez gain, berariazko gizarte-harreman (bikote harreman) mota hau, 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko 14 eta 17 urte bitarteko neskek gehiago bizi izan dute (%65,7) mutilek baino (%62,1).

**4.34. GRAFIKOA.** Bikotea sortzea nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoak.



“Kideko taldearen osaera (edo mota)” aldagaiak zenbateraino ekartzen duen azalpenezko elementuren bat euskal nerabeen bikote-harremanen esperientzian jakin nahirik, 4.35. grafikoan “talde misto bateko kidea izatea”k bikote-harreman bat izaten laguntzen duela ikus daiteke; izan ere, mota horretako talde batean duen nerabeen %59,1ek dio harreman bat duela edo izan duela. Mutilez bakarrik osatutako taldeek, aldiz, badirudi bikote-harremanak izateko aukera gutxiago dituztela. Hori ondorioztatu dugu "bikoterik ez duen edo izan ez duen" zutabearen %29,5ek erantzun hori eman dutelako.

**4.35. GRAFIKOA.** "Kideko" talde motak nerabeen artean, bikotea egon edo ez. Ehunekoak.



Baina aldagaien erlazio hori adierazgarria bada ere, ez du erabat argitzen fenomeno; izan ere, informazioa biltzeko teknika (kuantitatibo) honen bidez ezin baita jakin lehendabizi taldea -kasu honetan mistoa- sortzen den, eta gero bikote-harremana, edo alderantziz: lehendabizi bikote-harremana, eta horren ondoren neskez eta mutilez osatutako kideko taldea. Hipotesi gisa bakarrik, ikertzaile talde hau 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko eukal nerabeen talde bateko kide izateko bigarren prozesu honen alde dago, non bikote-harremana hastearen ondorioz bikotea osatzen duten bi pertsonetako baten lagunen artean afektibitate harremana izango lukeen. Afektibitate-harreman gehienetan, "gizarte-dimentsio erantsia" izango litzateke, aurrerago gertatzen diren bestelako gizarte-dimentsioekin bat, bikote-harreman hauetako batzuk denboran irauten duten, aurkezpenaren bidez lehendabizi eta -dena ondo badoa- bikotearen kideetako baten familia-unitateetan sartuz (maila desberdinean).

### **AFEKTIBITATE-HARREMANEN EREDUAK**

14 eta 17 urte bitarteko nerabeei afektibitate-harremanak ulertzeko modu desberdinekin zerikusia duten zazpi esaldirekin ados zeuden edo ez galdetu genien. Eraitza horiek, hein batean, gaur egun gure autonomia-erkidegoko nerabeen artean indarrean dauden afektibitate-harremanen eredutzat har litezke.

4.38. taulan, nerabeen emaitzak ageri dira, non galderak "ez zaude ados" eta "ados zaude" artean bereizi genituen. Daturik adierazgarrienetako bat da bikotearen pertsonetako baten banakotasunaren "sakrifizioan" oinarritutako harreman-ereduarekin dagoen desadostasun

maila handia. Horrela, nerabeen %75 ez dago ados (uko egitearen) hiru jarduera hauekin: "bikotea duzuean garrantzitsuena da; lagun-taldeak ez du hainbeste garrantzirik", "gatazkak saihesteko hobe da zure bikoteari gustatzen zaizkion jantziak jartzea", eta "familia izango bazenu, lana utziko zenuke eta etxean geratuko zinateke".

#### 4.38. TAULA. Nerabeen iritzia afektibitate-harremanei buruz. Ehunekoak.

AFEKTIBITATE-HARREMANEI BURUZKO IRITZIAK	EZ ADOS	ADOS	ED/EE
Normala da jeloskor egotea maiteminduta zaudenean.	25,0	69,7	5,3
Bikotea duzuean garrantzitsuena da; lagun-taldeak ez du hainbesteko garrantzirik dagoeneko.	72,4	22,2	5,4
Garrantzitsua da zaren bezala agertzea, bikotea ongi egoteko.	6,0	91,3	2,7
Gatazkak saihesteko hobe da zure bikoteari gustatzen zaion arropa jartzea.	78,7	16,8	4,5
Normala da zure bikotearen sakelako telefonoari begiratzea "adarrak jarri dizkizula" uste baduzu.	60,9	32,6	6,5
Nahiz eta maiteminduta egon ez diozu uko egin behar zuk uste duzunari.	14,2	75,9	9,9
Familia bat izango bazenu, lana utziko zenuke eta etxean geratuko zinateke.	74,0	12,6	13,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>47,3</b>	<b>45,9</b>	<b>6,8</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Bikote-harremanaren "uko egitearen" ereduaren aurka daude nerabe gehienak, eta bikotearen pertsona bakoitzaren "zuzentasunean" edo "banakotasunaren defentsan" oinarritutako eredu baten alde agertzen dira. Horrela, nerabeen %91,3 guztiz ados daude aukera honekin: "zaren moduan egon behar zara bikotea ongi egoteko". Bestalde, nerabeen ia %76 aukera honekin dago ados: "nahiz eta maiteminduta egon ezin diozu uko egin zuk uste duzunari".

Azkenik, eta "bikotekideen berdintasunean" oinarritutako bikotearen eredia defendatzen duen eredu nagusi edo orokortu hori kontuan hartuz, zenbait zalantza ditugu zenbait ekin-tzetik; izan ere, eredu "posesiboa" antzeman daiteke. Batetik, %69,7 ados dago edo normaltzat jotzen du "maiteminduta zaudenean jeloskor jartzea", baina ez dago ados (%60,9) "zure bikotearen sakelako mugikorrari begiratzea"rekin, "adarrak jarri dizkizula uste baduzu".

"Ados" zutabeko emaitzei bakarrik begiratuta, baina sexuaren arabera bereiziz, 4.39. taulak zenbait desberdintasun erakusten ditu iritzi horietan. Horrela, bistakoa da "uko egitearen eredia" estaldura handiagoa duela mutilen artean nerabezaroan; izan ere, eredu hori adierazten duten hiru ekintzetan ("bikotea duzuean garrantzitsuena da; lagun-taldeak ez du hainbeste garrantzirik", "gatazkak saihesteko hobe da zure bikoteari gustatzen zaizkion jantziak jartzea", eta "familia izango bazenu, lana utziko zenuke eta etxean geratuko zinateke") "ados" agertzen diren ehunekoak "mutilak" zutabean "neskak" zutabean baino nabarmen handiagoak dira. Horren ondorioz, neskak "ados"tasun maila handiagoa dute "berdintasunezko" eredian sartzen diren ekintzekin.

Emaitza hauen arabera, esan genezake ekintza "posesiboek" estaldura handiagoa dutela nesken artean; izan ere, nesken %36,3 ados egongo litzateke aukera honekin: "zure bikotearen sakelako mugikorrari begiratzea adarrak jarri dizkizula uste baduzu."

#### 4.39. TAULA. Nerabeen "aldeko" iritziak afektibitate-harremanen barruan, sexuaren arabera. Ehunekoak.

AFEKTIBITATE-HARREMANEI BURUZKO IRITZIAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Normala da jeloskor egotea maiteminduta zaudenean.	70,5	68,9	69,7	1,6
Bikotea duzunean garrantzitsuena da; lagun-taldeak ez du hainbesteko garrantzirik dagoeneko.	15,6	29,0	22,2	-13,4
Garrantzitsua da zaren bezala agertzea, bikotea ongi egoteko.	92,2	90,3	91,3	1,9
Gatazkak saihesteko hobe da zure bikoteari gustatzen zaion arropa jartzea.	9,1	24,8	16,8	-15,7
Normala da zure bikotearen sakelako telefonoari begiratzea "adarrak jarri dizkizula" uste baduzu.	36,3	28,7	32,6	7,6
Nahiz eta maiteminduta egon ez diozu uko egin behar zuk uste duzunari.	79,1	72,6	75,9	6,5
Familia bat izango bazenu, lana utziko zenuke eta etxean geratuko zinateke.	7,3	18,0	12,6	-10,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>44,3</b>	<b>47,5</b>	<b>45,9</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Azkenik, 4.40. taulan, ez da antzeman desberdintasun handirik nerabeen emaitzen artean, eta berariaz une honetan afektibitate-harreman bat ("bikotea") duten nerabeetara mugatzen direnetan. Esan daiteke afektibitate- edo bikote-harreman batean bizitako esperientziak bi alderdi hauek indartzen dituela: Bikotekide bakoitzaren zuzentasuna eta banakotasuna sustatzen duten jardueren garrantzia, kontuan hartzen baditugu erantzun hauen ehuneko handiak: "zaren moduan egon behar zara bikotea ongi egoteko" eta "nahiz eta maiteminduta egon ezin diozu uko egin behar zuk uste duzunari"; eta bikotearen esperientziak zentzu posesiboa handitzen duela dirudiela, "jelosien" bidez, bikotea duten nerabeen %72,7 ados dagoela horrekin, guztira zutabeen adierazitako %69,7aren aldean.

#### 4.40. TAULA. Bikotea duten edo izan duten nerabeen iritziak afektibitate-harremanen barruan. Ehunekoak.

AFEKTIBITATE-HARREMANEI BURUZKO IRITZIAK	EZ ADOS	ADOS	ED/EE
Normala da jeloskor egotea maiteminduta zaudenean.	23,8	72,7	3,4
Bikotea duzunean garrantzitsuena da; lagun-taldeak ez du hainbesteko garrantzirik dagoeneko.	73,5	23,6	2,8
Garrantzitsua da zaren bezala agertzea, bikotea ongi egoteko.	5,4	93,0	1,6
Gatazkak saihesteko hobe da zure bikoteari gustatzen zaion arropa jartzea.	81,2	16,0	2,8
Normala da zure bikotearen sakelako telefonoari begiratzea "adarrak jarri dizkizula" uste baduzu.	57,9	37,3	4,8
Nahiz eta maiteminduta egon ez diozu uko egin behar zuk uste duzunari.	14,0	78,2	7,8
Familia bat izango bazenu, lana utziko zenuke eta etxean geratuko zinateke.	74,1	11,4	14,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>47,2</b>	<b>47,5</b>	<b>5,4</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.



Nerabeen artean sexu-harremanen egoeraz eta ezaugarriez interesa agertzea, pentsa daitekeen moduan kontu konplexua da. Ikerketa aplikatu askok, teknika kuantitatiboak –hau bezalakoak– nahiz kualitatiboak erabili arren, hori erakutsi dute behin eta berriz.

Baina oker egongo ginateke konplexutasun hori nerabezaroaren edo belaunaldi honen sexu-harremanei buruzko ezagutzara eramango bagenu; izan ere, "sexua" k ikerketa-esparru irristakorra izaten jarraitzen du, eta mito nahiz aurreiritzi ugari ditu.

Illo horretan, eta dagokigun esparruan, adierazi behar dugu EAEn bizi diren nerabeen sexu-harremanei buruzko ezagutzarekin lotutako galdeketaren galderek arazo nagusiak ekarri dituztela grabazioan, kodetzean eta geroko azterketan. Hori horrela, erantzunetan adostasun eza tekniko ugari aurkitu ditugu –alegia, dauden iragazkiak ez dira bete-, eta horren ondorioz, ikastetxeetako geletan arloko lana egiten ari ginen bitartean burututako galdeketak ugari ez ditugu kontuan hartu.

Hala ere, erantzunen adostasun ezaren arazo horiek ez dira oro har gertatu; baizik eta aldearantziz, "mutil" ek egindako galdeketan egon dira gehienbat. Ondoriozta dezakegu mutilek "lotsa handiagoa" dutela bere sexu-egoerari buruzko informazioa emateko, eta nahiz eta ikerketa honetan sortutako "testuingurua" egokia izan; izan ere, galdeketan iraulitako informazio kuantitatiboaren tratamenduan anonimata eta konfidentzialtasuna sustatzen zen, nork bere burua identifikatzeko galderarik ez zegoelako.

Baina gizonen sexu-portaeraren inguruan dauden gizarte- eta kultura-aurreiritziek eragina izaten jarraitzen dute, eta erantzunetan objektibotasuna bilatzeko egokienak diren testuinguru zientifikoak gaintzeko gai dira; baita gure autonomia-erkidegoko 1991. eta 1994. urteen artean jaiotako mutilen artean egoten jarraitzeko gai ere.

Eta mutilek bere sexu-harremanei buruzko informazioa eman behar dutenean dagoen "maskulinitate eredu" horretara mugatuko gara; izan ere, adin eta belaunaldi bereko neskek ez dute kezka hori gai horretako "errealitatea" ezkutatzeko edo uko egiteko.


Halaber, badirudi une egokia dela zer erantzun-mota eman dituzten adierazteko; hots, euskal nerabeei "sexualitateari" edo "sexu harremanei" buruz galdetzen genien galderen emaitza zehatzak emateko. Galdera hauek "zentzu zabalean" hartu genituen, galdeketan nahiz nerabeei aurkezteko "briefing" ean kontzeptu zabal hori islatu nahirik. Egindako galdeketekin –"sukaldeko lana" denarekin– lortutako informazioa laburtu eta aztertu eta gero, argi geratu da nerabeek "sexu-organoak kontuan hartzen dituztela sexualitateari buruz hitz egitean".

Ikerketa honetan egiaztatu dugu "sexualitate" hitza erabiltzen dutenean "penetrazioa" rekin lotzen dutela. Eta sexu-harremanen eta penetrazioaren arteko erlazio positibo horren egiaztatze enpirikoak –gaur egun, sexualitateari buruz euskal nerabeek duten iritzi mugatua berretsiz– eragina izan du teknikoki koherentziarik ez duten galdeketaren galdera desberdinei emandako erantzunak aurkitzean, zehazki "ez zuten sexu-harremanik" aukera erantzuten zutenean galdeketaren 46. galderan, nahiz eta aurrerago pertsona berek adierazi penetratuz gabe sexu-harremanak izan dituztela edo laztandu direla adierazi.

## SEXUALITATEAREN GARRANTZIA (ZENTZU ZABALEAN)

Aurretiko testuinguru hori adierazita, gure ustez balio analitiko adierazgarria duena, 4.36. grafikoa euskal nerabeen eguneroko bizitzan sexualitateak (zentzu zabalean ulertuta) duen garrantziaz hitz egiteko erabil dezakegu. Gure ustez, lau izango lirateke alderdirik garrantzitsuenak: lehendabizi, inkestatutako hamar nerabeetatik hiruk baino gehiagok (%31,6) dio "(sexuan) pentsatzen duela, baina ez duela egiten".

**4.36. GRAFIKOA.** Sexualitatearen garrantzia nerabeen artean, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. (Erantzun anitza).



Hala ere, ziur asko, gaitera emaitzak baldintzatzen ari den erantzuna neska eta mutilen arteko diferentzia da "norberak praktikatzea"ri dagokionez; izan ere, mutilen kasuan lehen jarduera da bosten artean (%30,5); nesken kasuan, aldiz, laugarren postuan dago (%5,4). Emaitza hauei begira esan genezake mutilen artean sexu-jarduera nagusia masturbatzea dela; izan ere, 2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko gure autonomia-erkidegoko mutilen %86k erantzun hori eman zuten.


Horrek ere "(sexua) une honetan pentsatzen (eta beraz egiten) ez dudan gauza da" erantzunaren ehunekoa baldintzatzen du nesken kasuan; izan ere, nesken %28,7k erantzun hori eman zuen, mutilen %14,5aren aldean.

Eta azkenik, 4.36. grafikoan interesa duen beste datu ageri da: gure autonomia-erkidegoan bizi diren nerabeek ia ez dute "Internet" erabiltzen sexualitatearekin zerikusia duten jardueretarako, %2,4 emaitza hauen arabera. Hala ere, mutilak dira gehienbat erabiltzen dutenak; izan ere, mota horretako jarduerak egiten dituztela adierazi duten hamar pertsonetatik bederatzi mutilak dira. Hala ere, zoritxarrez, kasu gehienetan ez dute zehaztu nola erabiltzen duten sareen sarea, galdeketan galdera irekia eman bagenuen ere.

## SEXU-HARREMANAK EGOTEA EDO EZ

Aurreko emaitzen arabera, neskek, printzipioz, sexu-harreman gutxiago dituzte etapa eta gizarte-testuinguru bereko mutilek baino. Halaber, ez dute mutilek beste pentsatzen sexuan. Baina bereizketa horren arrazoi nagusia da mutilak masturbatzen direla. Eta hori izango litzateke 4.37. grafikoan jarraitu beharreko interpretazio-ildoak; izan ere, nerabeen %43,3k adierazi du sexu-harreman motaren bat duela (zentzu zabalean) eta badirudi neskek (%47,4) esperientzia praktikoa zertxobait handiagoa dutela (ehuneko lau puntu gehiago) mutilek baino, %60,8k "sexu-harremanik izan ez dutela" adierazi baitute.


**4.37. GRAFIKOA.** Sexu-harremanak egotea (zentzu zabalean) nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoak.



## SEXU-HARREMAN MOTAK

2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailako ikasketak egiten ari ziren gure autonomia-erkidegoko nerabeen %43,3k (%47,4 nesken kasuan; %39,2 mutilenean) sexu-harreman motaren bat izan duela adierazi du, eta zer motatako sexu-harremanak ziren galdetu genien. 4.38. grafikoan ikus daiteke "penetrazioa dagoen harremanak" %39,2 direla; oso alde gutxira, "musuak, laztanak..." -"petting leuna" delakoa- aukera dago (%38,7) eta azkenik, "penetratorik gabeko sexu-harremanak", %17,8arekin.

**4.38. GRAFIKOA.** Harreman motak nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoa. Erantzun anitza.



Erantzun anitzeko galdera honetan ageri diren harremanei begiratuta, zenbait desberdintasun dago nerabearen generoaren arabera; izan ere, badirudi penetrazioa dagoen sexu-harremanak eta musuak nahiz laztanak ugariagoak direla nesken artean mutilen artean baino.

14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeen sexu-harremanetan parte hartzen duten eragileak nor diren identifikatu aurretik sexu-harreman moten eta kideko taldearen osaeraren artean dauden loturak aztertzen baditugu generoaren homegeneitate handiagoaren edo txikiagoaren ikuspegitik (neskak bakarrik, mutilak bakarrik, mistoa), talde mistoek planteatutako hiru aldagaietan baiezko ehuneko altuagoak daudela ikus dezakegu. Talde misto bateko kidea izateak adierazitako hiru modalitateetan (penetrazioarekin, penetratorik gabe, eta musuak, laztanak) sexu-harremanak izaten lagunduko luke. Hala ere, sexu-harremanik izan ez duten

nerabeen artean gehien dagoen talde-osaera ere bada; beraz, azalpenezko garrantzi hori murrizten du.

## SEXU-HARREMANETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK

4.41. taulan euskal nerabeen sexu-harremanetan parte hartzen duten zortzi eragile posible ageri dira, "ED/EE" erantzunaren kategoriaren ondoan, handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabetik. Erantzun anitza dela baztertu gabe, bistakoa da sexu-harremanetan eragile nagusia "beste sexu bateko bikote egonkorra (ezkongai)" aukera nagusi dela, nerabeen %57,0ekin. Bigarren lekuan, "beste sexu bateko pertsona ezagun bat" aukera dago, erantzunen %21,4ekin.

### 4.41. TAULA. Nerabeek sexu-harremanak dituzten edo izan dituzten pertsona motak, sexuaren arabera. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NOREKIN IZATEN DITUZU (EDO IZAN DITUZUN) SEXU-HARREMANAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Beste sexu bateko bikote egonkorrarekin (mutil/neska lagunarekin)	65,9	47,8	57,0	18,1
Beste sexu bateko pertsona ezagun batekin	22,3	20,4	21,4	1,9
Gutxi ezagututako edo ezagutu berriak diren beste sexu bateko pertsonekin	4,7	12,4	8,5	- 7,7
Beste sexu bateko pertsona ezagunekin	1,9	10,9	6,3	- 9,0
ED/EE	4,3	4,5	4,4	- 0,2
Zure sexu bereko bikote egonkorrarekin (mutil/neska lagunarekin)	0,9	2,5	1,7	- 1,5
Zure sexu bereko beste pertsona ezagun batekin		1,5	0,7	- 1,5
Zure sexu bereko beste pertsona ezagun batzuekin				
Gutxi ezagututako edo ezagutu berriak diren zure sexuko pertsonekin				
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Emaitzei esker ondoriozta dezakegu mutilak sexu-harremanetan ez direla neskak bezain "fidelak", ez bakarrik "bikote egonkor batekin (ezkongaiarekin)" aukerak ehuneko txikiagoa duelako (%47,8) baizik eta "gutxi ezagututako edo ezagutu berria den beste sexu bateko pertsonarekin" egindako sexu-harremanen nahiz "beste sexu bateko pertsona ezagunekin egindakoen ehunekoa handiagoa delako (%12,4, %10,9aren aldean). Neskek sexu-harremanetan duten "fideltasun handiagoa" batez ere egiaztatzen da "bikote egonkorrera (mutil-laguna)" mugatzen direlako: ia %66.

4.41. taulako emaitzak aztertzen jarraitzen badugu, nabarmendu behar da nerabe hauek izandako sexu-harremanen izaera "ziurra". Horrela, hamarretatik bederatzik dio harremanak dituen edo izan dituzten beste pertsonak "ezagutzen" dituela. Eztabaida daiteke, noski, pertsona bakoitzarentzat zer den pertsona "ezaguna" izatea, eta zalantzarik gabe belaunaldien aurreikuspenen aurka egingo luke, baina une honetan gure autonomia-erkidegoko 14 eta 17 urte bitarteko nerabeen gaur egungo sexu-harremanen berri izatea da helburu. Hala ere, beren sexu-jardueraren izaera burugabea edo buruarina aipatzen duten hitzaldietatik nahiko urrun dago.

Sexu desberdinen arteko sexu-harremanak nagusi dira eta horregatik, bigarren maila batean daude homosexualen arteko sexu-harremanak 2007/08 ikasturtean EAeko ikastetxeetan DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 1991 eta 1994. urteen artean jaiotako nerabeen artean. Hori ere 4.41. taulan ikus daiteke. Homosexualen arteko harremanak %2,4 dira, "zure sexu bereko bikote egonkorra" eta "zure sexu bereko beste pertsona ezagun bat" aukeren batura egiten eta gero. Horrez gain, mota honetako harremanak zertxobait ugariagoak dira mutilen artean (aurreko bi kategorien %4,0) nesken artean baino, non ia %1 "zure sexu bereko bikote egonkorra" aukera baita. Ez da eman erantzunik "zure sexu bereko beste pertsona ezagun bat" aukeran.

Bestalde, 4.41. taulan ikus daitekeenez, nahiz eta emaitzarik ez egon bi erantzun kategoria mantendu ditu. "Zure sexu bereko beste pertsona ezagun batzuk" eta "gutxi ezagututako edo duela gutxi ezagututako zure sexu bereko pertsonak" aukeren kasuan, sexu-harremanean parte hartzen duen eragilea inkestatutako nerabearen sexu berekoa ere bada. Daturik ez egotea ere informazio adierazgarria da, hein batean, gure autonomia-erkidegoko nerabeek homosexualen arteko zenbait jarduera "ezkututzen" dutela erakusten duelako horrek.

Hurrengo hiru tauletan, ikerketa kuantitatibo honek egitea ahalbidetzen duen bi aldagaiko azterketa baten emaitzak ageri dira: nerabeak zer sexu-harreman mota izaten dituen pertsona bakoitzarekin. Penetrazio dagoen sexu-harremanekin hasita, 4.42. taulan mota honetako sexu-harremanak izan dituzten nerabeen %64,1ek "beste sexu bateko bikote egonkorrarekin (ezkongaiarekin)" egin dituztela ikus daiteke. Hala ere, eta aurreko emaitza eta azterketekin bat, desberdintasun handiagoa ikus daiteke generoen artean. Horrela, nesken kasuan, bikote egonkorraren irudia nagusi da lau kasuetatik hirutan baino gehiagotan (%77,2). Mutilen kasuan, "beste sexu bateko pertsonak (neskak)" penetrazioa dagoen sexu-harremanetan parte hartzen duten eragile gisa hartzen dira -hiru kategoria hauen batura: "beste sexu bateko pertsona ezagun batekin", "gutxi ezagututako edo ezagutu berriak diren pertsonekin" eta "beste sexu bateko pertsona ezagunekin"-, eta ia "bikote egonkorra (neskalaguna"ren parean kokatzen dira (%44,7, %49,5aren aldean.

**4.42. TAULA. Sexu-harremanak "penetrazioarekin" dituzten pertsonekin duten harreman mota, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.**

NOREKIN IZATEN DITUZU (EDO IZAN DITUZUN) SEXU-HARREMANAK PENETRAZIOAREKIN	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Beste sexu bateko bikote egonkorrekin (mutil/neska lagunarekin)	77,2	49,5	64,1	27,7
Beste sexu bateko pertsona ezagun batekin	16,7	21,4	18,9	- 4,7
Gutxi ezagututako edo ezagutu berriak diren beste sexu bateko pertsonekin	2,6	12,6	7,4	-10,0
Beste sexu bateko pertsona ezagunekin	1,8	10,7	6,0	- 8,9
Zure sexu bereko bikote egonkorrekin (mutil/neska lagunarekin)	0,9	3,9	2,3	- 3,0
Zure sexu bereko beste pertsona ezagun batekin		1,9	0,9	- 1,9
ED/EE	0,9		0,5	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Aurreko emaitzetan ez bezala, antzeko portaera antzematen da generoen artean nerabeen penetrazioarekin gabeko sexu-harremanetan parte hartutako eragileak identifikatzen direnean; izan ere, 4.43. taulan, "beste sexu bateko bikote egonkorra (ezkongai)" nabarmentzen da lagun gisa jarduera horietan; hala ere, berriz ere, eragile hori nesken artean mutilen artean baino nagusiagoa da.

**4.43. TAULA. Sexu-harremanak "penetratorik gabe" dituzten pertsonekin duten harreman mota, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.**

NOREKIN IZATEN DITUZU (EDO IZAN DITUZUN) SEXU-HARREMANAK PENETRAZIOARIK GABE	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Beste sexu bateko bikote egonkorrekin (mutil/neska lagunarekin)	58,1	54,1	55,8	4,0
Beste sexu bateko pertsona ezagun batekin	32,6	23,0	26,9	9,6
Gutxi ezagututako edo ezagutu berriak diren beste sexu bateko pertsonekin	4,7	11,5	8,7	- 6,8
Beste sexu bateko pertsona ezagunekin	2,3	11,5	7,7	- 9,1
Zure sexu bereko bikote egonkorrekin (mutil/neska lagunarekin)	2,3	0,0	1,0	2,3
Zure sexu bereko beste pertsona ezagun batekin	0,0	0,0	0,0	0,0
ED/EE	0,0	0,0	0,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Eta hirugarren sexu-harremanean; hots, "musuak, laztanak..." (petting leuna) aukeran emaitza hauek ageri dira berriz (4.44. taula), eta "beste sexu bateko bikote egonkorra (ezkon-gaia)" da erantzun nagusia bi kasutan; hala ere, nesken kasuan handiagoa da mutilen kasuan baino: %63,0, %50,9aren aldean.

**4.44. TAULA.** Nerabeek "musuak, laztanak..." sexu-harremanak dituzten pertsonen duten harreman mota, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

NOREKIN IZATEN DITUZU (EDO IZAN DITUZUN) SEXU-HARREMANAK (MUSUAK, LAZATANAK,...)	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Beste sexu bateko bikote egonkorrekin (mutil/neska lagunarekin)	63,0	50,9	56,8	12,1
Beste sexu bateko pertsona ezagun batekin	27,8	21,1	24,3	6,7
Gutxi ezagututako edo ezagutu berriak diren beste sexu bateko pertsonekin	7,4	14,9	11,3	- 7,5
Beste sexu bateko pertsona ezagunekin	1,9	11,4	6,8	- 9,6
Zure sexu bereko bikote egonkorrekin (mutil/neska lagunarekin)	0,0	0,9	0,5	- 0,9
Zure sexu bereko beste pertsona ezagun batekin	0,0	0,9	0,5	- 0,9
ED/EE	0,0	0,0	0,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.


Beraz, ondoriozta dezakegu 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden EAEko 14 eta 17 urte bitarteko neskek, adierazitako hiru sexu-harremanak (penetrazioarekin, penetratorik gabe eta musuak edo laztanak) "beste sexuko bikote egonkorrekin (mutil-lagunarekin)" izateko joera handiagoa dutela mutilek baino. Gainera, genero-desberdintasun hori nabariagoa da neskek penetrazioa dagoen sexu-harremanak "mutil-laguna"rekin izateko joera dutelako.

**SEXU-HARREMANAK BORONDATEZ IZATEA**

Ahalduntzea nabari daitekeen alderdi jakin bat da pertsonak zenbait gizarte-jarduera egitean borondatez egiten duen edo ez jakitea. 2008/09 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko gure autonomia-erkidegoko nerabeek izandako sexu-harremanetan autonomia handiagoa edo txikiagoa izan duten jakitea izan zen galdeketa 50. galderaren helburua. Eta 4.39. grafikoan argi ikusten da euskal nerabeek gehienbat autonomia dutela sexu-harremanetan; izan ere, nerabeen %88,8k (mota horretako esperientzia izan dutenak; hots, sexu-harremanik mantendu ez dutenak kanpoan utzita) "bere borondatearen kontra ez dutela inoiz izan sexu-harremanik" adierazi dute.



**4.39. GRAFIKOA.** Sexu-harremanak egotea nerabeen borondatetik harantzago, sexuaren arabera. Ehunekoak.



Informazio hori adierazgarriena izanik, horrek ez du esan nahi "beren borondatetik kanpo sexu-harremanak izan dituela adierazten duten" nerabeen ehunekoahaztu behar garelarela (%6,8). Gainera, ehuneko altuagoa da mutilen barne banaketan, %8,7, neskenen baino %5,3.

4.45. taulan, bestelako informazio interesgarria ageri da, nerabeek borondatetik kontra izan dituzten sexu-harreman mota zehazki jakiteko, galdeketa horrela adierazi eta gero (%6,8). Penetrazioa dagoen sexu-harremanak kasuen %48,6an ageri dira, eta nesken (%53,3) eta mutilen artean (%45,0) proportzionalki neskek gehiago bizi duten esperientzia da. Kontrako gauza gertatuko litzateke penetrazioerik gabeko sexu-harremanen kasuan.

**4.45. TAULA.** Sexu-harremanen tipologia nerabeen borondatetik harantzago, sexuaren arabera. Ehunekoak.

MANTENTZERA BEHARTUTAKO SEXU-HARREMAN MOTA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Bai, sexu-harremanak izaten ditut penetrazioarekin	53,3	45,0	48,6	4,8
Bai, sexu-harremanak izaten ditut penetrazioerik gabe	26,7	40,0	34,3	- 7,6
Bai, musuak, laztanak, ...beste pertsona batekin	20,0	15,0	17,1	2,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Galdeketa noizbait nahi gabe sexu-harremanak (zentzu zabalean) izan zituztela adierazi zuten nerabeen %6,8ri egoera horren arrazoiak azaltzen saiatzea eskatu genien. 4.46. taulan emaitza horiek ageri dira handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen oinarrituta. Emaitza horietatik hiru ondorio hauek atera ditzakegu. Lehendabizi, bi sexu-harremanetatik batean "nire bikoteak nahi zuelako" arrazoiak aipatzen dute beren borondateen kontra izateko, eta adierazgarria da mutilen ehunekoak neskena baino handiagoa izatea arrazoi beragatik, %60, %36,4aren aldean.

"Bikoteak konbentzitu ninduelako" da borondatez kontrako sexu-harreman horiek izateko bigarren arrazoiak, baina aurrekoan ez bezala, neskek nagusi dira honetan.

Eta azkenik, nabarmendu behar da gainerako arrazoiak kuantitatiboki ez direla adierazgarriak; hala ere, nabarmentzekoa da kasuen %9,1ean "pertsona ezezagun batek sexu-harremanak izatera behartzea" aukera nesken kasuan bakarrik ageri dela.

**4.46. TAULA. Sexu-harremanak izateko arrazoiak nerabeen borondatek harantzago, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.**


SEXU-HARREMANAK IZATERA BEHARTZEAREN ARRAZOIAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Nire bikoteak nahi zuelako	36,4	60,0	50,0	-23,6
Beste pertsonak konbentzitu zintuelako	36,4	6,7	19,2	29,7
Besteen aurrean gaizki ez geratzeko	9,1	6,7	7,7	2,4
Mozkortuta zeundelako	9,1	6,7	7,7	2,4
Pertsona ezezagun batek behartuta	9,1		3,8	9,1
Lagunek aholkatu zidalako		6,7	3,8	- 6,7
Bestela utziko zidalako, eta horren beldur nintzen		6,7	3,8	- 6,7
Ezin izan zenuelako konbentzitu		6,7	3,8	- 6,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

**HARREMANAK PENETRAZIOAREKIN: ZER ADINAREKIN HASTEN DIREN ETA PREBENTZIO-METODOAK**

4.40. grafikoaren emaitzen arabera, 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urteko bitarteko EAEko nerabeen ia laurdenak (%24,5) dio sexu-harremanak penetrazioarekin izan dituztela. Gainera, badirudi neskek mutilek baino sexu-harreman gehiago izan dituztela modu horretara: %27,2 vs %21,7.

**4.40. GRAFIKOA.** Harremanak penetrazioarekin dituzten nerabeak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



Galdeketaren 48. galderan penetrazioa dagoen sexu-harremanak izan dituztela adierazi duten pertsonetara mugatzen bagara, zer adinarekin hasi ziren eta prebentzio-metodirik erabili zuten galdetu genien. Batez beste 15,03 urterekin hasi zirela adierazi zuten, eta ez dago alde nabarmenik mutilen eta nesken artean; izan ere, 4.47. taulan ikus daitekeen moduan, mutilen batez besteko adina 14,95 urte dira, eta neskena, 15,09. Horren ondorioz, hamar nerabeetatik seik (%57,0) 15 eta 16 urte arteko adinarekin hasi ziren mota honetako harremanak izaten.

**4.47. TAULA.** Sexu-harremanak penetrazioarekin hasteko adina nerabeen artean, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

PENETRAZIOA DAGOEN SEXU-HARREMANAK IZATEN HASTEKO ADINA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
15 urte	29,6	30,1	29,8
16 urte	32,4	20,5	27,2
14 urte	22,2	15,7	19,4
ED/EE	7,4	12,0	9,4
14 urtetik behera	4,6	13,3	8,4
17 urte	3,7	8,4	5,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>BATEZ BESTE</b>	<b>15,09</b>	<b>14,95</b>	<b>15,03</b>


*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Ikerketa honetan aztertutako nerabeen ia %90k penetrazioa dagoen sexu-harremanetan "prebentzio-metodoren bat" erabiltzen dutela adieraztea da gure ustez 4.41. grafikoaren daturik adierazgarriena. Eta 4.48. taulan, argi ikus daiteke "kondoia" dela gehien erabiltzen duten prebentzio-metodoa; izan ere, 1991 eta 1994. urteen artean jaiotako gure autonomia-erkidegoko nerabeen %82,0k erabiltzen dute.

Nerabe gehienak biltzen dituen informazio hori adierazita, 4.41. grafikoan eta 4.48. taulan, gutxienez, hiru kontu ondoriozta ditzakegu, kuantitatiboki txikiagoak diren arren informazio kualitatibo garrantzitsua ematen dutenak penetrazioa dagoen sexu-harremanei buruz nerabeen artean.

Lehendabizi, penetrazioa dagoen sexu-harremanetan badirudi mutilek prebentzio-metodoa gutxiagotan erabiltzen dutela. Eta bi arrazoiengatik da: batetik, "ED/EE" erantzunaren ehunekoak (%10,8) interpretazio desberdinak izan ditzake. Horien artean dago erantzun nahi ez izatea, baina baita zer galdetzen ari zaion ez jakitea; bestetik, mutilen %6,0k adierazi du "ez duela prebentzio-metodoric erabiltzen" eta ikerketa honetan parte hartutako neskarik ez du eman erantzun hori.

**4.41. GRAFIKOA.** Nerabeek sexu-harremanetan erabilitako prebentzio-metodoak, sexuaren arabera. Ehunekoak.



**4.48. TAULA.** Nerabeek sexu-harremanetan erabilitako prebentzio-metodoen tipologia, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Erantzun anitza. Ehunekoak.

PREBENTZIO-METODOA IDENTIFIKATZEA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
Kondoia	80,8	83,8	82,0
"Atzera jotzea"	6,7	6,3	6,5
Pilulak (pilula antisorgailuak)	6,7	3,8	5,5
Uztaia	2,5	3,8	3,0
Hurrengo eguneko pilula	2,5	2,5	2,5
Aparra edo spray espermizida	0,8	0,0	0,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Bigarrenik, "prebentzio-metodirik ez erabiltzea"ren erantzuna nagusi da mutilen kasuan (%6), eta horrek interpretazio desberdinak ekar litzake. Horien artean, noski, erantzunaren objektibotasuna sartzen da, baina erantzun hori ematearen arrazoa ere izan liteke nerabearoaren mutil batek prebentzio-metodirik ez duela erabiltzen adierazteak sozialki duen garrantziarengatik.

Azkenik, eta interpretazio horrekin lotuta, adierazi behar da penetrazioa dagoen sexu-harremanetan erabilitako "bigarren" prebentzio-metodo gisa "atzera jotzea" dela nerabeen %6,5en artean. Gainera, neska eta mutilen artean emaitzak oso antzekoak dira.

**ETORKIZUNARI BEGIRA:  
NERABEAK GAUR,  
HELDUAK BIHAR**

# 4.7

Izenburuan bertan adierazi denez, azken atal honetan euskal nerabeak helduak direnean zer trebakuntza- eta lan-jarduerei jarraituko dieten aurreikusten saiatuko gara.

Eta 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko 14 eta 17 urte bitarteko nerabeen esperientzietan oinarrituta ematen ditugula iritzia hauek ahaztu gabe, norberaren bizitzaren proiektuaren aurreikuspen honekin batera katalogo axiologiko bat edo balio adierazgarrienen eredu bat egin dugu, horiek helduaroan osatutako bizimodu batzuetan edo besteetan izan dezaketen eraginarekin.

**EGIN NAHI DITUZTEN  
IKASKETAK**


# 4.7.1

4.42. grafikoan galdeketa egin genuenean (2008ko maiatza) nerabeek egin nahi zituzten ikasketak ageri dira. Gure ustez, adierazgarriena da hamar euskal nerabeetatik zazpik (%70) unibertsitateko ikasketak egin nahi dituztela. Nesken kasuan unibertsitateko joera hori handiagoa da (%78,1) mutilen kasuan baino (%61,6), eta horren arrazoia ez da bakarrik mutilek beste bide batzuei ekiten diotela, esaterako Lanbide Heziketari, non mutilen ehunekoak neskena baino zertxobait handiagoa baita (%19,6, %12,3aren aldean), baizik eta bereziki askok ez dakitelako zer egingo dute. Horren erakusgarri dugu "ED/EE" kategorian izandako %16,7a.

Etorkizunari begira, badirudi 1991 eta 1994. urteen artean jaiotako gure autonomia-erkidegoko nerabe gehienek ikasten jarraituko dutela DBH edo Batxilergoa bukatu eta gero, eta beranduagoarako utziko dutela lan-merkatua, kontuan hartzen badugu nerabeen %0,6k "ez duela ikasten jarraituko" adierazi dutela.

Horrez gain, esan genezake, hurrengo bost urtetan orientazio-jarraibideak gaur egungo berak izango direla, eta unibertsitateko ikasketak nagusi izango direla mutilen nahiz nesken kasuan, nesken kasuan agian handiagoa. Bestalde, Lanbide Heziketak bigarren maila batean jarraituko du, eta badirudi mutilentzat neskentzat baino erakargarriagoa dela.

**4.42. GRAFIKOA.** Nerabeek egiteko asmoa dituzten hezkuntza-ibilbideak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.



## UNIBERTSITATEKO JARDUERAK

4.49. taulan, ikerketa honetan parte hartu duten nerabeek egin nahi duten titulazioak ageri dira, ezagutza-arloaren arabera bilduta. Bost arloak handienetik txikienera ordenatuta daude "guztira" zutabearen oinarrituta. Ikus daitekeenez nahiko argi bereizten dira "nesken ezagutza-arloak" eta "mutilen ezagutza-arloak". Horrela, "Gizarte Zientziak eta Juridikoak" arloan dauden titulaziotan biltzen diren nesken %37,3a; mutilen kasuan, aldiz, %23,0. Eta gauza bera gertatzen da "Osasun Zientzien" arloan: nesken %30,3 hautatu dituzte; mutilen %11,1.

"Irakaskuntza teknikoetan" dago genero desberdintasunik handiena unibertsitateko trebakuntza-jardueraren hautaketan; izan ere, mutilen lehen ezagutza-arloa da (%43,8) eta nesken laugarrena (%12,2). Beraz, 31,6 puntuko aldea mutilen alde.

### 4.49. TAULA. Unibertsitatera joan nahi duten nerabeek gehien nabarmendutako ezagutza-arloak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

EZAGUTZA-ARLOAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Gizarte Zientziak eta Juridikoak	37,3	23,0	31,3	14,3
Irakaskuntza Teknikoak	12,2	43,8	25,4	-31,6
Osasun Zientziak	30,3	11,1	22,2	19,2
ED/EE	12,8	13,6	13,2	-0,8
Zientzia Esperimentalak	4,9	5,1	5,0	-0,2
Giza Zientziak	2,4	3,4	2,8	-1,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

4.50. taulan, gure autonomia-erkidegoko etorkizun hurbilean unibertsitateko trebakuntza-jardueren hautaketan dagoen genero desberdintasun horrek jarraitzen duela ikus dezakegu. Beraz, esan dezakegu, gaur egungo ezagutzaren genero banaketaren jarraibideak eta horiekin lotutako lanbide-eskumenak berriz sortuko direla ziur asko. Horrela, nerabeek gehien adierazi dituzten bederatzi titulazioen hautaketa egiten da. "Medikuntza" da nerabe gehienek egin nahi duten unibertsitateko titulazioa (%23,1), baina Osasun Zientzien arloaren barruan, neska kopurua mutilena baino handiagoa da, %32,1 hain zuzen, %12,3aren aldean.

Genero desberdintasun bera ikus dezakegu hurrengo bi titulazioetan: "Ingeniaritza (oro har)", mutilen lehen aukera dena (%38,1), nesken laugarrena (%10,2); eta "Irakaslegoa (oro har)", mutilen bosgarren aukera dena (%9,7), nesken bigarrena (%20,9).

**4.50. TAULA.** Unibertsitatera joan nahi duten nerabeek gehien eskatutako titulazioen hautaketa, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.


GEHIEN ESKATUTAKO TITULAZIOAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Medikuntza	32,1	12,3	23,1	19,8
Ingeniaritza (oro har)	10,2	38,1	22,8	-27,9
Irakaslegoa (oro har)	20,9	9,7	15,8	11,2
Ekonomi eta enpresa-zientziak	8,6	6,5	7,6	2,1
Arkitektura	8,0	10,3	9,1	- 2,3
Erizaintza	11,2	1,3	6,7	9,9
Informatika	0,5	10,3	5,0	- 9,8
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientziak	3,2	7,1	5,0	- 3,9
Zuzenbidea	5,3	4,5	5,0	0,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

## LANBIDE HEZIKETAKO JARDUERAK

Hurbil dugun etorkizunean esan dezakegu "gizona-ingeniaria-teknikaria" eta "emakumea-irakaslea-medikua" ereduek behera egin dutela. Azken horrek, besteak zaintzeko joera handiagoa du. Eta Lanbide Heziketari jarraitzeko asmoa duten nerabeen erantzunek generoaren arabera ezagutzearen gizarte-banaketa neurri handiagoan indartzea besterik ez dute egiten.

**4.43. GRAFIKOA.** Gehien nabarmendutako Lanbide Arloak LH ikasi nahi duten nerabeen artean. Ehunekoak





4.43. grafikoan garbi ikus daitekeenez, nesken %20k Lanbide Heziketako ikasketei jarraitzeko asmoa agertu dute, eta kategoria "teknikoan" egingo lukete. Bestalde, %69,4k, "gizarte" arloan egingo lukete. Mutilen kasuan emaitzak guztiz alderantzizkoak dira funtsezko etapa eta belaunaldi berean; izan ere, %80k kategoria teknikoan egiteko asmoa duete, eta %30,6k, gizarte arloan.

4.51. taularen bidez hobeto uler daitezke aurreko grafikoaren emaitzak, parte hartzen duten pertsonen berek adierazitako Lanbide Arloak banakatzen direlako. Horregatik, hain zuzen ere ez dira ageri formalki dauden Lanbide Arlo guztiak. "Guztira" zutabetik handienetik txikienera ordenatuta, nabarmenak dira genero desberdintasunak zenbait Lanbide Arlo hautatzean; hala nola, "Ibilgailu Autopropultsatuak mantentzea" eta "Elektrizitatea eta Elektronika", mutilen artean nagusi direnak, eta "Osasuna", "Irudi pertsonala" eta "Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta Komunitate zerbitzuak", nesken artean nagusiak.

**4.51. TAULA.** LH ikasi nahi duten nerabeen artean aipatutako Lanbide Arloen tipologia. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak

LANBIDE ARLOAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
ED/EE	22,4	18,7	20,2	3,8
Ibilgailu autopropultsatuak mantentzea	2,0	14,7	9,7	-12,6
Osasuna	16,3	2,7	8,1	13,7
Informatika	4,1	10,7	8,1	- 6,6
Lanbide arloa zehaztu gabe	2,0	12,0	8,1	-10,0
Goi-mailakoa (zehaztu gabe)	6,1	6,7	6,5	- 0,5
Elektrizitatea eta Elektronika		10,7	6,5	-10,7
Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta kom.	12,2	1,3	5,6	10,9
Irudi pertsonala	12,2		4,8	12,2
Ostalaritza eta Turismoa	2,0	6,7	4,8	- 4,6
Arte Grafikoak	8,2	1,3	4,0	6,8
Administrazioa	2,0	4,0	3,2	- 2,0
Komunikazioa, Irudia eta Soinua	2,0	4,0	3,2	- 2,0
Merkataritza eta Marketin	6,1	0,0	2,4	6,1
Ekoizpenerako zerb. Mant.	2,0	2,7	2,4	- 0,6
Itsasoko eta arrantz. Jard.		1,3	0,8	- 1,3
Eraikuntza eta Obra Zibila		1,3	0,8	- 1,3
Fabrikazio mekanikoa		1,3	0,8	- 1,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Egokia da adieraztea "EE/EE" kategorian egon direla erantzun kopururik handiena LHko ikasketei jarraitu nahi dieten nerabeen kasuan. Kategoria horri, "ez du zehaztu lanbide-arloa" gehitu ahal zaio %8,1ekin. Bestelakoan artean, eta bakarrik emaitz honen interpretazioaren hipotesi gisa, nerabeen %20,2k ez du jakin bere lanbide-trebakuntza zehazten, Erdi Mailakoa edo Goi Mailakoa den edo ez. Gerta liteke, beraz, nerabeek trebakuntza-jarduera horri buruzko informazioa ez izatea.

## GARATZEKO ASMOA DUTEN LANBIDEAK

# 4.7.2

Atal honetan, 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko nerabeek egiteko asmoa zuten lanbideen hautaketa ageri da. Aurreko emaitzekin antzekotasun handia dute, trebakuntza-jardueraren eta lanbide-okupazioaren artean erlazioa dagoelako. 4.52. taulan, bi gertaera egiazta daitezke: neskek (%19,4) nahiz mutilak (%17,8) ez dakite zer lanbide egingo duten etorkizunean, eta lanbide teknikoan –mutilen gustukoak direnak- eta gizarte- eta osasun-lanbideen artean –nesken gustukoak-, genero bereizketak jarraitzen du.

**4.52. TAULA.** Nerabeek gehien eskatutako lanbideen hautaketa, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.

EGITEKO ASMOA DUTEN LANBIDEAK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Ez daki	19,4	17,8	18,6	1,6
Irakasleoa (oro har)	14,6	5,5	10,1	9,1
Ingeniaritza (oro har)	3,5	15,1	9,2	-11,6
Medikuntza (oro har)	13,4	4,7	9,1	8,7
Enpresa-zuzendaritza	6,0	3,1	4,6	2,9
Arkitektura	2,8	5,5	4,1	-2,7
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientziak	2,0	5,0	3,5	-2,9
Informatika	1,3	5,2	3,2	-4,0
Erizaintza	5,5	0,5	3,1	5,0
Suhiltzailea	0,3	3,7	1,9	-3,4
Fisioterapeuta	2,8	0,8	1,8	2,0
Albaitaritza	2,3	1,0	1,7	1,2
Psikologia	2,0	0,5	1,3	1,5
Gainerakoak	24,2	31,6	27,8	-7,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-</b>

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

## LORTZEKO ASMOA DUTEN PROFESIOALEN LANPOSTUAK


# 4.7.3

2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urte bitarteko EAEko nerabeen geroko trebakuntza- eta lan-jarduerak ezagutzeko ziren aurreko galderak (36. eta 37. galderak), generoaren arabera egon zitezkeen bereizketa horizontaleko zantzuak aurkitzea zuten helburu. Galdeketaren 38. galdera, aldiz, nerabezaroan generoa-

ren arabera egon zitezkeen "bereizketa bertikaleko" zenbait adierazpen identifikatzeko diseinatu genuen.

"Beirazko sabaia" delakoaren identifikazioak informazioaren teknika kualitatiboekin zerikusi handiagoa badu ere (30), zentzu horretan egon zitezkeen joeretara hurbiltzeko modurik egokiena nerabeei "noraino gustatuko litzaiekeen heltzea" galdetzea zela uste izan genuen. Halaber, informazio hori, ahalduntzearekin zerikusia duten kontuekin lotuta dago, etorkizuneko garapen profesionala diseinatu edo aurreikusi behar denean nerabezaroan dauden genero-desberdintasunera jotzen delako.

**4.44. GRAFIKOA.** Nerabeek etorkizunean lortzeko asmoa dituzten lanpostuak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.



4.44. grafikoaren emaitzak ikuspegi desberdinetatik interpretatu badaitezke ere, egia esan, 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 4. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko nerabeek lanbide-eskalan duen posizioaren inguruan emandako iritzian eran-

(30) Ikusi ikerketa hauek: BARBERÁ, E. ET AL. "Más allá del "techo de cristal". Diversidad de género." *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 2.002, 40, 55-68. or.; eta LAZARO, N.; ET AL. "Desigualdades de género en el trabajo. La brecha de género en el empleo y la distribución de las tareas de cuidado." *CIRIEC. Revista de Debate sobre Economía Pública, Social y Cooperativa*, 2.004, 50, or. 55-75.

tzukizun motaren bat hartzeko borondatea antzematen da; izan ere, bakarrik %7,4k "bestelako langile bat" izan nahi duelako.

Erantzukizuneko lanpostuaren barruan bi maila ezarri genituen: erantzukizunik handienekoa ("nagusia izatea") eta erantzukizunen bat duena ("nagusia izatera heldu gabe"). Eta horretan hain zuzen zenbait desberdintasun egon ziren generoen artean; izan ere, mutil gehienek (%38,4) erantzukizun handieneko lanpostuak nahi zituzten nesken aldean (%32,5) "nagusia izatea" aukeran. Beraz, "nagusia izatera heldu gabe" aukeran, aldea alderantzizkoa izan zen: %46,5 mutilen kasuan eta %55,4koa nesken kasuan.

## BIZI ESTILOEI ETA BESTELAKO BALIOEI BURUZ

### 4.7.4

Galdeketaren galderetako bat EAEn bizi diren nerabeek 1 eta 10 artean puntuatu behar zuten helduei buruzko bestelako ikuspegiak ziren. Etorkizunari begiratzeko jarduera hori, talde dinamikak egiten direnean eta teknika kuantitatiboak erabiltzen diren ikerketetan txosten honen beste atal batzuetan adierazi dugun moduan eskasak direnetan askotan erabiltzen den ariketa bat da, eta helburua da norberaren etorkizuneko erabakietan dauden genero erroren berri izatea.

Etorkizunean helduak izango diren gaur egungo nerabeen "bizitza proiektuekin" zerikusia duen informazio honek izan dezakeen interpretaziorik sakonena ere kontuan hartuz, nerabezaroko edo gaztaroko izaera axiologikoko kontuei begiratzean, 4.53. taulan nerabeen batez bestekoak ikus daiteke, gure kultura-testuinguruan pertsonen jarduera biografikoa eta nortasun soziala egituratzen duten berariazko zazpi alderditan hain zuzen ere. Alderdi horiek, bost arlotan bil daitezke: lana (enplegu gisa), familia-unitatea edo bizikidetzaren eredia, lagunak, dirua eta pertsonak nahi duena lortzeko duen pertseberantzia.

#### 4.53. TAULA. Nerabeek etorkizuneko bizitzan aurreikusten dituzten alderdi nabarmenen hautaketa. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Batez bestekoak.

ETORKIZUNeko BIZITZAN AURREIKUSTEN DITUZTEN BESTE ALDERDI BATZUK	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	ALDEA
Betiko adiskideak mantentzea	8,56	8,47	8,52	0,09
Bikotea eta seme-alabak izanik	8,15	8,22	8,19	-0,07
Norberaren ametsa lortzen saiatzea	8,29	7,92	8,11	0,37
Bikoten bizirik	7,96	8,05	8,00	-0,09
Lanean arrakasta izatea	7,83	7,91	7,87	-0,08
Dirua irabaztea	7,52	7,84	7,67	-0,32
Bakarrik edo lagunarekin bizirik	5,10	4,78	4,94	0,32

*Iturria:* Ikerketa honetarako egindako inkesta, 2008.

Emaitzen irakurketa orokorra egiten badugu, gaur egun EAEn bizi diren 1991 eta 1994 urte-  
en artean jaiotako nerabeen ikuspegi heldua egin daiteke. Horrela, eta ordena honi jarraitu,  
hierarkia baten osagaiak hauek izango liriateke: "adiskideak", mantendu beharreko balioa  
dira; "bikotearekin eta seme-alabekin bizitzea" –hala ere, ondorengoekin zerikusia duen  
azken alderdi hau ez da hain garrantzitsua; "norberaren ametsa lortzen saiatzea"; "lanean  
arrakasta lortzea", eta azkenik, "dirua irabaztea".

Alderdi hauetako bakoitza banakatuz, "gaur egungo adiskideak mantentzea" da nerabeek  
gehien baloratutako bizitzaren edo etorkizuneko proiektuaren alderdi nagusia. Bestelako  
gogoeten artean, ez dago zalantzarik inkestatutako pertsonak dauden funtsezko etapak  
proiektu horretan duen eragina. Funtsezko etapa horretan, adiskidetasunak lotura handia du  
pare-taldearekin; nerabeari segurtasun-ingurune berria ematen dion gizarte-harremanetako  
egitura da, eta bere eta gizartearen nortasuna moldatzen da. Beraz, logikoa da nerabeek  
bere jarduera biografikoaren hurrengo etapetan erreferente axiologiko hori –egungo lagu-  
nak- galdu nahi ez izatea.

Nerabeek egiten duten "testuinguru pribatu-afektibo-etxeakoaren eredu egokia"ren proiektu-  
ziotzat har daitekeen "bizikidetzaren eredu"ri dagokionez, galdeketa egokiak izan  
litezkeen hiru eredu sartu ziren: "ama-aita-seme-alabak" ("bikotea eta seme-alabak iza-  
nik"), "bikotea" ("bikoten bizirik") eta "independentea" ("bakarrik edo lagunekin bizirik").  
Azken bizikidetzaren eredu horrek eman zituen baloratu beharreko alderdien multzoan emai-  
tzarik baxuenak, eta nabarmen gainera: batez beste %4,94. Neska nerabeek "bakarrik edo  
lagunekin bizirik" aukeraren alde egin zuten (5,10, mutilen 4,78aren aldean); hala ere, pen-  
tsamendu-kodeetan eta gaur egun gure autonomia-erkidegoko nerabeen bizimodu heldue-  
tan ez dira barne hartzen.

Beste bi bizikidetzaren ereduak, aldiz (ereduak-egokiak), harrera garrantzitsuagoak dituzte nes-  
kek nahiz mutilek egindako proiektuetan. Horrela, gaur egun zabalduen dagoen bizikidetzaren  
eredua –jatorriz burgesa den gizarte- eta kultura-sorkuntzan eta "eredu normalizatu" bihurtu  
arte egondako hedatze-prozesuan sartu gabe-, hau da, "bikotea eta seme-alabak", nerabe-  
ek gehien baloratutako bigarren alderdia da, 8,19ko puntuazioarekin batez beste. Hala ere,  
ez dago oso urrun beste familia-eredua: "bikotearekin bizirik", non ondorengoak ez baitira  
hartzen. Bizikidetzaren eredu baten eta bestearen arteko alde txiki horrek ondorio desberdi-  
netara eramane gaitzake, baina ez dago zalantzarik nerabeen etorkizuneko kode axiologiko-  
etan eta portaeran, ondorengoek protagonismo nagusia ez duten bizikidetzaren eredu bat fin-  
katu dela afektibitatearen esparruan.

"Norberaren ametsa lortzen saiatzea" aukerak du hirugarren puntuaziorik altuena zazpi  
alderditan; 8,11 guztira. Aipagarria da balio horrek zerikusi handia duela pertseberantziare-  
kin, esfortzuekin, norberaren borondatearekin, eta hein batean ahalduntzearekin eta era-  
bakietan autonomia izatearekin, sozialki ezarrita dauden irizpideak kontuan hartu gabe; izan  
ere, pertsona bakoitzaren proiektu biografiko edo bizitzako proiektuei buruzko plangintze-  
tan idealismoarekin lotzen baita. Horrela, hasiera batean instrumental, pragmatiko edo  
materialistagoak diren balioen gainetik –esaterako, lanean arrakasta lortzea edo diru asko  
irabaztea- kokatzen da.

Hala ere, emaitza honi egin ahal zaizkion interpretazio desberdinak alde batera utzita, bi  
kontu garbi geratu dira: bata, gaur egungo nerabeen etorkizuneko proiektuoa egiteko

aukera ematen du, non irizpide idealak eta norberaren autonomia sartzen diren, eta kasu jakin honetan, norberak nahi duena lortzeko esfortzuan islatzen da. Bestea, ahalduntze ekintza jakin honek garrantzi handiagoa hartzen duela emakumezko nerabeen kasuan. Horrela, eta 4.53. taulan ikus daitekeenez, "zure ametsa izatea eta lortzeko esfortzua egitea" da neskek gehien baloratutako bigarren alderdia, 8,29rekin, mutilen 7,92aren aldean. Horrenbestez, baloratutakoz azpi alderdietatik genero artean dagoen desberdintasunik handiena da (0,37).

"Lanean arrakasta lortzea" aukerak zerrendako bosgarren puntuaziorik altuena du, mutilen nahiz nesken kasuan. Eta 2007/08ko ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden gure autonomia-erkidegoko nerabeek egindako lanaren aintzatespen sozialeko balio hori, arlo hauen atzetik kokatu da: adiskidetasuna (gizarte-harremanen esparrua), bikotearen bizitza eta seme-alabekin (afektibitate-familia esparrua) eta norberaren ametsa lortzea esfortzu eginez (norberaren esparrua). Horrek, nerabeek gaur egun beren eguneroko esperientzia baldintzatzen duten faktoreetan oinarrituz egiten dituzten bizitzaren proiektzioen ikuspegitik behintzat, lan arloko ondorioetako bat ("arrakasta") beste eragin batzuen menpean jartzea ekartzen du, norberari eta afektibitateari dagokienez.

Eta azken azterketa hori ere baliagarria izan daiteke galdeketaren 34. galderari emandako erantzunak interpretatzeko. "Diru asko irabaziz" aukerak lortutako puntuazio, noski, ezin da hartu eskastzat edo hondartzat; izan ere, oso ongia lortu du (7,67), baina gainerakoak baino baxuagoa da ("bakarrik edo lagunekin biziz" aukera izan ezik). Ikerketa honetan, nerabeek bizitzaren proiektuan emandako ikuspegi ekonomikoak garrantzia badu ere, adierazitako bestelako alderdiak nagusi diren testuinguru baten barruan garrantzia erlatiboa izanik, egia da mutilek neskek baino balio handiagoa izan dutela alderdi horretan: 7,84 7,52ren aldean.

Horrela, gure autonomia-erkidegoan bizi diren nerabeek lagunak mantentzeari eta bikotean bizitzeari buruz dituzten interes desberdinak alde batera utzi gabe, atal hau bukatzeko esan genezake desberdintasun txikia dagoela generoen artean bizitzari buruzko ikuspegietan; izan ere, neskek nahiago dute norberaren autonomia garatzea. "Nork bere ametsa izatea" aukeran lortutako puntuazio altuagoan ikus daiteke hori; "lanean arrakasta" eta "diru asko irabaztea" aukeretan, aldiz, puntuazio txikiagoa izan dute.

**5**

**ONDORIOAK**





Ez da erraza ikerketa honetan sortutako alderdi adierazgarrien laburpena egitea, kontuan hartzen badugu adierazle kopuru handia sortu zela berrogeita hamabi galderetan banatutako lauhun erantzun aukera baino gehiagoko galdeketa batean. Galdeketa hori, ikastetxetako geletan bertan egin genuen, 2007/08 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoan DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. maila egiten ari ziren 14 eta 17 urteko nerabeen artean, estatistikoki adierazgarria den bederatzehun eta hirurogeita hamarrei (970) hain zuzen ere. Zailtasunak, gainera, handiagoak dira ikerketaren gai nagusia nerabeen ahalduntze-prozesuaren eta negoziatzeko gaitasunaren egungo egoera zein den jakitea bada, aipatutako teknika kuantitatiboaren bidez.

Emakundek bultzatutako ikerketa aplikatu honek, elementu berriak ekarriz ituen hiru eza-gutza-arlo hauetan: lehendabizi, gure autonomia-erkidegoan bizi diren neska eta mutil nerabeen taldearen egoeraren argazkia ematen du, bere eguneroko bizitzan arlo fisikoan (edo gorputzarenean), ekonomikoan, arautu gabeko denboran (aisialdia edo eskolatik kanpoko) eta kideko taldean eragina duten gaien inguruan. Bigarren arlo gisa, ikerketa honek euskal nerabeak helduak izango direnean izango dituzten portaerazko zenbait joera edo jarraibide aurreratzen ditu; betiere, mota guztietako prospekzioari atxikitako mugak aintzat hartuta. Azkenik, ikerketa honi esker, nerabeengana hurbil gaitzke, genero-ikuspegi batetik, eta bizitzaren etapa garrantzitsu honetan neska eta mutilen artean egon daitezkeen diferentziak ikus daitezke. Horretarako, ahalduntze kontzeptuari ikusmolde zabal batetik begiratu diogu.

Ezagutzaren lehen mailatik hasita, eta ikerketa honetan aztertutako nerabeen irudia osatuko luketen alderdiak bakarrik aipatzeagatik, hamar nerabeetatik zortzi, seme-alabak dituen bizikidetza-unitate nuklear batean bizi dira. Bizikidetza-testuinguru honetan, erantzukizun maila baxua dute etxeko lanak direlakoetan, kontuan hartzen badugu hamarretatik lauk adierazten badu oinarritzko edo ohiko jarduerak inoiz ez edo gutxitan egiten dituztela. Adierazle horrek garrantzi handiagoa hartzen du bizikidetza-unitate horien %60 baino gehiagotan, bi gurasoak lanean ari direla.

Arlo ekonomikoan, %66,5ek aste-saria du, 5 eta 20 euro artekoa dena. Adinaren arabera diferentziak badaude ere, 14 eta 17 urte bitarteko hamar nerabeetatik ia zazpi ez du bes-telako diru-sarrera ituririk. Beraz, nagusiki gurasoek egindako esleipen horrekiko menpetasun-maila handia dute.

Nerabeen %55,5 kideko talde misto batean daude, eta horrekin, kalean, parkean edo bes-telako leku publikoetan egoten dira. Horrez gain, 22:00 eta 00:00ak artean itzultzen dira gehienak etxera asteburuetan.

Arautu gabeko denboran (eskolaz kanpokoan edo aisialdian), lehen jardueraren eskola-eskaerak luzatzen dituzten jardueren garrantziari buruzko gogoeta aurrerago egiteko utziz, nabarmendu behar da euskal nerabeek hiru jarduera egiten ematen dituztela denbora hori asteko ia egun guztietan. Hirurak egiteko euskarri teknologikoak erabiltzen dira: musika entzutea, telebista ikustea eta Interneten sartzea, bideo-jokoak.

Arlo fisikoaren edo gorputzaren ikuspegitik, nabarmendu behar da 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden ia nerabe guztiek zaintzako jarduera bat egiten dutela. Hala ere, norbera zaintzeko interes orokor horrek alde nabarmenak ditu generoari dagokionez adin horietan, aurrerago adieraziko dugun moduan.

Bikote-harremani dagokienez, parte hartu zuten nerabeen %64k adierazi zuten bikotea zuela edo izan zuela. Badirudi, kideko talde misto batean daudenean errazagoa egiten zaie-la. Eta afektibitate-harremanen eredu egokienei dagokienez, badirudi laguntza handia dago-ela talde honetan pertsona bakoitzaren errespetuan edo tolerantzian oinarritutako eredu-aldetik. Horregatik, erabat baztertu da aldeetako baten sakrifizioaren ondorioz bikote-harre-man bat ezartzea eta finkatzea dakarren edozein jarduera edo erabaki.

Ikerketa honen ondorioz garrantzitsuenetako bat da euskal nerabeen artean sexualitateari buruzko ikuspegiak ez duela mugarik, penetrazioarekin lotzen delako. Sexualitateak sexu-organoekin duen lotura hori alde batera utzita, nerabeen %43,3k adierazi du sexu-espe-rientziaren bat izan duela zentzu zabalean, non beste sexuko bikote egonkorra esperientzia horren agente nagusia den. Gainera, sexu-harremanak nahita eta norberak erabakita izan dira.

Azkenik, 2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailan zeuden 14 eta 17 urteko bitarteko euskal nerabeen ia laurdenak dio sexu-harremanak penetrazioarekin izan dituztela. Batez beste 15,05 urtekin hasi dituzte, eta %90 kasutan prebentzio-metodoren bat erabili dute. Horien artean, kondoia da erabiliena: hamarretik zortzik baino gehiagok era-bili dute. Eta nahiz eta arriskua duten sexu-jarduerak izaten jarraitu, emaitzen arabera, badi-rudi oso gutxi direla, eta oso urrun daudela nerabeak txoriburuak direla dioten adierazpe-netatik.

Ikerketa honek ekartzen duen bigarren ezagutza-mailari dagokionez, nerabeak hautatzea diseinu metodologikoaren ikuspegitik irizpide pragmatiko edo operatiboan menpe dago, eta hain zuzen nerabeak aukeratu ditugu ordura arte ezarritako gizarte-harremanak oinarritzen ziren oinarrien berrantolaketa edo berriz planteatzea ekartzen duen autonomia-prozesua hasten delako ibilbide biografikoaren aldi horretan. Horrek eragin nabarmendu du norbera-ren eta gizartearen nortasunaren sorkuntzan geroagoko alditan, ahalduntzeari eta negoziat-zeko gaitasunari dagokienez. Eta etorkizuneko eragin horiek dira nerabeei aztertze-ko interese ematen diotenak, hurrengo urteetako gizarte- eta genero-harremanen izaera aurrera-tzeko gaitasuna dutelako.

Ikerketa honen helburu nagusia euskal nerabeen zenbait tipologia ezartzea izan ez bada ere, egia esan, talde honen ahalduntze prozesuen eta negoziatzeko gaitasunaren gaur egungo egoera zein den jakiteko, belaunaldi honek gizarte-egituran zer integrazio maila duen jakin behar da aurretik. Lortutako emaitzen arabera, gaia zaila zela eta adierazle kopu-rua mugatua, esan dezakegu 1991 eta 1994 urteen artean jaiotako gure autonomia-erkide-goko nerabeek, "normaltzat" har daitezkeen eguneroko portaerazko jarraibideak eta balio-kodeak dituztela; alegia, gaur egun, helduen belaunaldiek ezarritako, garatutako eta espe-rotako ereduetatik "hurlbil" daudela.

Azken urteetan esan izan da nerabearoa goizago hasi dela gurearen antzeko gizarte-tes-tuingurutan, esaterako janzteko moduekin lotutako portaeretan paradigmatikoki adierazita-koa. Horren ondorioz, aldaketa-prozesu horren beste alde bat galdu ohi da: nerabeen "inte-grazio goiztiarra" denboren eta espazioen egitura-jarraibideetan, eta horren ondorioz, hel-duen belaunaldiek ezarritako jarduera integratuetan. Eta ikerketa honen emaitzek, gizarte-aldaketako prozesu honen beste dimentsio hori argitu dute; izan ere, DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailako 14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeak nahiko prestatu egongo

lirateke neurri handi batean gizarte-egiturako eredu berak "birsortzeko"; baita gaur egun indarrean dauden genero-ereduak ere.

lkerketa honen geroko kapitulu integratuan adierazitako bi joera nagusik egitura-mailako edo gizarte-birsorkuntza mailako ondorio horren alde egingo lukete: batetik, gaur egungo nerabeek nola ikusten duten beren burua helduak direnean, gaur egun, belaunaldi helduetan (bere gurasoen kasuan) dauden bizitza estiloetatik oso urrun ez daudenak; bestetik, emaitzetan argiago ikusten dena, nerabeek egiteko asmoa dituzten prestakuntza-jarduerak eta jarduera profesionalak, non "emakumea-maistra-medikua" eta "gizona-ingeniaria-teknikaria" lan okupazioko ereduak berdin jarraitzen dutela dirudien, prestakuntza-orientazio arautuarekin bat. Gainera, badirudi, Unibertsitatara joateko orientatuta daudela, hamar kasuetatik zazpitan, eta gaur egun dagoen ezagutzaren gizarte-diferentzia islatzen du, titulazioen aukeraketan generoari begiratzen badiogu.

Nerabeek helduak direnean gure gizarteko gaur egungo egitura-eredu gehienei jarraituko dietela esateko oinarri sendoa dugu, izan ere, nerabeek, gaur egun, arautu gabeko denboran edo aisialdian ezagutza formalak bereganatzeko edo prestakuntza-jarduerak egin ohi ditu. Hamar nerabeetatik ia hiruk eskolaz kanpoko jardueretan eskolarekin edo jarduera formalarekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzte –ikastea, etxek olanak egitea, edo bes-telako ezagutzak bereganatzea-. Halaber, ia ehuneko berean, kirol jardueraren bat utzi behar izan dute. Hala ere, tresnaren bat jotzen du aisialdian, bizitza heldurako prestatzeko "eskaerei" erantzuteko.

Baina -gure autonomia-erkidegoan bizi den nerabearen gaur egungo egoeraren hirugarren ezagutza-mailan sartuz-, bizitza helduaren –ustezko- eskaerei aurre egiteko beharrezkoak diren eskumenak ikasteko jardueren aurreratze hori nesken artean mutilen artean baino nabarmenagoa dela izan da adierazgarriena. Neskak mutilak baino goizago bereizten dituzte "beharrezkoak" diren jarduerak (hezkuntza-ezagutzak finkatzearekin eta ezagutza gehiago lortzearekin lotutakoak) eta jadanik, adin batekin, "beharrezkoak ez" direnak (hala nola, kirol jardueraren bat egitea eta musika-tresnaren bat jotzea). Horregatik, neska gehiagok uzten dituzte prestakuntzarekin edo eskolarekin zerikusirik ez duten jarduera motak mutilek baino. Bestalde, aipatu jarduera horiek 14 urte bete aurretik hasten dituzte neskak, eta mutilek nerabezaroan egiten jarraitzen dute.

Ahalduntzearen arautu gabeko denboraren edo aisialdiko arlo horretan aurkitu dira nerabeen eskaera nagusiak berdintasuna egoteko; izan ere, denbora gehiago eskatzen dute astean zehar etorkizunerako prestatzearekin zuzenean lotuta ez dauden beste jarduera batzuk egin ahal izateko, eta asteburuetan, mutilek ematen duten denbora bera emateko gizarte-testuingurutan.

Laburbilduz, EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren IV. Planean ezarritako ahalduntze arauetako batek xedatzen duen arabera, autonomiaz eta herritartasun osoz, beren banakotasuna erabiltzen eta erabiliko duten pertsonak bihurtzeko gai diren neska eta mutil nerabeak gure gizartean egoteari buruzko ezagutzaren bat ekarri beharko bagenu, horretarako baldintza objektiboak daudela esan beharko genuke; zalantzarik gabe, bide horretan

aurrera egiten ari garela, eta egon daitezkeen arazoak gaur egungo gizarte-esparruan eta esparru axiologikoan bideratu edo ebatziko direla. Izan ere, badirudi, nerabeek, oro har, horrela hartzen dutela.

Baina, ikerketa aplikatu honek gure gizarte-egituran oso finkaturik edo erroturik dauden genero-jarraibideak berrets iditu, gaur egun, rol esleipen desberdinak dituzten eragileen aniztasun batetik etorritako mezu eta jarduerekin, eta horren ondorioz, nerabearen generoaren arabera, etorkizunerako aurreikuspenak ekarri ditu.

Ikerketa honen emaitza desberdinek 14 eta 17 urte bitarteko euskal nerabeen artean dauden genero-desberdintasun horiei eustea ahalbidetu dute. Dagoeneko aipatu dugun prestakuntza-denbora arautuaren bizitasun edo goiztiartasun handiagoa arautu gabeko (aisialdia) denboraren gainean, gure autonomia-erkidegoko nesken artean mutilen artean baino handiagoa dena; denbora gutxiago izatea asteburuetan gizarte-jarduera egiteko, gizarte-harremanetan arrisku maila handiagoa dutelako izendatzean (eta ordezkatzean); gurasoek emakumezko nerabeek egiten dutenari buruzko ezagutza handiagoa izatea -amek nagusiki aipatzen duten "erne egotea"-; norbera zaintzeko jarduerak, apainduta egotea (irudi ona) eta elikadura kontrolatzea edo zaintzea, mutilek egindako ariketa fisikoaren (kirolaren) aldean, zaintzeko jarduera nagusia dena; bikote egonkorrekiko fideltasun handiagoa sexu-harremanetan (mutil-laguna); edo prestakuntza-bidea -unibertsitarioak, gehienek aukeratu-takoak, lanbide-heziketakoak- gaur egungo genero-bereizketari jarraitzea, horren bidez, hurrengo urtetan gure lan-merkatuak berdin jarraituko duela adierazten dugularik. Horiek guztiak, gure eguneroko errealitateko elementuak dira eta gabeziak dituzte nerabezaroan dagoeneko ezarrita dauden generoen arteko berdintasunari eta ahalduntzeari dagokienez.

Argi dago gai horiek gehiago sakondu behar direla, eta ikerketa-ildo horri jarraitzea animatzen dugu, ikerketa honetan egindako informazio estatistikoaz eta diseinu metodologikoaz baliatuz, hala nola, nerabeen adinaren arabera, erantzunetan dauden aldeei begiratu-ta, baina baita ikerketa bera osatuz ere, hurbiltzeko beste teknika kualitatibo batzuen bidez.

**B**

**BIBLIOGRAFIA**



- AGINAGA, J. *Las desigualdades de género entre las y los jóvenes*. INJUVE. Madril, 2005.
- BARBERÁ, E. ET AL. "Más allá del "techo de cristal". Diversidad de género." *Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren aldizkaria*, 2.002, 40, .55-68. or..
- COMAS, D.; ET AL. *Jóvenes y estilos de vida: valores y riesgos de los jóvenes urbanos*. Madril. INJUVE eta F.A.D. 2004.
- KULTURA SAILA. EUSKO JAURLARITZAKO GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA. *Juventud vasca*, 2004. Vitoria-Gasteiz, urria, 2004.
- *Hacia una nueva cultura de la identidad y la política. Tendencias de la juventud vasca 2002-2005*, Vitoria-Gasteiz, 2005eko urria.
- *Tendencias de la juventud, 2006*. Vitoria-Gasteiz, 2006.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KULTURA, EUSKARA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA. *Estudio de las causas de abandono de la práctica deportiva en las jóvenes de doce a dieciocho años y propuestas de intervención*. Donostia-San Sebastián, abendua, 2002.
- DÍAZ PERERA, E. *Rols i estereotips de gènere entre l'aumnat de batxillerat de la provincia de Barcelona*. Bartzelonako Diputazioa. Rerceca Francesca Bonnemaison, 2006. Iraila, 2007.
- EMAKUNDE. *EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako jarraibideak*. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- *Zaintzaren ondorioak. Uztartze estrategiak EAEko gizon-emakumeen eguneroko bizitzan 22. txostena*. Vitoria-Gasteiz. 2007.
- FIZE, M. *Los adolescentes*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko. 2007.
- FLEMING, M. "Género y autonomía en la adolescencia: las diferencias entre chicos y chicas aumentan a los 16 años." *Revista Electrónica de Investigación Psicoeducativa y Psicopedagógica* aldizkarian, 6. zk., 3 (2), 33-52. or.
- FUNES, J. "¿Cómo trabajar con adolescentes sin empezar por considerarlos un problema?" *Papeles del Psicólogo* aldizkarian, 2003, urtarrila, 84. zk.
- GIL CALVO, E. *Los depredadores audiovisuales. Juventud urbana y cultura de masas*. Tecnos. Madril. 1985.
- HAINARD, F. *Ciudades y empoderamiento de las mujeres. Luchas y estrategias para el cambio social*. Narcea. Madril, 2006.
- LÁZARO, N.; ET AL. "Desigualdades de género en el trabajo. La brecha de género en el empleo y la distribución de las tareas de cuidado." *CIRIEC. Revista de Debate sobre Economía Pública, Social y Cooperativa*, 2.004, 50, 55-75. or.
- LEÓN, M. "El empoderamiento de las mujeres: encuentro del primer y el tercer mundo en los estudios de género." *La ventana* aldizkarian, 2001, 13. zk., 94-106. or..

MANNHEIM, K. "El problema de las generaciones." *REIS aldizkarian (Revista Española de Investigaciones Sociológicas)*, 1993, 62. zk., 193-242. or..

MARTÍN SERRANO, M. (DIR.) *Historia de los cambios de mentalidades de los jóvenes entre 1960-1990*. Instituto de la Juventud y Ministerio de Asuntos Sociales. Madril, 1994.

MASA, M. "Antes de la política: la estructuración de lo cotidiano en el País Vasco." *Inguruak, Revista Vasca de Sociología*, 28. zk., 153-162. or.

MEGÍAS, I. ET AL. *Jóvenes y sexo. El estereotipo que obliga y el rito que identifica*. Madril. FAD, 2005.

LAN ETA GIZARTE GAIETAKO MINISTERIOA ETA F.A.D. *Ser adolescente hoy*. Madril, 2005eko azaroaren 22tik 24ra egindako Kongresuaren txostenen liburua. F.A.D. Madril, 2005.

MORENO, M<sup>a</sup> C. ET AL. *Los adolescentes españoles y su salud. Un análisis en chicos y chicas de 11 a 17 años*. Sevillako Unibertsitatea eta Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Madril, 2003.

MOSEDALE, S. *Towards a framework for assessing empowerment*, paper realizado para la conferencia internacional "New Directions in Impact Assessment for Development: Methods and Practice", Manchester UK, 24 and 25 November 2003.

NAVARRO-PERTUSA, E. ET AL. "Diferencias de género en motivación sexual." En *Psicothema*, 2003, 15. lib., 3. zk., 395-400 or.

NAVARRO-PERTUSA, E. ET AL. "Grupos de iguales e iniciación sexual adolescente: diferencias de género." En *Internacional Journal of Clinical and Health Psychology*, 2006, 6. lib., 1. zk., 79-96. or.

PESCADOR, E. "Estrategias de intervención en el marco educativo: masculinidad y población adolescente." En EMAKUNDE. *Congreso Internacional: Los hombres ante el nuevo orden social*. Vitoria-Gasteiz, 2002.

RAPPAPORT, J. "Studies in empowerment: introduction to the issue." *Prevention in Human Services*, 1984, 3, 1-7. or..

ROWLANDS, J. *Questioning empowerment: working with women in Honduras*. Oxford. Oxfam, 1997.

SÁNCHEZ ÁLVAREZ, P. *Empoderamiento. Recurso para conseguir la igualdad de géneros*. Ediciones Diego Marín. Murtzia, 2007.

SERAPIO, A. "Realidad psicosocial: la adolescencia actual y su temprano comienzo. En *INJUVE, Revista de Estudios de Juventud*. Monográfico "Adolescencia y comportamiento de género." SILVA, I. (KOORD.), 2006ko ekaina, 73. zk., 11-23 or..

SILVA, I. (KOORD.) *La adolescencia y su interrelación con el entorno*. INJUVE. Madril, 2006.

USATEGI, E.; y DEL VALLE LOROÑO, A.I. *La escuela sola: transmitir en valores en una escuela en cambio. Informe sobre la transmisión de valores en la enseñanza obligatoria de Vitoria-Gasteiz*. Estudio para la Fundación Fernando Buesa. Leioa, 2007.



**E**

**ERANSKINAK**



## TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

# A.1

3.1. TAULA.	2006/07 ikasturtean DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen unibertsoa eta lagina, EAEko lurralde historikoen eta eskualdeen arabera. . . . .	35
3.2. TAULA.	2006/07 ikasturtean DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen unibertsoa eta lagina, zentroaren titulartasunaren arabera. Guztizkoak eta ehunekoak. . . . .	35
3.3. TAULA.	2006/07 ikasturtean DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen unibertsoa eta lagina, hizkuntza ereduen arabera. Guztizkoak eta ehunekoak. . . . .	36
3.4. TAULA.	2007/08 ikasturtean DBHko 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei egindako galdeketa kopurua, EAEko lurralde historikoen eta eskualdeen arabera. Guztizkoak. . . . .	37
4.1. TAULA.	Ikerketan parte hartu duten nerabeak, sexuaren arabera. Guztizkoak eta ehunekoak. . . . .	44
4.2. TAULA.	Nerabeen batez besteko adina, sexuaren arabera. Ehunekoak. . .	45
4.1. GRAFIKOA.	Parte hartu duten nerabeen lurralde historikoen arabeko banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	46
4.3. TAULA.	Parte hartu duten nerabeen udalerrien arabeko banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	46
4.2. GRAFIKOA.	Parte hartu duten nerabeak eskolatuta dauden zentroaren titulartasunaren arabeko banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	47
4.3. GRAFIKOA.	Parte hartu duten nerabeak eskolatuta dauden hezkuntza mailen arabeko banaketa, xeduen arabera. Ehunekoak. . . . .	48
4.4. GRAFIKOA.	Parte hartu duten nerabeak eskolatuta dauden hizkuntza ereduen arabeko banaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	48
4.5. GRAFIKOA.	Jatorriz atzerritarrak diren nerabeak, sexuaren arabera. Ehunekoak.	49
4.4. TAULA.	Atzerriko nerabeen herrialde multzoak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztizkoa"ren arabera. Ehunekoak. . . . .	49
4.6. GRAFIKOA.	Jatorriz atzerritarrak diren nerabeak eskolatuta dauden titulartasuna, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	50

4.7. GRAFIKOA.	Nerabeen bizikidetza-unitateen tipologiak, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	51
4.5. TAULA.	Nerabeen gurasoen jatorri atzerritarra, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	52
4.6. TAULA.	Jatorri atzerritarra duten aita eta amen herrialde multzoak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	53
4.8. GRAFIKOA.	Nerabeen gurasoen ikasketa-maila, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	54
4.7. TAULA.	Nerabeen gurasoen egungo lanbide-egoera, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	55
4.8. TAULA.	Nerabeen aiten egungo lanbide-egoera, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	55
4.9. TAULA.	Nerabeen amen egungo lanbide-egoera, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	56
4.9. GRAFIKOA.	Familien tipologia, "bi gurasoak lanean ari direnean", sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	57
4.10. GRAFIKOA.	Familien tipologia, "aita lanean ari denean eta ama etxeakoandrea denean", sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	57
4.10. TAULA.	Nerabeen gurasoen etxeko lanen burutzea eta kudeaketa. Handienetik txikienera ordenatuta "ama bakarrik" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	58
4.11. TAULA.	Nerabeen gurasoen etxeko lanen burutzea eta kudeaketa, tipologiaren arabera ["egunerokoaren kudeaketa", gehienak, "nagusitasuna", "eraginkortasuna" eta "ardura banaketa"]. Handienetik txikienera ordenatuta "ama bakarrik" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	60
4.12. TAULA.	Nerabeek etxean egindako jarduerak. Handienetik txikienera ordenatuta, "inoiz ez edo oso gutxitan" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	61
4.13. TAULA.	Nerabeek astean behin baino gehiagotan egindako etxeko jarduerak (ia egun guztietan zutabearen bildutakoa), sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "ama bakarrik" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	62
4.14. TAULA.	Gurasoek nerabeen eskola-, afektibitate- eta aisialdi-egoerei buruz duten ezagutza. Handienetik txikienera ordenatuta, "ama" zutabearen emaitzen arabera. Ehunekoak. . . . .	63

4.15. TAULA.	Gurasoek nesken eskola-, afektibitate- eta aisialdi-egoerei buruz duten ezagutza. Handienetik txikienera ordenatuta, "ama" zutabearen emaitzen arabera. Ehunekoak . . . . .	64
4.16. TAULA.	Gurasoek mutilen eskola-, afektibitate- eta aisialdi-egoerei buruz duten ezagutza. Handienetik txikienera ordenatuta, "ama" zutabearen emaitzen arabera. Ehunekoak. . . . .	64
4.11. GRAFIKOA.	Nerabeen artean aste-saria egotea. Ehunekoak. . . . .	66
4.12. GRAFIKOA.	Nerabeen aste-sariaren zenbatekoa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	67
4.13. GRAFIKOA.	Nerabeen aste-saria zeinek ematen duten, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	68
4.14. GRAFIKOA.	Nerabeek aparteko diru-sarrerak izatea, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	69
4.15. GRAFIKOA.	Nerabeek aparteko diru-sarrerak lortzeko baliabideen tipologia, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Erantzun anitza. Ehunekoak. . . . .	70
4.17. TAULA.	Nerabeen aste-sariaren banaketa, sexuaren arabera. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	71
4.18. TAULA.	Nerabeen aparteko diru-sarreraren banaketa, sexuaren arabera. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	72
4.16. GRAFIKOA.	Aurrezteko gaitasuna nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	73
4.17. GRAFIKOA.	Nerabeen aurrezkiaren kudeaketa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	74
4.18. GRAFIKOA.	Nerabeek aparteko gastu-beharren aurrean, diru-sarrera iturriak aurkitzeko erabiltzen dituzten estrategiak, sexuaren arabera. Erantzun anitza (bi ohikoenak aukeratu). Aldagaiak hautatzea. Ehunekoak . . . . .	75
4.19. GRAFIKOA.	Nerabeek beren baliabide ekonomikoez "zerbait" erosteko ezintasunaren aurrean duten erantzun mota, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	76
4.19. TAULA.	Nerabeek nahi dutena eta gurasoek ukatu dietena erosteko erabilitako estrategiak. Lehentasunaren arabera ordenatuta, "Neskak" zutabearen arabera. . . . .	77
4.20. TAULA.	Nerabeen gizarte-jarduerak eskola bukatu eta gero. Handienetik txikienera ordenatuta "ia egun guztiak" zutabetik. Ehunekoak. . .	79

4.21. TAULA.	Nerabeen gizarte-jarduerak eskola bukatu eta gero "ia egun guztiak", sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabetik. Ehunekoak. . . . .	80
4.20. GRAFIKOA.	Nerabeek eskola bukatu eta gero gizarte-jarduerei uztea egotea, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	81
4.22. TAULA.	Ikerketaren nerabeek lehen egiten zituzten jardueri uzteko arrazoiak. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	82
4.23. TAULA.	Ikerketaren nerabeek lehen egiten zituzten jardueri uzteko arrazoiak. Handienetik txikienera ordenatuta "kirola" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	83
4.24. TAULA.	Lehen egiten zuten jarduera bat egiten ez jarraitzeko arrazoiak, sexuaren arabera. Garrantzia ordenaren arabera ordenatuta, "neskak" zutabearen arabera. . . . .	84
4.21. GRAFIKOA.	Nerabeek eskolaz kanpoko jardueretan denbora gehiago emateko interesa, ezin duten arren, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	85
4.25. TAULA.	Egitea gustatuko litzaiekeen jardueren zerrenda. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak . .	86
4.26. TAULA.	Egitea gustatuko litzaiekeen jarduerak ez egiteko arrazoiak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.. . . . .	87
4.22. GRAFIKOA.	Nerabeek asteburuetan etxera itzuli behar diren ordua, sexuaren arabera. Ehunekoak . . . . .	88
4.23. GRAFIKOA.	Nerabeek etxera beranduago heltzen ez uzteko uste dituzten arrazoiak, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	89
4.24. GRAFIKOA.	Etxera beranduago itzultzeko interesa, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	90
4.25. GRAFIKOA.	Nerabeei asteburuetan beranduago heltzea gustatuko ez litzaiekeen arrazoiak. Ehunekoak. . . . .	91
4.26. GRAFIKOA.	Nerabeek asteburuetan beranduago heldu ahal izateko erabilitako negoziazio-estrategiak, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	92
4.27. TAULA.	Lagun-taldearen osaera eta batez besteko adina. Handienetik txikienera ordenatuta, "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. .	93
4.28. TAULA.	Nerabeen gizarte-jarduerak kideko taldean. Handienetik txikienera ordenatuta "askotan" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	94
4.29. TAULA.	Nerabeek kideko taldean "askotan" egindako gizarte-jarduerak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	95

4.30. TAULA.	Nerabeek kideko taldean "askotan" egindako gizarte-jarduerak, talde motaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	96
4.27. GRAFIKOA.	Nerabearen jarrera kideko taldean planen bat egiten denean. Ehunekoak. . . . .	97
4.28. GRAFIKOA.	Nerabearen jarrera kideko taldean planen bat egiten denean, eta Ados ez dagoenean. Ehunekoak. . . . .	98
4.31. TAULA.	Nerabeek kideko taldeak ideia aldatzeko egindako estrategiak (Ados ez dagoen planean). Ehunekoak. . . . .	98
4.32. TAULA.	Nerabeek kideko taldeak ideia aldatzeko egindako estrategiak (Ados ez dagoen planean), sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	99
4.29. GRAFIKOA.	Nerabeen zainketa-jarduerak, sexuaren arabera. Ehunekoak . . . . .	101
4.30. GRAFIKOA.	BAI. Nerabeen zainketa motak, sexuaren arabera. Ehunekoak. . .	101
4.33. TAULA.	Nerabeen irudiaren erabakia. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. .	102
4.31. GRAFIKOA.	Nerabeek "osasuna"rekiko duten kezka, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	103
4.32. GRAFIKOA.	Nerabeen osasunaren zainketaren ardura, sexuaren arabera, osasun kezkaren bat badute bakarrik. Ehunekoak. . . . .	104
4.34. TAULA.	Nerabeen osasunaren zainketaren arduradunak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	104
4.33. GRAFIKOA.	Nerabeen gorputzean sartzeko ekintzak, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	105
4.35. TAULA.	Nerabeen gorputzari buruzko iritzi gogaikarriak eman dituzten pertsonen tipologia, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	106
4.36. TAULA.	Nerabeen gorputzari buruzko zenbait ekintza, gogaikarritzat jotzen direnak, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	107
4.37. TAULA.	Nerabeen erantzunak beren gorputzari buruzko ekintzen aurrean, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. . . . .	108
4.34. GRAFIKOA.	Bikotea sortzea nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoak. .	109
4.35. GRAFIKOA.	"Kideko" talde motak nerabeen artean, bikotea egon edo ez. Ehunekoak. . . . .	110

4.38. TAULA.	Nerabeen iritzia afektibitate-harremanei buruz. Ehunekoak. . . . .	111
4.39. TAULA.	Nerabeen "aldeko" iritzia afektibitate-harremanen barruan, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	112
4.40. TAULA.	Bikotea duten edo izan duten nerabeen iritzia afektibitate-harremanen barruan. Ehunekoak. . . . .	112
4.36. GRAFIKOA.	Sexualitatearen garrantzia nerabeen artean, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak. (Erantzun anitza). . . . .	114
4.37. GRAFIKOA.	Sexu-harremanak egotea (zentzu zabalean) nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	115
4.38. GRAFIKOA.	Harreman motak nerabeen artean, sexuaren arabera. Ehunekoa. Erantzun anitza . . . . .	116
4.41. TAULA.	Nerabeek sexu-harremanak dituzten edo izan dituzten pertsona motak, sexuaren arabera. Erantzun anitza. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.. . . . .	117
4.42. TAULA.	Sexu-harremanak "penetrazioarekin" dituzten pertsonekin duten harreman mota, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak . . . . .	119
4.43. TAULA.	Sexu-harremanak "penetratorik gabe" dituzten pertsonekin duten harreman mota, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak.. . . . .	119
4.44. TAULA.	Nerabeek "musuak, laztanak..." sexu-harremanak dituzten pertsonekin duten harreman mota, sexuaren arabera. Handienetik txikienera ordenatuta "guztira" zutabearen arabera. Ehunekoak . . . . .	120
4.39. GRAFIKOA.	Sexu-harremanak egotea nerabeen borondatek harantzago, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	121
4.45. TAULA.	Sexu-harremanen tipologia nerabeen borondatek harantzago, sexuaren arabera. Ehunekoak. . . . .	121
